

2020ko MEMORIA OROKORRA



Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua

0. SARRERA	4
1. ETXEBIZITZA.....	6
1.1 Emantzipa...zer? enplegu eta etxebizitza lantaldea.....	6
1.2 Zutabeak Arrakalatzen: etxebizitza eta generoa.....	11
1.3 Gazteak eta etxebizitza 2019 txostena	16
1.4 Emantzipazio neurrien mapa interaktiboa.....	18
1.5 Gazteen iritzia ezagutzeko galdetegia.....	20
1.6 Harremanak eragileekin	22
1.7 Eguneroko lana.....	25
2. ENPLEGUA.....	28
2.1 Gazteak eta emantzipazioa	28
2.2 Lan istripuen protokoloa	31
2.3 Data esanguratsuen egutegia	33
2.4 Formakuntza Duala ezagutzen	35
2.5 Herrietako gazteak zer?	37
2.6 Substantziarik gabeko adikzioen inguruko topaketa	39
2.7 Harremanak eragileekin	39
2.8 Eguneroko lana.....	42
3. HEZKUNTZA	46
3.1 Hezkuntza ez-formala.....	46
3.1.1 Astialdi Foroen koordinazioa.....	46
3.1.2 Astialdiko ikastaroen kanpaina	50
3.1.3 Udako ekintzen zabalpena	52
3.1.4 Astialdi Foroko webgunea.....	55
3.1.5 Boluntariotza kanpaina 2020	56
3.1.6 "Haziak Astialdira": Hezkidetza astialdian lantzeko proposamena.....	63
3.1.7 Mugen Mugetatik #IkusGaitezen: Gazte migratzaileekin etorkizunera begira.....	63
3.1.8 Substantziarik gabeko adikzioak	63
3.2 Hezkuntza formala	66
3.2.1 Hezkuntza Foroa.....	66
3.2.2 "Garraio gastuen azterketa" analisiaren zabalpena.....	73

3.2.3 Hezkuntza eragileak	76
3.3. Hezkuntza: orokorra.....	78
3.3.1 Eskola Kontseilua.....	78
3.3.2 Administrazioekin koordinatu.....	80
3.3.3 Egunerokotasuna	81
4. PARTAIDETZA	82
4.1 EGK Sendotzen	82
4.2 Aholkularitza	85
4.2.1 Gazte eragileei aholkularitza eta partaidetza sustapena:	85
4.2.2 EGKren kide izateko aholkularitza	87
4.3 Euskadiko Gazteak Lankidetzan Programa.....	88
4.4 Deusto GazteaGo	90
4.5 Gizarte Aldaketarako Herritartasuna	93
4.6 EGK-ko elkarteen topaketa	95
4.7 Material eta gelen lagapena.....	97
4.8 Gobernu irekia (OGP)	99
4.9 Egunerokoa	101
5. BAKEA ETA BIZIKIDETZA	103
5.1 Etikasi programa.....	103
5.2 Bake lantaldea	105
5.3 Mugen mugetatik #IkusGaitezen: Gazte migratzaileekin etorkizunera begira	106
5.4 Gazteak eta bakea mahai-inguruak.....	112
5.5 <i>Gazteon Aukera</i> dokumentalaren difusioa	114
5.6 #HistoriaOsatzan Ikasketa Komunitatea	115
5.7 Harremanak eragileekin	117
5.8 Eunerokoa	119
6. BERDINTASUNA	125
6.1 Gaur8 lantaldea	125
6.2 #BazterretikErdira Zineforuma.....	127
6.3 I. Berdintasun Plana	129

6.4 Gune Anitza	131
6.5 Berdintasun protokoloak.....	134
6.6 Festak: Gure espazioak birpentsatzen	136
6.7 Beijing+25	138
6.8 Zutabeak Arrakalatzen: etxebizitza eta generoa.....	140
6.9 Berdintasun arloko ata esanguratsuen egutegia	140
6.10 Haziak Astialdira: Hezkidetza astialdian lantzeko proposamena	145
6.11 Berdintasun eta LGTBI+ arloan lan egiten duten eragileekin harremana.....	148
6.12 Egunerokoa	150
7. KOMUNIKAZIOA	152
7.1 Diseinatzaile gazteen lan-poltsa.....	152
7.2 Piztu! buletin digitala	154
7.3 Sare sozialak kudeatu	157
7.4 Webguneen mantenua	164
7.5 www.egk.eus webgunearen mantenua	166
7.6 Lan-arloka sarea sortu.....	170
7.7 Gizarte Aldaketarako Herritartasuna	172
7.8 Bilbo Instagramer lehiaketa	174
7.9 Barne komunikazioa	176
7.10 Komunikabideekin harremana.....	178
7.11 Beste lan-arloekin harremana.....	181
8. PRESIDENTZIA	190
8.1. Batzorde Iraunkorra	190
8.2. Lantalde Teknikoaren koordinakzioa	191
8.3. Batzorde ekonomikoa	193
8.4. EGK-ko Batzar Orokorra	194
8.5. Elkarlana eta ordezkaritza	196
8.5.1. Eusko Jaurilaritza.....	196
8.5.2. Aldundiak	197
8.5.3. Eusko Legebiltzarra	199

8.5.4. Udalak.....	200
8.5.5. Beste erakundeak.....	201
8.5.6. Komunikabideak eta irudi publikoa	203
8.6. Gazteria legea.....	204
8.7. Gazte Agora	205
8.8. Gobernu Irekia (OGP).....	206

O. SARRERA

Dokumentu honetan, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) 2020an zehar burutu duen lana jasotzen da. Bederatzi lan-arloek (etxebizitza, enplegua, hezkuntza, partaidetza, bakea eta bizikidetza, berdintasuna, komunikazioa, presidentzia eta administrazioa) burututako proiektu eta ekintza guztiak azaldu eta horien ebaluazio bat egin da.

Urtero bezala, martxoaren 7ean EGK-ko 40. Batzar Orokorra ospatu zen. Bertan, 2019ko memoria azaldu eta Lantalde Teknikoak eta Batzorde Iraunkorrak elkarlanean egindako 2020ko plangintza aurkeztu eta aho batez onartu zen. EGK sortu zela 34 urte igaro dira jada, eta bide honetan eratutako diskurtsoa oso zabala eta sakona da. Zentzu honetan, 2020an burutu diren proiektu eta ekintza guztien emaitza baikorra izan da diskurtso hau osatu eta eguneratu delako, martxotik aurrera nonahi egon den COVID-19aren osasun krisia izan arren.

Aurreko urtean sortutako etxebizitza lan-arloak garrantzia erakutsi zuen 2019an zehar, eta 2020ko plangintzan eta ostean garatutako proiektuek bide honen garrantzia azpimarratu dute. Gazteen artean interes handia duen gaia dela baieztatu da antolatutako topaketa zein EAE mailako gazteei zuzendutako galdetegien bidez. Aurreko urteetan hasitako ildoari jarraiki, esfortzu berezia egiten jarraitu da burututako lana beste euskarrien bidez komunikatzeko. Honek garrantzi berezia izan du martxotik aurrera, gazte, elkarte zein eragile guztien lana bat-batean aldatu eta etxera bidali zutelako.

COVID-19ak sortutako krisiak gazteria gogor kolpatu du eta gazteen bizitza esparru denetan izan du eragina. Etxetik parte hartzea erronka izan da gazte askorentzat, eta alfonbra azpian erdi ezkutuan zeuden egoera ugari azaleratu ditu: hezkuntzan teknologia berrien zein internet konexio eskasiak, ikasle pixuak ordaintzen jarraitu beharra bertan jarraitu ez arren, partaidetza modeloak aldatzea, gazteen lan egoera zahargarriago egitea... Aurreko krisitik pairatzen zituzten egoera prekarioak larriagotzea izan du ondorio moduan, eta horrek, nolabait, EGKren plangintza halabeharrez moldatzea ekarri du.

COVID-19aren eztandak oinarrietara itzularazteko aukera eman dio EGKri, eta gazteen zein elkarleen egoera zein den ezagutu, harreman zuzena estutu eta laguntza zein aholkularitzaren garrantzia erakutsi du. Ikusarazi du gazteak boluntario eta solidario direla (eta horri protagonismoa eman nahi izan zaio **Boluntariotza Kanpainaren** bidez, adibidez) eta parte

hartzen jarraitzeko prest egon direla (nahiz eta egun batetik bestera bideo dei eta komunikatzeko zein parte hartzeko modu berriak erabiltzen ikasi behar izan duten). Erakutsi du baita ere gazteen eta administrazioen arteko zubilana inoiz baino beharrezkoagoa izan dela osasun krisian azaleratutako egoeran instituzioetara helarazteko.

Gazte zein elkarteekin hausnartzeko eta beraien iritziak ezagutarazteko espazio ugari sortu ditu EGK-k, eta emandako aholkularitzak ere nabari hazi dira (martxoko etxeratzean hezkuntza zein partaidetza lan-arloetan, bereziki). Era berean egoera eta administrazioen neurriak azaltzeko eta ezagutarazteko hainbat paneltxo sortu dira, bereziki nabarmentzekoa izanik hauek lortutako oihartzuna.

Martxoan onartutako plangintza moldatu izan behar du EGK-k, unean uneko egoerara egokituz. Batetik, proiektu batzuk telematiko izatera pasa dira, beste batzuetan presentzialki zein streaming bidez ikusteko aukera eman zaie gazte eta elkartei. Etxeratze edo osasun neurri berrietara moldatuta ere, 2020a oso urte oparoa izan da proiektu zein parte-hartzaile kopuru aldetik, baita jorratu diren gaien aniztasunagatik ere. Hurrengo urteetara begira EGKren diskurtsoa markatuko duten egitasmoak izan dira, besteak beste: **#ZutabeakArrakalitzen**, **#IkaslePisuakZer** kanpaina, **#IkusGaitezen**, **Gazteen egoera ezagutzeko galdetegi**. Guzti hauek ekintzetan parte hartu duten gazteen ekarpen, gogoeta, eskari eta ondorioak jasotzeko baliagarriak izan dira.

Guzti honengatik, EGK-ko elkarte eta kideek oso positiboki balioetsi dute 2020ko jarduna. Inoiz baino oihartzun handiagoa lortu da eta Euskadiko Gazte Kontseiluak egindako lana erakundeetako neurrietan islatu dela iritzi da.

1. ETXEBIZITZA

1.1 Emantzipa...zer? enplegu eta etxebizitza lantaldea



Gazteen egoera inoiz ez da bereziki ona izan etxebizitza, enplegua eta emantzipazioari dagokionez, eta ez dira gutxi izan eskubide honen alde egin izan diren egitasmoak. Haatik, 2008ko krisi ekonomikoa hasi zenetik, etxebizitza ez lortzea edo galtzea eta enpleguaren prekaritatearen arazoa orokortu egin dira. Ondorioz, gazteek emantzipatzeko dituzten arazoek protagonismoa galdu dute, arazo orokorrago batean nahasiz. Halaber, COVID-19ak sortutako krisiak gogor kolpatu du gazteria eta aurrean ere, lan handia egon da egiteko. Luze da EGKtik egoera horiek salatzen direla, ez bakarrik azken urteotako egoera ekonomikoren ondorioz, baizik eta lehenagotik pairatutako baldintzengatik ere.

Hori dela-eta, garrantzitsua da gaztez osaturiko etxebizitza eta enplegu lantalde indartsu bat osatzea, gazteen nahiak eta beharrak politika publikoetara helarazteko. Azken urteetan diskurtso sakon eta indartsua landu izan da, eta zenbait kargu politikoren aurrean garrantzizko eragile bilakatzea lortu da. Nahiz eta enplegu eta etxebizitza lan-arloak banatu ziren orain dela bi urte, **Emantzipa...zer?** lantaldea enplegu eta etxebizitza gaiak elkarrekin jorratzeko baliatu da. Honela, lantaldea indartzeko asmoarekin gazte kolektibo zein norbanako berriengana hurbildu da, lantzeko gai desberdinak planteatuz.

Lantalde hau enplegu lan-arloarekin batera koordinatzen da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteriaren perspektiba batetik honi loturiko etxebizitza ekimenak eta neurriak aztertzea, administrazioari hausnartutako ondorioak helarazi ahal izateko eta, horrela, politika publikoetan eragiteko.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteak eta gazte-elkarteak etxebizitza arloaren gainean batuko dituen eztabaidagune bat ezartzea.
- Gazteria eskubide osoko subjektu bezala aintzakotzat hartzea, defendatzea eta alternatiba eta hobekuntza-proposamenak sortzea.
- Eztabaidagunean sortutako ekimenei jarraipena ematea eta horren funtzionamendua kudeatzea eta bultzatzea gazte berrien partaidetza lortuz.

Garapena

Urteko plangintza bilera:

Otsailean egin zen lehen bilera honetan gazteen etxebizitza egoeraren diagnosia eta urteko plangintza osatu zen. Abiapuntu moduan, diagnosia egiteko, [Gazteen Adierazleak. Euskadiko gazteen panoramika 2019](#) eta [Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2018](#) txostenak landu ziren. Bestalde, EGK-k 2020ko urtean aurrera eramango zituen ekitaldiak eta baita ere, lantaldeak landu nahi zituen gaiak jorratu ziren. Bileraren berri emateko sare sozialak, [albisteak](#) eta mezu elektroniko bidez egin zen.

COVID-19ari aurre egiten:



Martxoan COVID-19a dela-eta, konfinatuak izan ginen. Gazteei enplegu eta etxebizitza egoeran COVID-19ak sortutako krisiak zelan eragin zien aztertzeko eta aurre egiteko neurriak pentsatzeko elkartu zen lantaldea. Horretarako, martxoaren 30ean bideo bilera bat burutu zen konfinamenduaren arauari jarraiki. Bileraren berri emateko, [sare sozialak](#), mezu elektronikoak eta [albisteak](#) egin ziren. Lantaldeak gazteengan nagusitzen zen informazio ezaren aurrean paneltxo informatiboak egitea erabaki zuen. [Paneltxo hauek](#) gazteriari informazioa luzatu eta kontaktuak eskaintzeko helburuarekin egin ziren. Horretarako, [enplegu](#) eta [etxebizitzari](#) dagokionez, egoera desberdinak eta kasuei aurre egiteko aukera desberdinak ageri dira.



[Etxebizitza](#) gaiari dagokionez, ohiko etxebizitzetan egoera zaurgarrian aurkitzen zirenentzako, alokairu dirulaguntzak iragarri zituen administrazio publikoak. Besteak beste, neurri hauek iragarri zirenean zenbait kasu kontuan hartu gabe gelditu ziren, adibidez, ikasle pisuen inguruan ez zen ezer jaso. Beraz, klase presentzialak izango zituzten edo ez argitu gabe, zeuden mementoan errenta ordaintzen jarraitu behar zuten ikasle pisuen kasua erreparatu beharko litzatekeela ondorioztatu zen.

Etxebizitza Sailburuordetzaren dirulaguntzen kontraste lana:

Apirilaren 16an eginiko **Emantzipa...zer?** bileran Etxebizitza Sailburuordetzatik planteatutako dirulaguntzaren kontrastea egin zen. Laguntza ekonomiko hauek ahultasun ekonomiko eta sozialeko egoerei aurre egin behar zieten etxebizitza libreen errentarientzat alokairu dirulaguntza bat zen. Etxebizitza Sailburuordean diseinatutako laguntza honen kontraste lana egiteko EGKrengana jo zuten. Lantaldeak dirulaguntzaren kontraste lana eginez ekarpenak egin zizkion zirriborroari.

#IkaslePisuakZer:

Ikasle pisuen gaia mahai gainean jartzeko beharra identifikatu ondoren, hezkuntza lan-arloarekin elkarlanean [#IkaslePisuakZer](#) kanpaina sortu zen. Kanpaina bitartez antolatu eta bizipenetatik abiatuz erantzun kolektibo baten oinarrituz, administrazioari proposamenak helaraztea zen



helburua. [Albistean](#) publikatu bezala kanpainari ikasle desberdinen bizipen eta eskaera konkretuak jasotzen zituen [bideoa](#)rekin ekin zitzaion. Kanpainaren ondorioz, agerraldiak izan ziren zenbait komunikabideetan: [Berriako albistea](#), [Donostitik](#), [TbNews](#), [Diario Vasco](#), [Berria](#),

[Bizkaia Irratia](#) eta [Euskadi Irratian](#). Hori jarraipena emateko asmoz, ikasturte berriaren hasierarekin bat, sareetan [formatu berriarekin](#) jasota gogorarazi zen eta honetan ere bizipenetan fokua jarri zen zabalpena.

Zentzu horretan, neurri konkretu batzuk bildu izan ziren ikasle protagonisten aldetik aurrera begira gaia lantzeko, besteak beste:

- Ikasleen egoera hau aintzat hartzea eta neurrietan uneko egoera presente izatea.
- Partaidetza espazioak bultzatzea, batez ere mota honetako erabakiak hartzeko (nolabait ikasle baten eguneroko bizitza baldintzatzen dutenak).
- Egoeraren berri beharrezko denbora tartearaz ematea. Ezjakintasun eta ezegonkortasun egoerak ahalik eta lasterren ekiditeko. Jakinarazpenak lehen mementotik ikasleen esku egotea, hau da, informazio gardena eta organizazioari dagokiona, ikasleen eskura jartzea.
- Laguntza ekonomikoetan neurriak gehitzea. Beraien ohiko etxebizitzan bizitzen geldituko direnen kasuan (garraiorako esaterako) edo joan etorrian ibiliko direnen kasuan.

Eskaera horiei eutsiz eta gaia mahai gainean jartzeaz gain, ikasle batzuek iristea lortu zen harreman berriak sortuz.

Aurrera begirakoak antolatzeko:



COVID-19ak plangintzaren planteamendua aldatu zuen, eta sortu ziren behar berriei erantzuteko, egoerara moldatzeko eta lanean jarraitzeko maiatzean lantaldea batu zen. Hiru ziren zereginak: gazteen egoera ezagutzeko galdetegiaren kontrastea burutzea, [#IkaslePisuakZer](#) kanpainaren jarraipena egitea eta ikasleen praktika laborekin gertatuko zenaren inguruan hausnartzea. Bileraren

berri emateko, sare sozialak, mezu elektronikoak eta [albisteak](#) egin ziren.

Lan Egokiaren kanpainaren jarraipena eta etxebizitza eta generoaren inguruko lanketa:

Urriaren 20an, bideo bilera baten bidez elkartu zen lantaldea. Bertan **#LanEgokia** kanpainaren balorazioa eta aurrera begira jasotako aldarrikapenei jarraipena emateko bideak landu ziren. Baita ere, lan istripuen harira aktibatzen den protokoloaren irudia berrikusi zen. Etxebizitza gaiari dagokionez, etxebizitza eta generoaren inguruko lanketatxoa egin zen, **Zutabeak Arrakalatzen: etxebizitza eta generoa** mahai inguruaren prestaketez baliatuz. Bilera data zehazteko lantalde kideekin data adostu ondoren sare sozialetan iragarri zen gazte berriak lortzeko helburuarekin.

Azken urteko bilera:

Abenduaren 2an izan zen urteko azken bilera. Bilera horretan Gaztelagun alokairu dirulaguntzen datuak landu ziren. Alokabidek pasatutako datuez baliatuz dirulaguntza hauen garapena aztertu zen, hobekuntza proposamenak planteatzeko. Honekin bat urtearen balorazioa egin zen eta hurrengo urtera begira landu daitezkeenak proposatu ziren. Bileraren berri emateko [sare sozialetan](#) zabaldu zen.

Ebaluazioa

- Bileretako hausnarketa sakontasuna eta kideen jarrera aktiboa bereziki azpimarratzekoa da. COVID-19ak sortutako krisiaren aurrean lantaldeak emandako erantzuna eta egoerara moldatzeko prestutasuna oso garrantzitsua dela uste da.

- Lantaldearen partaidetzari dagokionez, gero eta talde egonkor eta handiagoa izatea oso positibotzat balioesten da. Horregatik, hurrengo urteetara begira bide horretan jarraitzea aurreikusten da.

1.2 Zutabeak Arrakalatzen: etxebizitza eta generoa



EGKn genero ikuspegia zeharkako balorea da eta gainerako lan-arloetan egin den moduan, etxebizitza arloan ere genero perspektiba txertatzea ezinbestekotzat jo da. Lehenik eta behin, etxebizitzarako sarbidean emakume eta gizon gazteen arteko nolakotasuna aztertu nahi izan da, izan ere, emakume gazteek enplegu egoera okerragoa izanik, emantzipatzeko zailtasun handiagoak dituzte.

Honekin bat, baita ere, etxebizitza egitura eta eredu bera ere ikertu nahi izan da. Izan ere, gaur egun gailentzen den etxebizitza egiturak, familia eredu tradizionalari erantzuten dio eta eredu honetan emakumea zaintza eta erreprodukzio lanetan kokatu izan da historikoki. Hala, etxebizitza molde hauek etxeko espazioak modu indibidual, zurrun eta betebeharrak batzuei erantzuten die.

Horregatik, EGK-k etxebizitza gaia genero ikuspegitik aztertzeko beharrari erantzunez gazteei zelan eragiten dien eta honi erantzuten dioten proposamenak jendarteratzeko **Zutabeak Arrakalatzen: etxebizitza eta generoa** mahai ingurua gauzatu du 2020an.

Proiektu hau berdintasuna lan-arloarekin batera koordinatu da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteak etxebizitza genero ikuspegiaren hausnarketara bultzatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Genero ikuspegiko eredu berriak ezagutzea eta berauen gaineko gazteen iritzia jasotzea, ondoren administrazioari helarazi ahal izateko.
- EGKren diskurtsoa aberastea.
- Berdintasuna zeharkako balore gisa praktikara eramatea.

Garapena

Prestaketa lanak:

Lehenik eta behin, topaketan hitz egingo zen gaiaren kokapena egin zen. Izan ere, etxebizitza eta generoak zirrikitu asko ditu bere baitan eta zehaztea oso garrantzitsua ikusten zen.

Topaketan egin nahi zen lanketa hiru atal nagusitan banatu zen; COVID-19ak eragindako hausnarketak, elkarbizitza ereduak eta segurtasuna. Izan ere, hauekiko lotura estua duten eta esanguratsuak diren hainbat datu zeuden mahai gainean: emakume gazteen etxebizitza sarbidea, dagozkion zailtasun nabariagoak (18- 29 urte bitarteko emakume gazteek batez beste alokairura diru iturrien %94,9 bideratu beharra dute gizon gazteek aldiz, %84,3), gazteen gehiengoa bikotearekin emantzipatzen da, familia eredu patriarkal eta tradizionalen oinarritzen diren elkarbizitza ereduaren aukera eza, etxebizitzaren egitura zurruna, arkitekturak eragindako emakumeen segurtasun eza, etab.

Ondoren, koordinazio bilerak egin ziren, topaketaren edukia lantzeko, partekatzeko eta feedbacka jasotzeko hainbat bilera burutu ziren.

Horretarako, alde batetik, arkitektura fakultateko irakasleekin bildu zen gaia nola jorratu planteatzeko eta FeministArkeko kideekin (arkitekturako talde feminista) harremanetan jarri zen euren lana zein den ezagutzeko.

Bestetik, Eusko Jaurlaritzako Lurralde plangintza eta Etxebizitza Saileko berdintasun teknikaria eta obra eta eraikuntzen arduradunarekin bilera bat egin zen 2020ko martxoaren 9an. Aldi berean, hauekin harremana mantendu eta informazioa partekatu da.

Topaketaren egitura:

Behin gaia zehaztu zenean, berau lantzeko topaketaren egitura, formatua eta gonbidatuak pentsatzea izan zen hurrengo urratsa. Horretarako honako bidea jarraitu da:

- Topaketa mahai inguru formatuaren bidez gauzatzea erabaki zen. Hiru ataletan banatuta eta bertan moderatzaile baten bidez hainbat gai jorratuz. Mahai ingurua osatzeko eta hausnarketa sustatzeko, lehenik, ariketa indibidual bat egitea erabaki zen. Horretarako, publikoari, bizitzea gustatuko litzaiekeen etxebizitza irudikatu zezaten eskatu zitzaion.
- Osatuko zuten hiru profilak zehaztu ziren: gaian aditua den pertsona bat, gaia landu duen gazte bat eta esperientzia edo praktika bat. Profil bakoitza zeinek beteko zuen adosteko zenbait koordinazio bilera egin ziren eta azkenik, hauek izan ziren gonbidatuak: Oihane Ruiz Menendez arkitektoa hirigile feminista, Kalea(n) Bizi arkitektura elkarte eta Abaraska etxebizitza kooperatiba. Bilerak izan ziren proposamena luzatzeko eta hirurek onartu ostean, hizlari guztiekin koordinazio bilera bat egin zen irailaren 17an.
- Espazioa eta data zehaztea: Mahai ingurua urriaren 31n Kutxa Kultur Plazan egitea erabaki zen. COVID-19ak eragindako pandemiak sortutako egoera ezegonkorren aurrean presentzialki gauzatzeko segurtasun eta babes neurri guztiak hartu ziren kontuan. Honekin bat, online aukera egiteko baliabide guztiak ere aurreikusi ziren.



Pandemia egoera dela-eta ekitaldia gauzatu beharreko astean neurri murriztaileak iragarri zituen Gobernuak. Honen aurrean, ekitaldia segurtasun neurri guztiak bermatuz, presentzialki gauzatzeko moldaketak egin ziren eta aldi berean, presentzialki hurbildu ezin zirenentzako streaming zerbitzua eskaini zen.

•

Topaketaren zabalpena:

Urriaren 13an topaketaren zabalpenari ekin zitzaion. Horretarako, lehenik eta behin, EGK-k erabiltzen dituen ohiko bideak erabili ziren: [bideoa](#), [albiste](#), mezu elektronikoak eta sare sozialak.

Bestalde, topaketaren zabalpenari dagokionez, Donostiako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ere albiste eta prentsa-oharra zabaldu zituzten.

Zutabeak Arrakalatzen: Etxebizitza eta generoa:



Urriaren 31n, 11:30etan Kutxa Kultur Plazan izan zen mahai ingurua.

Topaketaren ondorengoak:

Behin topaketa egin ondoren, partaideei honen balorazioa egin zezaten eskatu zitzaion galdetegi baten bidez. Bertan, topaketaren gaia, metodologia, iraupena, erosotasuna eta hobetzeko alderdiak balioetsi ziren.

Bestalde, mahai ingurua grabatuta eta ikusgai dago You Tubeko [EGKren kanalean](#). Baita ere, bertan landutakoa gazteen artean sozializatzeko eta EGK-k aurrera begira lantzen jarraitu ahal izateko paneltxo batzuk sortzea erabaki da. Horretarako, diseinatzaile lan-poltsatik diseinatzaile gaztea aukeratu eta maketazio lanaren koordinazioarekin eman zaio amaiera urteari. Hurrengo urte hasieran aurreikusten da paneltxoen zabalpena egitea.

Ebaluazioa

Lehenik eta behin, hasieran egindako koordinazio bilera ezberdinetan ikusi da gaiak interesa duela jendartean eta hori oso positiboki balioetsi da. Topaketari forma eman ahala gaiak gazteen artean duen garrantzia eta pizten duen jakin-mina oso positiboki balioetsi dira. Batez ere hauek dira azpimarratzeko puntuak:

- Gazteen artean interes handia piztu duen gaia da. Alde batetik ikusi zen, pandemiako arau murriztaileak izan baziren ere, gazteek topaketara gerturatzeko nahia adierazi zutela. Bestetik, gazte profil anitza batu zen, arkitektura gaiari loturikoak asko, baina, beste etxebizitza eredu batzuen lanketak egin nahi dituzten gazteak ere bai.
- Ekitaldia egoerak ahalbidetzen zuen moduan aurrera ateratzeko esfortzu berezia oso positiboki balioesten da.
- Aurrera begira lanean jarraitzeko bide bat ireki da. Hala, panelak landu eta argitaratuko dira eta etorkizunean ildo honi buruzko lanketekin jarraitzea aurreikusten da.

13 Gazteak eta etxebizitza 2019 txostena



2019an gazteen etxebizitza egoera aztertzeko eta egoera hobetzeko ekarpenak egiteko erronka hartu zen, berau bide desberdinen bidez landuz. Alde batetik, **Emantzipa...zer?** lantaldean gazteen etxebizitza egoeraren errealitatea ezagutzeko datuen lanketa bat egin zen iturri desberdinetako txostenak landuz. Honela, gazteen etxebizitza sarbideari erreparatu zitzaion. Bestalde, etxebizitza eredu desberdinak aztertzea izan zen bigarren ardatza, horretarako, lantaldean landutakoarekin bat Hiruburu bi gauzatu ziren, lehenengoa, [Eta Gazteen Emantzipazioa?](#) Gasteizen eta, bigarrena, [Milaka Elkarbizitza](#) Donostian.

Lan horren emaitza da [Gazteak eta Etxebizitza 2019](#) txostena. Haren lehen atalean, gazteen eta etxebizitzaren errealitatearen diagnostiko orokorra aurki daiteke. Jarraitzeko, etxebizitza eredu desberdinak lantzen dira eta batez ere, belaunaldi arteko ereduak. Amaitzeko, **Hiruburu**etan jasotako ondorio eta proposamenak azaltzen dira.

Aurtengo asmoa txosten honen zabalpena egitea izan da. Gazteen etxebizitza egoera lehen lerrora ekarri eta administrazioari hobekuntza proposamenak egin ahal izateko. Horretarako, gaian interesatuta dauden gazte eragile, kolektibo edota banakoei aurkeztu zaie. Baita ere, zubi lana eginez dagokien administrazioei aurkeztu zaie.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteak eta etxebizitza 2019 txostenaren zabalpena egitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Administrazioa eta gazteen arteko zubi-lana egitea, administrazioari gazteen proposamen eta ekarpenak helaraziz.
- Gazteen artean txostenaren zabalpena egitea, EGKren aldarriak ahalik eta modu zabalenean hedatzeko.

Garapena

Maketazio lanak amaitu:

Topatuko diseinatzailearekin maketazio lanak amaitzea izan da lehen urratsa. Horiek amaituta zabalpenarekin ekin zaio.

Zabalpena:

Behin [txostenaren maketazioa](#) prest izanda, zabalpenari ekin zitzaion maiatzaren 5ean. Horretarako bide desberdinak erabili dira. EGKren elkarteei mezu elektronikoak bidali zitzaizkien, webgunerako [albistea](#) eta sare sozialera igo zen eta komunikabideei prentsa-oharra bidali zitzaien. Identifikatu ziren gazte kolektibo eta eragileei aurkeztu zitzaien eta ahalik eta gazte gehiengoarengana heltzeko, maiatzaren 7an, Instagram zuzenekoan egin zen txostenaren aurkezpena egiteko.


Administrazioekin bilera:

Azaroaren 12an Gazteria Saileko Zuzendaria den Agurtzane Llanorekin izan zen bileran [Gazteak eta Etxebizitza 2019](#) txostena aurkeztu zitzaion.

Ebaluazioa

- Txostenaren zabalpena hedatua eta egokia izan dela balioesten da. Besteak beste, Instagram zuzenekoaren modu berritzaileak gazte gehiagorengana heltzea ahalbidetu baitu.
- Txostenak bideak zabaltzen ditu aurrera begira gaiak lantzen jarraitzeko eta hori oso baliagarria da. Baita ere txostenean jasotakoak administrazioarekin elkabarbanatzeak aurrera begirako bidea irekitzen duela balioesten da.

1.4 Emantzipazio neurrien mapa interaktiboa



Administrazioak gazteen emantzipaziorako bideratutako dirulaguntza edota neurri desberdinak ditu. Batzuetan, administrazio maila desberdinek eskaintzen dituzten neurriak dira hauek. Baina gazteak jakitun al dira neurri hauetaz? Haien udalak eskaintzen dituen aukerez jabetzen al dira? Badakite nora jo behar duten neurri hauen gaineko informazioa jasotzeko?

EGK-k gazteek emantzipatzeko administrazioak eskaintzen dituen aukerak ezagutzeko mapa interaktibo bat sortu du. Honela, gazteek bizi diren udalerria klikatuz zein aukera dituen modu erraz baten ikusteko aukera izango dute. Halaber, administrazio maila desberdinek aukera desberdinak eskaintzen baditu hauen arteko bateragarritasuna posible den edo ez azalduko da.

Beraz, 2019an sortutako emantzipazio neurrien mapa interaktiboari jarraipena ematea izan da aurtengo helburua.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Sortutako mapa interaktiboa osatzen jarraitzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteek administrazioak huentzat eskaintzen dituen emantzipatzeko neurriak eta dirulaguntzak ezagutzea eta berauek ezagutaraztea.
- Euskal gazteriaren eta administrazioaren arteko zubi-lana egitea.

- Administrazio eta gazteen artean dagoen harresiari irtenbide ematea.
- Administrazioaren neurri eta programak gazteen artean ezagutzera ematea.
- Tokiko administrazioekin harremana sendotzea.

Garapena

Maparen osaketarekin jarraitu:

Udaletxeekin harremanetan jartzen jarraitu da, bakoitzak gazteentzako dituen dirulaguntza edota alokairu neurrien berri izateko. Asko izan dira maparen beharrezkotasuna adierazi dutenak eta proiektua begi onez jaso dutenak. Halere, pandemiak egoera zaildu egin du eta osaketaren erritmo eta bideak ere honetara moldatu behar izan dira.

Mapari hobekuntzak egin:

Aldi berean mapari hobekuntzak egiten jarraitu da, honela bilatzailea txertatu zaio. Hurrengo urterako mantenu lana ere kontratatu da, hurrengo urteetan dagokion jarraipen egokia eman ahal izateko.

Ebaluazioa

Zenbait proiektu pandemia egoerara moldatu behar izan dira. Horiek horrela izanik, mapa interaktiboaren prozesua egoerara egokitu izan da.

- Administrazioen programa eta neurri hauen gaineko informazioa lortzeko bideari dagokionez, pandemia egoera dela-eta Udaletxeekin harremana zailagoa izan da. Halere, lortutako emaitzarekin lanarekin jarraitzeko beste badagoenez, positiboki balioesten da emaitza.
- Zabalpen prozesua hurrengo urterako utziko da.

1.5 Gazteen iritzia ezagutzeko galdetegia

Desberdinak dira gazteentzako bideratuta dauden emantzipazio alorreko neurri eta programak. Desberdinak dira ere etxebizitza alorra edota gazteentzako emantzipazio neurriak kudeatzen duten administrazioak. Baina zein da hauen gainean gazteek duten iritzia?

EGK-k administrazioei eta hauek eskaintzen dituzten neurriei buruz gazteek duten iritzia ezagutu nahi izan du galdetegi baten bidez. Ahulguneak identifikatu eta ekarpen eta proposamenak planteatzeko asmoz. Gainera, COVID-19ak sortutako krisiak gazteak gogor kolpatu ditu eta horregatik, galdetegia osatze aldera fokua bizitza proiektua eraikitzeke oinarria den etxebizitza egoeran ere jarri izan da, krisiak zein nolako eragina izan duen aztertzeke asmoz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteek administrazioaren eskutik dituzten neurri eta programei buruz duten iritzia ezagutzea, identifikatutako arazoei erantzuna emateko.

HELBURU ZEHATZAK:

- Administrazioa eta gazteen artean dagoen harresia identifikatzea.
- Administrazioa eta gazteriaren arteko zubi-lana egitea..
- COVID-19ak gazteen artean izan duen eragina aztertzea eta ekarpenak jasotzea.
- EGK gazteen beharrak identifikatzeko gazte eragile eta elkarteengana hurbiltzea.

Garapena

Galdetegia prestatu eta kontrastatu:

Lehenengo eta behin gazteek etxebizitza lantzen duten administrazioen inguruko ezagutza eta iritzia ezagutzeko galdera batzuk landu ziren. Hauei, COVID-19ak sortutako krisi egoera gehitu behar izan zaio. Izan ere, gogor kolpatu du krisiak gazte kolektiboa eta etxebizitza arloari dagokionez, zein nolako egoeratan aurkitzen ziren eta honen aurrean zein aukerak dituzten aztertu beharra zegoen. Horregatik, zenbait galdera gehitu zitzaizkion aurreikusitakoari. Hauek

Emantzipa...zer? lantaldean kontrastatu ziren eta bertan landu eta jasotako ekarpenekin [behin betiko galdetegia](#) izatea lortu zen.

Zabalpenari hasiera, maiatzak 26:

Behin galdetegia prest izanda, zabalpena egitea zen hurrengo urratsa. Maiatzaren 26an egin zen publiko galdetegia eta ahalik eta gazte gehiengoarengana heltzeko bide desberdinak erabili ziren: EGKren webgunean [albistea](#), prentsa-oharra, elkarteei helbide elektronikoa, sare sozialak eta whatsapp mezuen bidez.

Galdetegia betetzeko epea ekainaren 14ra arte izan zen. 500 erantzun baino gehiago jaso ziren.

Galdetegiaren erantzunak lantzen:



Jasotako erantzunak lantzea izan zen hurrengo urratsa. Honela izanik, galderen erantzunak txosten formatu baten jaso ziren *Gazteen etxebizitza egoera ezagutzen* izenburua eman zaion txostena osatuz.

Txostenaren ibilbidea:

Txostenean jasotzen diren erantzunak administrazioari aurkeztea izan da hurrengo urratsa. Horretarako, lehen bilera gauzatu zen Gazteria Zuzendaria den Agurtzane Llanorekin. Bestek beste, txosten hau aurkezteko asmoz.

Ebaluazioa

- Galdetegiaren planteatutako galderen edukiaren aberastasuna eta praktikotasuna oso positiboki balioetsi da.

- Jasota erantzunak kualitatiboki eta kuantitatiboki oso aberatsak izan dira. Kuantitatiboki 500 erantzun baino gehiago lortzea positiboki balioztatu da. Handiagoa da aldiz, kualitatiboki jasotako erantzunen balioa.
- Administrazioekin izandako bilerak izaten ari duten garapena positibo balioesten da. Garrantzitsua ulertzen da bide honetatik jarraitzea eta administrazioari gazteen iritzia eta proposamenak helaraztea.

1.6 Harremanak eragileekin

Emantzipazio alorrean eragile askok eta anitzek dute zer esana. EGKrentzat funtsezkoa da eragile guzti hauekin harremanetan egotea. Alde batetik, gazteen kasuan, hauen beharrak lehen eskutik ezagutzeko gazte eragile, sindikatu, elkarte edota taldeekin harremanak egitea ezinbestekoa da. Bestetik, eragile edota administrazio publikoekin, gazteen iritzia transmititzeko eta erabaki publikoetan ahalik eta gehien eragiteko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren eta etxebizitza arloan lan egiten duten elkarten, instituzioen, administrazioen eta arduradunen artean harremana sortzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren lana sozializatzea eta ikusgai bihurtzea.
- Gazteriaren perspektiba bat ematea beste erakunde eta administrazio batzuen proiektuetan, EGK erreferente bihurtuz.
- EGK-ko proiektuetan gazte berrien partaidetza lortzea.
- EGK-ko elkarten artean etxebizitza lantzen dutenekin harremana sendotzea.

Garapena

Gasteizko Prekarioen Sarearen aurkezpena:

Gasteizko Gazte Prekarioen Sarearen (GPS) aurkezpena izan zen urtarrilak 18. Gazte eragile eta elkarteekin harremana indartzeko helburuarekin EGK bertan izan zen.

EH Bildu:

Urtarrilaren 22an, EH Bilduko etxebizitza arduraduna zen Maider Otamendi eta gazteria arduraduna zen Iraitx Otañorekin bilera izan zuen EGK-k. Gazte alderdi politikoekin harremana indartzearen nahiari erantzuten dio bilerak.

Etxebide:

Etxebide etxebizitzaren euskal zerbitzu publikoko prestazioak osatu eta babesten dituen sare publiko instituzionaleko pieza gakoa da. Martxoren 12an EGK-ko presidentea eta etxebizitza teknikaria Etxebidekoekin elkartu ziren Lakuan. Harremanak indartze aldera Etxebideren funtzio eta organigrama eta EGKren jarduna azaltzeko baliatu zen bilera.

Kaleratzeak Stop-ekin harremana izan da konfinamenduan zehar:

Etxebizitza eskubidearen alde hipoteka ez ordaintzegatik etxe desjabetzeen aurka protesta egin eta horien inguruan lege-aldaketa eskatzen duen eragilea da Kaleratzeak Stop. Aurreko urtean egindako harremanen ondorioz, aurtan harremana mantendu da. Konfinamendu garaian batez ere, harremana izan da bakoitzak egiten zituen egitasmoen berri emateko.

Rebeldia:

Rebeldia herri baten etorkizuna eraikitzeko antolatzen den gazteen topagune eraldatzailea da. Bertako kideak **Emantzipa...zer?** lantaldeko kideak dira eta haiekin harreman iraunkor eta zuzena izan da urte osoan zehar.

LAB:

Etxebizitza alorrean lanketa duten eragile, elkarte eta sindikatuarekin harremana indartze aldera, EGK eta LAB sindikatuaren arteko bilera izan zen ekainaren 1ean.

EHUko arkitektura fakultatea:

Etxebizitza eta generoa gaia lantzeko Donostiako EHUko campuseko arkitektura fakultatera jo izan zen bertan gaia zelan jorratzen zuten ezagutzeko. Irakasle eta ikasle desberdinekin izan zen

hartu emana eta prestatze lanetan zegoen **Zutabeak Arrakalatzen: etxebizitza eta generoa** topaketara gonbidatu zitzaien. Baita ere ikasle talde feminista den FeministArkeko kideekin ere izan da harremana.

Oihane Ruiz Menendez:

Arkitektoa eta hirigilea da, Oihane Ruiz Menendez. Hirigintzan eta lurraldearen kudeaketan graduondokoa du, bai eta teoria feministan ere. Hala, arkitektura eta aktibismoa ildo berean jorratu ditu. Etxebizitza genero ikuspegitik aztertzeke erronkari erantzunez gaian adituak diren eragile eta pertsona desberdinekin jarri izan da harremanetan EGK. Oihane, **Zutabeak Arrakalatzen: etxebizitza eta generoa topaketan** hizlaria izan zen.

Kalea(n) Bizi:

Kalea(n) Bizi hirigintza elkarte da. Gaur egungo arkitekturaren eta hirigintzaren ikuspegi berria duen proiektua da alegia. Espazio komunean, barrualdean edo kanpoaldean, jartzen du arreta. Etxebizitza genero ikuspegitik aztertzeke erronkari erantzunez gaian adituak diren eragile eta pertsona desberdinekin jarri izan da harremanetan EGK. Kalea(n) Biziko Maria **Zutabeak Arrakalatzen: etxebizitza eta generoa** topaketan hizlaria izan zen.

Abaraska etxebizitza kooperatiboa:

Aurreko urteetan egindako harremana indartuz, Abaraska etxebizitza kolektibo eta kooperatiboko kideekin bilerak izan dira. Besteak beste, etxebizitza genero ikuspegitik aztertzeke erronkari erantzunez gaian adituak diren eragile eta pertsona desberdinekin jarri izan da harremanetan EGK. Abaraskako Laura izan zen **Zutabeak Arrakalatzen: etxebizitza eta generoa** topaketan hizlari gisa gonbidatua.

Alokabide:

Aurreko urtean sortutako harremanaz baliatu, urtean zehar Alokabiderekin harremana izan da. Batez ere, Gaztelagun gazte alokairu dirulaguntzen inguruko datuak bidaltzean oinarritu da harremana.

Bilboko Maizter Sindikatua:

Etxebizitza alorrean lanketa duten eragile, elkarte eta sindikatuekin sinergiak sortzeko bidean, Bilboko Maizter Sindikatuko jarduna ezagutzeko asmoarekin elkartu izan da EGK Maizter Sindikatuarekin. Bilera azaroaren 19an izan zen.

Ebaluazioa

- Eragile, administrazio eta elkarte desberdinekin izandako bilerak gazteriaren datuak aztertzeko, partekatzeko eta kontrastatzeko bideak zabaldu ditu. Hauen bidez, alde batetik, EGKren lana zabaltzea lortu da eta, bestetik, elkarte, sindikatu, elkarte edota mugimenduen lana EGKra hurbildu da.
- Etxebizitza lan arlo propioa den bigarren urtea izan denez, harreman desberdinak egitea eta aurretiaz izandakoak mantentzea izan da erronketako bat. Bide horretan oinarri hori eratzeko urratsak egin direla balioesten da. Egindako harremanak mantentzeaz gain elkarte, erakunde eta administrazio desberdinekin sortu baitira harremanak.
- Administrazioekin egindako bilerak emankorrak izan dira eta harremana mantentzeko oso baliagarriak direla uste da.

1.7 Eguneroko lana

EGKn lan-arlo bakoitzetik kanpo egin beharreko lanak biltzen dira etxebizitza lan-arloaren egunerokoan, EGKren funtzionamendu egokia bermatzeko eta honen helburu orokorrak lortzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren funtzionamendua bermatzea beste lan eremuekin elkarlan egiten eta urtean zehar heltzen diren eskaera generikoei erantzuna emanez.

HELBURU ZEHATZAK:

- Etxebizitza eta gazteriaren gaineiko datu eguneratuak izatea.
- Lantaldearen formazioan parte-hartzea.
- Beste lan-arloen lanaren kontrastea egitea.
- Batzorde Iraunkorrekarekin eta lankideekin harremana/lankidetzatza izatea.

- Memoria eta Plangintza kudeatzea eta ebaluatzea.
- Egoitzetako kudeaketa lanak egitea.

Garapena

Donostiako Plangintza Aholku Batzordea:

Donostiako Udal Plangintzarako Aholku Batzorde Iraunkorrak urtarilaren 8an egindako bileran izan zen EGK. Bertan, indarrean zeuden Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Hirigintza Arauen aldaketa landu zen.

Adimen enpresa:

Urtarrilaren 17an Gasteizko Udalarekin elkarlanean ari zen Adimen enpresarekin elkarriketa bat izan zuen EGK-ko etxebizitza teknikariak. Gazteen etxebizitza beharren aurrean, elkarbizitza eredu desberdinen inguruko azterketa burutzen ari ziren biak elkarlanean. Hori dela-eta gazteen egoeraren inguruko zenbait datu ezagutzeko asmoarekin egin zen elkarriketa.

COVID-19aren aurrean EGKren erantzuna:

EGK-k aholkularitza zerbitzua eskaintzeko asmoz, infografia bat zabaldu zuen. Bertan lan-arloka zein nolako aholkularitza eman zitekeen azaltzen zen.



Ejren alokairu dirulaguntzen kontrastea:

Apirilean etxebizitza librean alokairua ordaintzeko dirulaguntzen ezohiko programa landu zuen Eusko Jaurlaritzak. COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz sortutako zaurgarritasun ekonomiko eta sozialeko egoerei aurre egiteko dirulaguntza hauek Euskadiko etxebizitza arloko eragile desberdinekin kontrastatu zen. EGKn kontraste lan hau egiteko **Emantzipa...zer?** lantaldea bildu zen.

Suspertzea eta lankidetza publiko pribatua etxebizitzan:

Maiatzaren 11n, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak COVID-19ak eragindako egoeraren aurrean, epe labur, ertain eta luzean eragina izango zuten konponbideak elkarlanean identifikatzeko galdetegi bat igorri zien Euskadiko etxebizitza-arloko eragile garrantzitsuen ikuspegia eta ekarpenak jasotzeko. EGK-k galdetegia bete eta helarazi zuen.

Honekin bat, suspertzea eta lankidetza publiko pribatuaren lan ildoan jarraituz, galdetegiaren ondoren, lantegi desberdinak antolatu ziren. Honako hauetan hartu zuen parte EGK-k:

- Ekainaren 11n izandako *Prospektiba. Etorkizuneko etxebizitza. Behar berriak eta etxebizitza-ereduak* lantegian.
- Ekainaren 15ean izandako *Alokairuko etxebizitzaren parkea prezio eskuragarrietan handitzeko finantzaketa-formula berritzaileak* lantegian.

Lantegietan landutako etxebizitzaren esparruko Arlo Ekonomikoa eta Soziala Suspertzeko Plan batean islatuko zirela eta 2021-2023 Etxebizitza Gida Plan berria diseinatzeko ibilbide-orri bat izango zirela adierazi zen.

UEUko ikastaroa: Erabilera lagapeneko Etxebizitza Kooperatiben eredua: aukerak eta esperientziak:

Abuztuaren 31n, Iruñean UEUK [erabilera lagapeneko etxebizitza kooperatiben](#) inguruko antolatutako ikastaroan parte hartu zuen EGK-k. Ikastaroaren helburuak, etxebizitza kooperatiben artean erabilera lagapeneko eredua eta zehazki, elkarbizitza komunitarioa sustatzen duten kooperatiben inguruko ertzak eta ezaugarriak azaltzea eta hausnartzea zen.

Partaidetza feministaren inguruko ikastaroa:

Irailaren 23an lantalde teknikoak partaidetza feministaren inguruko ikastaroa izan zuen. Partaidetza eredu eta moduez eta aurrera begira berdintasunerako partaidetza lortzeko eman daitezkeen urratsaz hausnartzeko baliatu zuen lantaldeak ikastaroa.

Ebaluazioa

- Egoitzetako kudeaketa egokia izan dela iristen da.
- Lantaldearen koordinazioa ere egokia izan da. Gainera formakuntza atalari dagokionez, partaidetza feministaren inguruko hausnarketak partaidetza inklusiboagoa egiteko tresnak ahalbidetu ditu eta hori oso positiboki balioesten da.
- Etxebizitzaren inguruko espazioetan parte-hartzen jarraitzea ezinbestekoa da eta aurrera begira ere, bide horretan jarraitzeko erronkari eutsi nahi zaio.

2. ENPLEGUA

2.1 Gazteak eta emantzipazioa

Emantzipa...Zer? lantaldean landutako gaiak eta burututako bileren informazioa etxebizitza arloaren **1.1. atalean** agertzen badira ere, lantaldea bi arloen artean burutzen da. 1.1 atalean azaldutako zereginaz gain espezifikoki enplegu arlokoak diren horiek azalduko dira.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteriaren perspektiba batetik honi loturiko enplegu ekimenak eta neurriak aztertzea, administrazioari hausnartutako ondorioak helarazi ahal izateko eta, horrela, politika publikoetan eragitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteak eta gazte-elkarteak enplegu arloaren gainean batuko dituen eztabaidagune bat ezartzea.
- Gazteria eskubide osoko subjektu bezala aintzakotzat hartzea, defendatzea eta alternatiba eta hobekuntza-proposamenak sortzea.
- Eztabaidagunean sortutako ekimenei jarraipena ematea eta horren funtzionamendua kudeatzea eta bultzatzea gazte berrien parte-hartzea lortuz.

Garapena

Emantzipa...Zer? lantaldean landutako gaiak eta burututako bileren informazioa etxebizitza arloaren **1.1. atalean** agertzen badira ere, lantaldea bi arloen artean burutzen da. Honetan azaldutako zereginaz gain espezifikoki enplegu arlokoak diren horiek azalduko dira.

Zein bileretan

COVID-19ari aurre egiten:

Martxoaren 30ean egindako bileran enplegu gaiari dagokionez, konfinamenduarekin bat hainbat neurri eta egoera berri etorri zirela komentatu zen. Lanaldien murriztapena, telelana, ERTeak, lanera joan behar izatea funtsezkoa izateagatik, kaleratzeak, autonomoentzako laguntza ekonomiko ezberdinak, kutsatua edo isolamenduan egoterakoan dauden eskubideak... Administrazioetatik laguntza eta egoera ezberdinak iragarri zituzten. Hau egiterakoan zalantza asko erantzun gabe geratu ziren; laguntza ekonomikoak zein ERTeak noiz jasoko ziren jakin gabe edo hauek jasotzeko jarraitu beharreko pausuak zeintzuk ziren oso argi izan gabe. Zalantza asko eta ondorioz ezinegon asko zegoela ondorioztatu zen.



Apirilaren 16an eginiko **Emantzipa...Zer?** bileran alarma egoerak enpleguan izandako eragina aztertu zen eta honen aurrean gazteak zituzten zalantza ezberdinak argitzeko nahian, **Emantzipa...Zer?** lantaldean parte-hartzen duten

sindikatuarekin batera eta LABeko BIZILAN-ekin harremanetan aipatutako infografiak landu ziren zalantza hauek eta sortu ahal ziren guztiak argitzeko, eskubideen inguruko informazio faltak ere prekaritatea areagotzen duelako.

Aurrera begirakoak antolatzeko:



COVID-19ak plangintzaren planteamendua aldatu zuen, eta horretara moldatzeko eta lanean jarraitzeko lantaldea batu zen maiatzean. Oraingoan, hiru ziren zereginak: gazteen egoera modu zuzenean ezagutzeko galdetegiaren kontrastea burutzea, [#IkaslePisuakZer](#) kanpainaren jarraipena egitea eta

ikasleen lan-praktikekin gertatuko denaren inguruan hausnartzea.

Bileraren berri emateko, sare sozialak, mezu elektronikoak eta [albisteak](#) egin zen.

Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (RGI) eta Bizitzeko Gutxieneko Diru-Sarrera:
Ekaineko bilera, bakea eta bizikidetza lan-arloaren lantaldearekin batera egin zen. Honetan **Emantzipa....zer?** eta Bake lantaldeek Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (RGI bezala ezaguna) eta Espainiako gobernuak sortutako Bizitzeko Gutxieneko Diru-Sarrera landu zuten hauek gazteen bizikidetzan duen eragin zuzena aztertzeko eta baita enplegu eta etxebizitza arloetan izan dezakeen eragina aztertzeko, [sare sozialen](#) bitartez eman zen bideo bilera honen berri.

Lan Egokiaren kanpainaren jarraipena eta etxebizitza eta generoaren inguruko lanketa:



Urriaren 20an, bideo bilera baten bidez elkartu zen lantaldea. Bertan [#LanEgokia kanpainaren](#) balorazioa eta aurrera begira jasotako aldarrikapenei jarraipena emateko bideak landu ziren.

Baita ere, lan istripuen harira aktibatzen den protokoloaren irudia berrikusi zen honen diseinu berri bat sortzeko. Etxebizitza gaiari dagokionez, etxebizitza eta generoaren inguruko lanketatxoa egin zen, **Zutabeak Arrakalatzen: etxebizitza eta generoa** mahai inguruaren prestaketez baliatuz. Bilera data zehazteko lantalde kideekin data adostu ondoren sare sozialetan iragarri zen gazte berriak lortzeko helburuarekin.

Ebaluazioa

- Lantaldearen parte-hartzeari dagokionez, bilerak gaika jorratzearen aukerak parte-hartzaileen interesetara egokiago moldatzea eman du eta berau, positiboki balioetsi da. Honekin bat, gazte kolektibo zein gazte desberdinetan ezagutzera emateko erronka positiboki balioetsi izan da, halere, aurrera begira, bidean jarraitu behar da.

- Bileretako hausnarketen sakontasuna, kideen jarrera aktiboa eta bileren maiztasun handiagoa lantaldearen funtzionamenduaren hobekuntzaren seinale argiak dira. Guzti hauek modu positiboan balioetsiz, bide horretan lanean jarraitu behar da.

2.2 Lan istripuen protokoloa

Urteak dira EGK-k gazte bati eragiten dion lan istripu bat publikoki salatzeke posizionamendu publikoa duela. Lan istripua Euskadin ematen den edo Euskadiko gazte bati —16 eta 30 urte bitartekoa— eragiten dion kasuetan aktibatzen da, langilea larriki zauritzen edo zentzen denean. Honen bitartez, istripuaren errudun den prekarizazioa salatzeke adierazpen publikoa egiten da.

Gertakariaren berri izatean enplegu teknikaria, komunikazio teknikaria eta Batzorde Iraunkorrarekin koordinatzen da.

Aurten, prekarizazioa salatzeke egiten den adierazpen publikoan erabilitako irudiaren diseinua gaurkotu egin da ere, garrantzia lan istripuetan jarritz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Maiztasunez gertatzen diren, eta gazteei bereziki jotzen dieten gertaerak eta haien arrazoiak publikoki salatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazte langileen lan istripuen ondorioz zauri larrien edo heriotzen errudun diren prekarizazio eta beste lan baldintzak salatzea.
- Lan istripuen datuak jasotzen dituzten erakunde ezberdinekin harremanetan jartzea gazte batek lan istripu bat izan duenean EGKri jakinarazteko.
- Arazoaren aurrean EGKren errefus postura argia gizarteratzea.

Garapena

Lan istripuen protokoloa:

Laneko istripu baten ondorioz gazte baten istripuarekin edo heriotzarekin aktibatzen den protokoloa da hau. Protokolo hau azken urteetan garatutako enplegu arloko diskurtsoari egokitu zaio eta martxan jartzen duten egoerak gehitu dira, hala nola, heriotza bat sortzen duten istripuez gain, zauri larriak sortzen dituzten lan istripuak gehituz.

Urte honetan zehar, protokoloari jarraipena egin zaio, 6 aldiz martxan jarri da, 7 gazteen heriotzagatik.

- 2020ko urtarrilaren 9an gazte baten heriotza: <https://egk.eus/eu/lanera-zihoan-gaztearen-heriotza-salatu/>
- 2020ko otsailaren 25ean gazte baten heriotza: <https://egk.eus/eu/murgan-lanpostuan-zendu-gazte-heriotza-salatu/>
- 2020ko martxoaren 9an bi gazteen heriotza: <https://egk.eus/eu/azkoitian-lanpostuan-hildako-bi-gazteen-heriotza/>
- 2020ko maiatzaren 21ean gazte baten heriotza: <https://egk.eus/eu/beasainen-lanean-gaztearen-heriotza/>
- 2020ko ekainaren 22an gazte baten heriotza: <https://egk.eus/eu/ozeano-barean-lanean-istripua/>
- 2020ko irailaren 7an gazte baten heriotza: <https://egk.eus/eu/trapagaranen-lanean-gaztearen-heriotza-salatu/>

Ebaluazioa

Protokoloa sei aldiz aktibatu da, denetan istripu larriaren ondorioz emandako heriotzengatik, horietako kasu batean bi gazteen heriotzagatik, guztira zazpi heriotza izan direlarik. Protokoloa martxan jarri zenetik, gazteek pairatutako lan istripuak eta heriotzak kontuan hartzen badira 2020koa izan da zifrarik altuena, aktibatzeko kopuruari dagokionez, baita heriotza kopuruari erreparatuz gero ere.

Zoritxarrez, oraindik, protokoloa martxan jartzeko beharrezkoak diren datuak oso eskasak dira, eta normalean prentsan agertzen direnean egiten da.

Ezbeharren tasa ez da gelditu COVID-19agatik ekonomia gelditu den arren. Aldiz, kasuak gora egin dute.

2.3 Data esanguratsuen egutegia

Enpleguaren inguruko erreibindikazioei lotutako nazioarteko egunak baliatzen ditu EGK-k bere mezua zabaltzeko. 2020. urtean egutegi hori osatzen jarraitu da data esanguratsuetan dagokion manifestua eta komunikazio kanpainak eginez.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Urtean zehar enpleguarekin zerikusia duten data garrantzitsuak markatzea eta egun horietan manifestu edo diskurtsoa plazaratzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Data esanguratsuen garrantzia azpimarratzea eta gaur egungo egoerarekin lotzea.
- Gazteriak egun horiek ezagutzea.
- EGKn partaidetza bultzatzeko tresna bezala erabiltzea.
- EGKn parte hartzen duten elkarteak data hauetan publikatutako manifestuen lanketarekin inplikatzeko eta hauen atxikimenduak lortzea.

Garapena





Beste urteetan egin bezala, EGK-k hainbat adierazpen egin ditu enplegu arlotik, enplegu eta etxebizitza lan arlotik gidatutako **Emantzipa...Zer?** lantaldearen, Lantalde Teknikoaren eta Batzorde Iraunkorraren laguntzarekin.

Hauek dira 2020an zehar egindako adierazpenak:

- Emakume eta gizonen artean —are gehiago, oraindik, gazteen kasuan— oraindik ematen den soldata arrakala salatzeko adierazpena [otsailaren 22an](#), Soldata Berdintasunaren Europako Egunaren harira.
- Gazteen osasunaren aldeko eta prekaritatearen aurkako manifestua [apirilaren 28an](#), Lan Osasunaren Nazioarteko Egunean.
- Langileen baldintza txarren aurkako kanpaina sareetan [maiatzaren 1ean](#), Langileriaren Nazioarteko Egunean.

Gazteei eskaintzen zaizkien lan baldintza kaskarrak salatzeko eta aukera egokiak aldarrikatzeko adierazpena [urriaren 7an](#), Lan Egokiaren Nazioarteko Egunaren harira. Honekin batera, [#LanEgokia kanpaina](#) egin zen sare sozialetan, gazteek lanpostu bati duina izateko zer eskatzen dieten euren aldarrikapenak jasotzeko.

Ebaluazioa

- Egindako adierazpenen eskutik, EGK-k bere posizionamendua gizarteratu eta, berezko duen zubi-lan funtzioa betez, gazteen egoera mahai gainean jarri eta hobekuntza proposamenak egin ditu.

2.4 Formakuntza Duala ezagutzen

2018. urtean hasi zen EGK Formakuntza Dualaren nondik norakoak aztertzen. Proiektuari hasiera eman zitzaion bi Hirubururekin lehenengoa, Gasteizen eta bigarrena, Donostian. Honi jarraipena emanaz eta Lanbide Heziketako Formakuntza Dualeko egoeran zentratuz, Gipuzkoako eskola ezberdinetan hainbat eztabaida talde sortu ziren. Formakuntza Duala unibertsitatean izaten ari den ezarpena ere ezagutu nahi izan da 2020an. Honekin batera, plangintzan planteatuta ez bazegoen ere, COVID-19ak Formakuntza Dualean izandako eragina ere aztertu da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Formakuntza Duala sustatzea eta beronen bilakaera aztertzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Formakuntza Dualak gazteen bizitza proiektuetan duen eragina aztertzea.
- Formakuntza Duala burutu duten eta burutzen ari diren gazteen esperientziak biltzea.
- Formakuntza Dualean koordinatzaile moduan diharduten profesional ezberdinen ikuspuntuak kontuan hartzea.
- Formakuntza honen indargune eta ahulguneak identifikatzea.
- COVID-19ak Formakuntza Dualean izan duen eragina aztertzea.
- Administrazioei formakuntza hau hobetzeko proposamenak egitea.

Garapena

Bilerak eta eztabaida taldeak:

Formakuntza Duala bere osotasunean aztertzen jarraitzeko, hainbat bilera egin eta eztabaida talde sortu dira. Hauek Lanbide Heziketa zein Unibertsitateko ikasle, irakasle eta koordinatzaileekin, eta baita ere, Gipuzkoako Ikaslan-eko koordinatzailearekin egin dira. Bilera

eta eztabaida talde hauek online egin dira aurtengo egoera dela-eta segurtasun neurri guztiak betetze aldera.

Bilera eta eztabaida talde hauen abiapuntua Formakuntza Dualaren errealitatea aztertzea izan da, aipatutako eragile ezberdinen ikuspuntuak kontuan hartuz, egoera bere osotasunean ezagutzeko. Honetarako Formakuntza-zentroaren zein praktika-gunearen inguruko errealitatea kontuan hartu da, bizitako esperientzia ezberdinak, baita Formakuntza Dualaren indarguneak, ahulguneak eta ekarpenak ere. Generoa, aniztasuna eta COVID-19a eta azken honen ondorioak ere landu dira hauetan.

Informazioa jasotzeaz gain, bilera eta eztabaida taldeetan ikasleek haien ideiak eta ikuspuntuak transmititzeko aukera ere izan dute, baita haien artean esperientzia ezberdinak partekatzeko aukera ere. Aberasgarria izan da haientzat ere, izan ere hauen ostean haien artean horrelako bilera gehiago egiteko eta gehiago elkartzeko aukera planteatu baita.

Harremanak:

Funtsezkoak izan dira, aurretik izandako Gipuzkoa mailako Formakuntza Duala burutzen duten zentroetako arduradunekin egindako kontaktuak eta harremanak. Oso baliagarria izan da, beste batzuen artean, Gipuzkoako Ikaslan-eko koordinatzailearekin elkartzea ere.

Garrantzitsua eta baliagarria izan da beste eragile ezberdinekin izandako harremana ere. Ikasketa zentro gehiagorekin elkartzeko saiakera egin bada ere, aurtengo egoera honek zaildu egin du prozedura eta kasu batzuetan ez da posiblea izan.

Paneltxoak:

Burututako bilera eta eztabaida talde ezberdinetan jasotako informazioaz gain, aurretik publikatutako bi txostenetan jasotako datuak kontuan izanda panel batzuen bilduma sortu da, informazioa modu labur eta argian sailkatuz.

Ebaluazioa

- Profil ezberdinetako erantzunak jasotzea oso aberatsa izan da Formakuntza Dualaren inguruko azterlan eta ikuspuntu zabalago bat izateko.

- Bilerak edo eztabaida taldeak aurrera eramatea zailagoa izan da COVID-19aren ondorioz.
- Aurrera eraman diren eztabaida taldeak, oso aberasgarriak izan dira bai informazio eta datu ezberdinak jaso ahal izateko eta baita ikasleek haien artean esperientzia ezberdinak partekatzeko ere.
- Ezberdintasun handiak aurkitu dira emakumezkoen eta gizonezkoen artean, batez ere hauek aukeratutako ikasketei dagokionez.
- Aniztasun funtzionala duten zein jatorri ezberdinetako pertsonak faltan bota dira.

2.5 Herrietako gazteak zer?

EAEko gazteriaren egoera dela-eta, burutzen diren azterketa zein proiektu gehienak hiriburuetako biztanlerian zentratzen dira, landa eremua eta herri zein udalerri txikiagoak bigarren maila batean utziz.

Egoera hau izanda, EGK landa eremuetan eta herri zein udalerri txiki hauetan bizi diren gazteen errealitatera hurbildu nahi izan da. Gazte hauen ahotsak entzutea eta haien ikuspegia ezagutzea ezinbestekoa delako EAE osoko gazteen errealitatea ezagutzeko. Horretarako, 2011. urtean EGK-k sorturiko *Tailerretik landara: gazteria nekazaritzan etorkizun bila* proiektua kontuan hartu da. Zeinetan landa eremuan nekazari eta abeltzain diren gazteen egoera aztertzeke, hauek aurkitzen dituzten oztopo zein aukerak kontuan hartu zen.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Herri txikietan eta landa eremuetan bizi diren gazteen errealitatea aztertzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EAEko landa eremuetan bizi diren gazteen iritzia erdigunean jartzea, hauei ikusgarritasuna ematea eta administrazioek plazaratutako datuekin alderatzea.

- Gazteak landa eremuetan dituzten lan aukerak aztertzea.
- Genero-perspektiba batetik emakume eta gizonezkoen artean ematen diren ezberdintasunak antzematea.
- Landa eremuetako gazteen indargune eta ahulguneak identifikatzea, hauek administrazioei helarazteko.

Garapena

2011n egindako lanaren oinarrien jarraiki, *Familia Nekazaritzako Euskadiko Batzordean* (CRAF) parte hartu zuen EGK-k martxoan burututako bileran, harremana sortu aldera eta honen parte izateko. Batez ere, gazteek, familiako nekazaritzan eta landa eremuan duten garrantzia lantzeko.

Alabaina, herrietan eta landa eremuetan bizi diren gazte guztiak ez dute arlo hauetan lan egiten, aldiz, lan munduaren arlo guztietan parte hartzen dute, beraz hauek landa eremuetan aurkitzen dituzten oztopoak eta aukerak aztertzea ere egokia ikusten da, benetan gazte guztien egoera aztertzeko.

Honelako proiektu batekin aurrera egiteko lehenik honen inguruko EGKren diskurtsoa sortzeko beharra dago. Beraz, aurten, hori sortzen hasteko informazioa eta datuak batu eta aztertu dira eta landa eremuko gazteriaren eta enpleguaren gaineko politika publikoak, planak eta proiektuak identifikatu dira besteak beste. Betiere genero perspektiba kontuan hartuz.

Ebaluazioa

- Proiektu hau ez da hasiera batean planteatuta zegoen bezala aurrera eramán. COVID-19aren ondorioz bizi den egoera dela-eta lana moldatu behar izan da eta aurreikusita ez zeuden gaiak landu behar izan dira, beraz, denbora beste modu batean kudeatu da.
- Proiektuari jarraipena emango zaio etorkizunean, 2020a gaiaren lanketari hasiera emateko eta honen inguruko EGKren diskurtsoa sortzeko baliagarria izan da. Hurrengo urteetan honekin aurrera egiteko.

2.6 Substantziarik gabeko adikzioen inguruko topaketa

Proiektu hau hezkuntza lan-arloko teknikariarekin elkarlanean partekatuta eraman da aurrera. Memoriako **3.1.8. atalean** azalduta dago sakonago.

2.7 Harremanak eragileekin

Enpleguaren alorrean eragile askok dute zer esana. EGKrentzat funtsezkoa da eragile ezberdin hauekin harremanetan egotea, alde batetik, gazteen kasuan, hauen beharrak lehen eskutik ezagutzeko eta mahaiaren gainean jartzeko. Beste aldetik, eragile publikoekin, gazteen iritziak hauei transmititzeko eta erabaki publikoetan ahalik eta gehien eragiteko zubi lana eginez.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren eta enpleguko arloan lan egiten duten elkarteen, instituzioen, administrazioen eta arduradunen artean harremana sortzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren lana sozializatzea eta ikusgai bihurtzea.
- Gazteriaren perspektiba bat ematea beste erakunde eta administrazio batzuen proiektuetan, EGK erreferente bihurtuz.
- EGK-ko elkarteen artean enplegua lantzen dutenekin harremana sendotzea.
- EGK-ko proiektuetan gazte berrien parte hartzea lortzea.
- Eskatzen duten elkarteei eta gazteei informazioa eta formakuntza eman eta elkarteei formakuntza eskaintzea enplegu arloan.

Garapena

CCOO Sindikatua-Gazteak: EGK-ko elkarte da, ordezkari batek enplegu eta etxebizitzaren **Emantzipa..Zer?** lantaldean parte hartzen du. Urtean zehar harremana mantendu da proiektu eta ekintza desberdinen inguruko informazioa partekatzeko. Bestetik, otsailak 22ko [Emakume eta gizonen arteko soldata berdintasunaren aldeko nazioarteko egunean](#) publikatutako manifestura apirilak 28ko [Lan Osasunaren nazioarteko egunean](#) publikatutako manifestura eta urriak 7ko [Lan Egokiaren Nazioarteko egunean](#) publikatutako manifestura atxiki ziren.

EKO-ACG Acción Católica General Bizkaia: EGK-ko elkarte da, eta **Emantzipa..Zer?** lantaldean parte hartzen du. Bestetik, otsailak 22ko [Emakume eta gizonen arteko soldata berdintasunaren aldeko nazioarteko egunean](#) publikatutako manifestura apirilak 28ko [Lan Osasunaren nazioarteko egunean](#) publikatutako manifestura eta urriak 7ko [Lan Egokiaren Nazioarteko egunean](#) publikatutako manifestura atxiki ziren.

LSB-USO: **Emantzipa..Zer?** lantaldearen parte da. Urtean zehar harremana mantendu da proiektu eta ekintza desberdinen inguruko informazioa partekatzeko. Bestalde, otsailak 22ko [Emakume eta gizonen arteko soldata berdintasunaren aldeko nazioarteko egunean](#) publikatutako manifestura apirilak 28ko [Lan Osasunaren nazioarteko egunean](#) publikatutako manifestura eta urriak 7ko [Lan Egokiaren Nazioarteko egunean](#) publikatutako manifestura atxiki ziren.

Euzko Gaztedi-EGI: **Emantzipa..Zer?** lantaldean daude, urtean zehar proiektu ezberdinak direla eta harremana mantendu da haiekin eta hauek ere otsailak 22ko [Emakume eta gizonen arteko soldata berdintasunaren aldeko nazioarteko egunean](#) publikatutako manifestura apirilak 28ko [Lan Osasunaren nazioarteko egunean](#) publikatutako manifestura eta urriak 7ko [Lan Egokiaren Nazioarteko egunean](#) publikatutako manifestura atxiki ziren.

Gazte Abertzaleak elkarte: EGKren parte dira eta otsailak 22ko [Emakume eta gizonen arteko soldata berdintasunaren aldeko nazioarteko egunean](#) publikatutako manifestura, apirilak 28ko

[Lan Osasunaren nazioarteko egunean](#) publikatutako manifestura eta urriak 7ko [Lan Egokiaren Nazioarteko egunean](#) publikatutako manifestura atxiki ziren.

Rebeldía: Harremana sortu da haiekin. **Emantzipa..Zer?** lantaldearen parte dira eta elkarlanean egon da EGKrekin hainbat proiektu ezberdin burutzeko. Otsailak 22ko [Emakume eta gizonen arteko soldata berdintasunaren aldeko nazioarteko egunean](#) publikatutako manifestura apirilak 28ko [Lan Osasunaren nazioarteko egunean](#) publikatutako manifestura eta urriak 7ko [Lan Egokiaren Nazioarteko egunean](#) publikatutako manifestura atxiki ziren.

Kale Dor Kayiko: Harremana mantentzen da EGKren parte den elkarlanean, **Emantzipa..Zer?** lantaldearen parte direlarik eta apirilak 28ko [Lan Osasunaren nazioarteko egunean](#) publikatutako manifestura atxiki ziren.

Eragin: Bilboko Gazte Prekarizatuen Asanblada den Eraginekin harremana sortzeko pausuak eman dira. Hainbat datu partekatu dira haiekin.

GPS: Gasteizko gazte prekarioen sarearen aurkezpenean egon zen EGK urtarrilaren 18an. Haiekin harremana sortzeko pausuak ematen.

Ikaslan: Ikaslan-ekin harremana sortu du EGK-k Formakuntza Dualaren inguruan, oso informazio baliagarria trukatu delarik 2020an.

Gurutze Gorria Gazteak: EGKren parte dira eta urriak 7ko [Lan Egokiaren Nazioarteko egunean](#) publikatutako manifestura atxiki ziren.

Bilboko Langile Pastoraliza: Harremana sortu da haiekin eta urriak 7ko [Lan Egokiaren Nazioarteko egunean](#) publikatutako manifestura atxiki ziren.

Ernai: Harremana mantendu da haiekin, batez ere gazteen enpleguko errealitatearen inguruko datuak partekatzeko.

Ebaluazioa

- Gazteriaren datuak aztertzeko eta partekatzeko modu bat da.
- EGKren parte diren elkarteekin izandako bilerak oso aberasgarriak izan dira eta etorkizunerako errekursoak lortu dira. Guztietan hartu eman bat egon da, hau da, alde batetik, EGKren lana azaldu egin zaie eta, bestetik, haien lana EGKra hurbildu dute. Gainera, errealitate desberdinak ezagutzeko balio izan dute.
- EGK-k urte hauetan jasotako informazioarekin beste erakunde batzuei aholkularitza eman ahal izan die eta zenbait jarraipen prozesuetan EGKren iritzia islatuta gelditu izan da.
- Egindako bilerak emankorrak izan dira eta harremana mantentzeko oso baliagarri bezala balioesten dira.
- Planteatuta zeuden baino bilera gutxiago egin dira, COVID-19aren ondorioz, eta hauek formatua aldatu behar izan da.

2.8 Eguneroko lana

Egunerokoan lan-arlotik kanpo egin beharreko lanak ere biltzen dira, EGKren funtzionamendu egokia bermatu aldera eta honen helburu orokorrak lortzeko. Bilerak, egoitzaren kudeaketarako lanak, aholkularitza, proiektuen planifikazioa eta justifikazioa besteak beste.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren funtzionamendua bermatu beste lan-arloekin elkarlanean eta urtean zehar heltzen diren eskaera generikoei erantzuna emanez.

HELBURU ZEHATZAK:

- Egoitzetako kudeaketa lanak egitea.
- Hedabideekin lan egitea hauek eskatzen dutenean.
- Gazteria Planak eta beste gazteria dokumentuen jarraipena egitea.
- Beste lan-arloen lanaren kontrastea egitea.
- Lantaldearen formazioan parte hartu.
- Lan-arloarekin zerikusia duten aholkularitzak egitea.
- Batzorde Iraunkorrarekin eta lankideekin harremana/lankidetza izan eta sustatzea.
- Memorien eta Plangintzen kudeaketa eta ebaluazioa.
- EGKren funtzionamendurako beharrezkoak diren bileretan parte-hartzea.

Garapena

Hedabideak:

Prentsa, irrati edota komunikabide ezberdinak gazteen enpleguari eta prekarizazioari buruzko EGKren iritzia jasotzeko harremanetan jarri direnean gai hauen inguruko elkarrizketak informazioa prestatu da.

Txostenak aztertu:

Beste zeregin bat, gazteen eta enplegu eta emantzipazioaren inguruko datuak jasotzen dituzten txostenak aztertzea izan da. Enpleguaren, merkatuaren eta emantzipazioaren datuak aldakorrak dira eta honen gaineko informazioa eguneratua edukitzea garrantzitsua da.

Beste lan-arloekin lankidetza:

EGK-ko eguneroko lana aurrera eramateko ezinbestekoa da talde osoko eta beraz arlo ezberdinetako arduradunen lana. Modu zuzenean edo zeharkako moduan lan-arlo propioan zein beste arloetan gauzatzen diren ekimenen berri izatea ere. Talde teknikoaren koordinazioa jarraia da, lan-arloen artean proposamenei baliagarriak diren balorazioak emanez, ekintzetan parte hartu eta elkarlanean arituz.

Jarraipen bilerak:

Jarraipen bilerak lantalde teknikoak burutzen ditu astero Skypen bidez, baita fisikoki EGK-ko bulegoetan. Honetaz gain Batzorde Iraunkorrarekin ere egin dira bilerak. 2020ko egoera berezia dela-eta, presentzialki egitea planteatuta zeuden hainbat bilera online burutu behar izan dira.

Plangintza:

Urteko plangintza urte hasieran prestatu da, urtero bezala.

Memoria:

Urteko memoriak urte amaieran prestatu dira, urtero bezala.

Egoitzako kudeaketa lanak:

Bulegoa eta materiala zaindu eta txukun mantendu, telefonoa artatu, bulegoko mantenuaz arduratu (informatika, argiketaria, su-itxalgailuaren mantenua, etab).

Ebaluazioa

- COVID-19aren ondorioz sortutako egoera berria dela eta lan egiteko modua moldatu behar izan da, baina ez da oztopo bat izan lana aurrera ateratzeko.
- EGK-ko enplegu diskurtsoa ondo oinarrituta dago eta aberastu da, administrazioek gero eta gehiago hartzen dute kontutan. Hedabideak EGKrengana jotzeak ere landutako diskurtsoak garrantzia duela adierazten du, aldi berean bere oihartzuna handitzea laguntzen dutelarik.

3. HEZKUNTZA

3.1 Hezkuntza ez-formala

3.1.1 Astialdi Foroen koordinazioa



Astialdi Foroa EAEko elkarte eta eragile ezberdinen arteko elkarlanerako gunea da. Lantalde honek, Euskadiko Astialdiaren garapena bultzatzea du helburu, elkarteen arteko koordinazio eta bitartekaritza, ekimenen oinarritzko aholkularitza, taldeen arteko hausnarketa, formazioa eta sensibilizazioa abiapuntutzat hartuta. Astialdiari lotutako elkartegintza indartu nahi da, baita balioen heziketa eta astialdiaren bitarteko gizarte eraldaketa bermatutako ekimenak bereziki sustatu ere.

Lana bideratzeko, EAEko hiru lurraldeetan banatzen da lan taldea, bakoitzean foro bana dagoelarik eta honek ahalbidetzen du tokian tokiko errealitatearen inguruan hausnartu eta lan egitea hain zuzen ere. Denei eragiten dieten arloetarako ordea, guztiak biltzen dira espazio berean.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Astialdi Foroko lantaldea koordinatzea, sendotzea eta Astialdiaren ikusgaitasuna aldarrikatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Esperientziak trukatzeko.

- Erakunde publikoekin bitartekaritza egitea.
- Astialdiaren garapenerako proiektuak eta eztabaidak koordinatzea eta garatzea.
- Astialdiko eragileen eta foroen arteko sarea indartzea.
- **Astialdi Foroei** dagozkion kudeaketa-zereginak aurrera eramatea (deialdiak, aktak...).
- **Astialdi Foroetako** kudeaketaren ebaluazio jarraitua burutzea hauen hobekuntza eta eraginkortasunean lan egitea.

Garapena

Urte honetako jarduna eta lana etengabe egon da mementoko errealitateak markatuta eta beraz horretara egokituta izan da. Astialdiko munduan ez da gutxiago izan eta errealitateak etengabe markatu ditu bai lanak, lehentasunak eta baita agenda zein denborak ere 2020 honetan. Urtarrila ohiko egoeran eta lanekin hasi zen arren, urtarrilean egindako urteko lehen Gipuzkoako **Astialdi Foroaren** bileraz geroztik (2020ko urtarrilak 14, asteartea hain zuzen ere) **Astialdi Foroaren** koordinazioak maila telematikoa hartu du bere forma urte honetan. Behar zein mementoko premiak asko aldatu dira abiadura handian eta hala ere EGKtik jarraipena egin da modu iraunkor batean, etengabeko premien erantzunak zein akonpainamendua erdigunean izanik eta horri bide emanez ahal izan den neurrian.

Aholkularitza

Urte berezi honetan, aldaketa asko izan dira astialdi taldeen jardunean eta maila horretan EGKren lana hauen egunerokotasunari erreparatuz, entzutea eta zalantza zein egoerei erantzutea izan da.

Konfinamendua hasi zenean, hain zuzen ere, aholkularitza erronda bat burutu zen eragile edo talde bakoitzaren zaintza bermatu eta entitateak zein osasun mailatan aurkitzen ziren (talde gisa eta funtzionamenduan hain zuzen ere) aztertzeko. Aholkularitza erronda horretan Gipuzkoa mailan antolatzen diren astialdiko taldeei nagusiki hiru kontu hauengatik galdetu zitzairen:

- Nolakoa zen haien mementoko egoera berria eta nola ari ziren aldaketa kudeatzen. Zein mailatan eragin ahal zien eguneroko funtzionamenduan pandemia egoerak.
- Nola zebiltzaten memento honetan funtzionatzen teknikoki (etxetik lanean zeuden edo ez, ikastaroak nola berrantolatu ziren...).
- Behar espezifikoren bat ikusten zuten egoera berriarekin parez pare.

Puntu hauek aintzat harturik, egoeraren argazki orokor bat egin ahal izan zen eta erronkak edo lehentasunak zeintzuk ziren identifikatzea ahalbidetu zuen.

Bilera telematikoak:

Jarduna mementoko egoerara egokituta, bilerak online formatuan egin behar izan dira aurten. Modu horretara ere funtzionamendua moldatu eta ahalik eta egokien sustatu da, elkarteen arteko informazio gune edo kanalak ahalbidetze eta errazte aldera.

Ekainean adibidez, udako ekintzak deskonfinamendu prozesuan nolakoak izango ziren komentatu, iritziak partekatu eta ekarpenak egiteko bilera berezitu bat izan zen. Propio egin zen ere, udako ekintzak arautzen zituen aginte dokumentuari astialdiko taldeen ikuspegitik ekarpenak egiteko.

Mementoko informazioen eguneratzea:

Elkarte eta talde desberdinei egunerokoan atera den dokumentazio, informazio edo aldaketen berri eman zaie etengabe, honek hauen lana erraztea ahalbidetu duelarik. Esaterako, espazioen mugapenak edota jende kopurua taldeka nola bildu daitekeen urte honetan zehar arautu izan duten jakinarazpen ofizialak bidali zaizkie taldeei.

Harremanak:

Urte honetan ere, EGK-ko hezkuntza ez formalaren ildotik bidea egiten joan den heinean, bereziki astialdi munduko elkarte eta eragileekin dagoen etengabeko hartu-emanagatik zenbait astialdi talderekin harremana sendotu eta indartu da.

Astialdi eskolen titulazioen eguneraketa aurrera eramateko prozesua:

2020-2021 ikasturte hasieran, lehen hiruhilekoan hain zuzen ere, INJUVE institututik eta Eusko Jaurlaritzarekin koordinazioan eta elkarlanean, eskolen titulazioak berriztuko eta eguneratuko dituen prozesu bat jarri da abian. Hain zuzen ere, aldaketak zein norabidetan eman behar diren eta zein puntutan ematen diren arautzen duen dokumentazio proposamen zehatz bati loturik ekarpenetarako tarte ireki zen. Geroztik, prozesuaren parte-hartzea eskola guztiei irekiz EGKtik ekarpenetarako gunea dinamizatu izan da.

Guzti hau, memento oro Eusko Jaurlaritzako Gazteria sailarekin koordinatuta eta elkarlanean eman den prozesu bat izan da, bide horretatik helaraziko direlarik ekarpenak eta eskolen iritziak. Zubi lana eta eskolen iritziak entzutea da prozesu honetan bilatu nahi izan dena. Hau ahalik eta modu partekatuenean egin da eta aurrerantzean horrela mantentzeko nahia dago.

Ebaluazioa

- Urte hau, etengabeko behar eta premiak identifikatzeko urtea izan da zentzu askotan eta maila horretan oso positiboki balioesten da elkarteekin etengabeko entzute ariketa lana egin izana. Hauekin harremana mantendu eta indartzeko pausoak eman dira. Oso garrantzitsua da EGKrentzat elkarteek haien kezkak helarazteko guneak sortzea eta horretan arituko da aurrerantzean ere.
- Bestalde, memento honetan, nahiz eta egoera mementorik egonkorrenean ez izan, EAEko astialdi taldeek hainbat espaziotan badute ordezkaritza bermatuta eta berme horretan EGK-k paper garrantzitsu bat jokatu du. Aurrera begira ere bitartekaritza lanarekin aurrera jarraitzea garrantzitsua ulertzen da. Izan ere, EGKtik eman nahi den aukera etengabeko iritzi jasotze eta errealitatearen ahotsa protagonistei ematearena da

eta funtzio hori espazio desberdinetara eramatea eta helaraztea izango da helburua hezkuntza ez formaleko lanketetan.

- Aurrera begirako erronka, EAE mailan astialdian batzen diren taldeen elkargune hau sustatzea eta indartzea izango da, talde sentimendua errotzen saiatuz eta maila lokalean zein eguneroko errealitate berezitan egon daitezkeen beharrei erantzuteko bide berriak zabalduz.
- Guzti honen baitan, 2020an ezarria gelditu den gauza garrantzitsuena elkarte eta eskolen arteko elkargune baten beharrean berrestea izan da. Komunikazioa zein sarea bera indartzeak duen garrantzitik abiatu eta elkarteen zein eskolen arteko ikusgarritasuna lantzeraino.
- Aurrera begira, foroek hartuko duten ibilbidearen zehaztapen eta definizioa jarri nahi da mahai gainean eta hurrengo urterako batzuen gaineko eta beharretatik abiatutako lan ildoak zehaztu beharko dira urte hasieran. Gainera, taldeak egonkortzeak garrantzia edo lehentasuna hartuko du datorren urtean ere, memento honetan aktiboki lanean dauden elkarte, talde edota eskolekin maiztasun bat zehaztu eta behar zein modu berriekin lanean jarraitzeko.
- Astialdi eskolen titulazioen eguneratze aurrera eramateko prozesuaren kasuan, jarraipena emango zaio ekarpenak egiteko bide honi, etorriko diren gainerako erabakietan taldeek hitza eta zer esana dutela kontuan hartuz eta bermatuz.

3.1.2 Astialdiko ikastaroen kanpaina

Astialdiko ikastaroen eskaintzaren gaineko nondik norakoak pertsona gazteei helarazteko, urtero bezala, informazio kanpaina bat aurrera eraman da aurten ere.

Honakoa www.astialdiforua.org webgunean argitaratu da zerrendatze baten bitartez eta, bertan eskaintzen informazio espezifikoak jasotzeaz gain, EAEko eskola bakoitzaren harremanetarako bideak eskainiko dira, klik baten bidez aurkitu daitezkeenak.

Gainera, ikastaroen zabalpenari dagokionean beste bide batzuetatik garatzen den aholkularitza ere eman da, esaterako telefono bidez edo emailaz eskaintzen dena, bidean sortzen diren zalantza eta beharrei erantzuteko asmoz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EAEko ikastaroen berri ematea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Astialdiko ikastaroen eskaintza web atarian jasotzea.
- Elkarateak eta astialdiko eskolak ezagutzera ematea.

Garapena

Urte berezia izan dela kontuan izanik, ikastaroak antolatzerako orduan ere hau hala izan dela ikusi da. Taldeen ezegonkortasuna medio, ikastaroak nola antolatu eta protokoloak nola zehaztu erabakitzeke denbora gutxi izan dute eskolek eta horrek maila batean aldaketak sortu ditu eguneroko lanean.

EGKtik, jarraipena egin zaio ikastaroen antolaketari, nahiz eta aurreko urteetako kronograma bera ezin izan den jarraitu zentzu askotan, gauzak desberdin bideratu behar zirelako. Eskolei ikastaroen antolaketan jarraipena egiteaz gain, EGK akonpainamendua egiten saiatu da haien egoera nolakoa zen galdetuz eta ahal zen neurrian eskariei erantzunez.

Zabalpenari dagokionez, EGKren sare sozialak jarri dira eskolen esku eta bertatik eman zaio hedapena eskaintzari. Bestalde, **Piztu! buletinean** ere aurkeztu dira proposamenak eta medioetara ere helarazi dira prentsa ohar bitartez.

Ebaluazioa

- Formakuntza ikastaroei dagokienez, zenbait eskolek urte honek izandako berezitasun eta zailtasunak medio, azken unera arte ez dituzte haien talde zein ikastaroak itxi eta beraz, honek ikastaroen gaineko xehetasunen zabalpena erraztea ez du ahalbidetu, baldintzatu egin du. Baina kasu honetan ere, eskaria eta eskaintzaren arteko informazio bidea dinamiko eta pertsonal egin nahi izan da EGKtik. Egindako lanaren zabalpena bideratuz eta jende gaztearengana eskaintza iritsiz.
- Aurten egoera berezi edo berria izan dela medio, pertsona gazteen aldetik jasotako aholkularitza maila oso altua izan da zentzu honetan eta ikastaroei dagokienez, aurreko urteetan egondakoa handitu da. Telefonoz zein helbide elektronikoko mezuz ere, ugariak izan dira jasotako galdera eta laguntza eskaerak.
- Taldeekin egindako jarraipena ere, batez ere ikastaroen egitura zein antolakuntza prestaketa mementoan (protokolo berrien gaineko ardura izan dela medio batez ere) oso positiboki balioesten da. Eskolentzako lan nekeza eta gehigarria izan den arren, baita denbora tarteak kontuan hartuta, hauen kezka eta zalantzak entzuteko egon da EGK akonpainamendu lana ematen.

3.13 Udako ekintzen zabalpena

Astaldian boluntario gazteek antolatutako udako ekintzen ezaguera eta zabalpena helburu duen kanpaina da honakoa. Bertan, EGKren baitan antolatzen diren **Astaldi Foroetako** eragileez gain, EAEko edozein astaldi talderen ekintzen zabalpena burutzen da ahalik eta informazio bilketa eta zabalpen osatuena sortzeko. Aurten ere udako eskaintza hau www.astialdiforooa.org webgunean jaso da. Online gidaz gain, kanpainaren nondik norakoak jasotzeko aholkularitza zerbitzua izateko aukera egon da aurten ere.

Helburua

HELBURU OROKORRA:

Astialdi taldeek udan antolatzen dituzten ekintzak eta hauen eskaintza desberdinak jasotzea, antolatzea eta gizarteratzea.

Garapena

COVID-19aren agerpenak, udako ekintzen planteamenduan zalantza asko sortu ditu 2020. urtean. Konfinamendu egoeran izandako astialdiko taldeen egokitzapenak, lana zailago bilakatu du batez ere uda aurreko garai horretan.

Udako astialdia arautzeko urratsei ekarpenak:

Astialdiko talde desberdinak batuta, ekarpenak egin zitzaizkion Eusko Jaurlaritzan landutako 2020ko udako ekintzak arautzeko dokumentazioari. Horretarako EGK-k bilera telematikoak antolatu zituen. Honekin, astialdiko talde, eragile, elkarte zein eskolen iritzi eta mementoko errealitatea ahalik eta hoberen ordezkatuta egon zedin egin da lan.

Bilera hauetan landutakoak, bi txostenetan helarazi zaizkio udako ekintzak arautzeaz arduratu den administrazioari: lehendabizikoa zalantzekin eta bigarrena zirriborroari egindako ekarpen zehatz eta moldaketa konkretuetarako proposamenarekin.

Hauek, ahal den heinean talde eta eskola guztien arteko kontraste eta kontsentsuz sortuak eta igorriak izan dira.

Protokoloaren lanketa:

Uda aurretik, ikastaro bat antolatu zen COVID-19aren prebentzio eta astialdi taldeen protokoloen eratzeari begira. Honetan, udako ekintzen antolatzaileek eta hauetan parte hartzen zuten pertsonen aurrera eraman beharrekoaren jarraibideak eman ziren eta EGKtik bideratu zen deialdia EAEko mailako eskola guztietara ere, parte hartu zezaten gonbidatzeko.

Protokoloaren lanketa honek, guztira arratsalde bateko iraupena izan zuen eta formakuntza gisa jaso zen. Bertan, begirale eta astialdi munduko langile zein boluntarioek zuzenean nola egokitu egoera berrira azaldu zen eta baliagarria izan zen antolakuntza eremuko zenbait zalantza argitzeko. Formakuntzatik ateratakoa konektatu ezin izan ziren zenbait talderi gerora igorri zitzairen, guztiek informazio osatua eduki zezaten.

Ebaluazioa

- Udako ekintzen atarian egoera oso ezegonkor eta nahasia bizi izan dute aurten astialdiko elkarte eta eragileek. Hori horrela, hauen partaidetza eta ahotsa espazio desberdinetara eramatea izan da EGKren eginbehar nagusia. Zentzu horretan, iritzien trukerako espazio berriak ireki eta gai honen inguruan partekatze ariketa bat egiteko foro bat izateak lana erraztu dezake, talde bakoitza bere aldetik ibili beharrean.
- EGK-k akonpainamendu lana egiten jarraituko du proiektu honen baitan, sortzen diren beharrak identifikatu eta aurrera eramaten diren egitasmoei proiektzio eta zabalpen zein ibilbide bat emanez, betiere hauen lana balioan jarri eta aitortza bat ematearen bidetik, maila honetan egiten den lana ezagutzera emateaz gain.
- Astialdi talde, elkarte edota hauek arduratzen diren pertsona berriei harreman berriak sortu dira urte honetan, eta hau EGKrentzat oso baliagarri eta positiboa da. Honekin batera, komunikazio kanal edo bide berriak arakatzeko aurrerantzean funtzionatzeko eta udako kanpaina bezalako edukiak partekatzeko balio izango duela aurreikusten da, adibidez urte honetan egin izan den protokoloaren inguruko formakuntza bezalako saioak.
- Aurretik aipatutako guztiak, informazioa modu pertsonalago batean zabaltzeko bide berriak urratu ditu, aholkularitzaren figuraren bitartez.

3.1.4 Astialdi Foroko webgunea



www.astialdifofoa.org webguneari egonkortasuna eta mugimendua ematea da helburua. Erreferentziazko gunea bilakatu eta arloko informazioa bertan jaso eta Facebook sare sozialaren bitartez zabaldu.

Astaldiarekin lotutako gaien bilaketarako gune garrantzitsua bilakatzen ari da gero eta bisita eta aholkularitza gehiago jasoz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Webgunearen jarraipena aurrera ematea.

HELBURU ZEHATZAK:

- **Astialdi Foroak** aurrera eramaten dituen ekimen eta hausnarketak ezagutzera ematea.
- Hezkuntza ez formal eta astialdiko jardura espezifikokoak zabaltzea eta erabiltzaileen kontsultak kudeatzea.
- Egunero webgunearen jarraipena egitea.
- Astialdiko ekimenei dagokien aholkularitza kudeatzea.

Garapena

Garapenari dagokionez, webgunearen zabalpena astialdiko taldeen beste behar batzuek mugatu izan dutela ikusi da, hau da, urte honetan beste batzuk izan direnez lehentasunak, antolatutako ekintzen zabalpena ere zentzu batean mugatuta ikusi da.

Ebaluazioa

- Urte nahasia izan den heinean, protagonismoa aurten bilera telematikoek hartu dute eta horrek bide zein plataforma berriak zabaltu ditu zentzu batean.
- Webgunearen erabilgarritasunari, aurrera begira beste urrats batzuekin laguntzea izango da helburua eta taldeen erabilerara nola ahalik eta modu eraginkorrean egokitu pentsatzea.

3.1.5 Boluntariotza kanpaina 2020

Hainbat pertsona boluntariok lan handia egiten dute urte osoan zehar gizartearentzako proiektu eta ekintza aberasgarriak aurrera eramanez. Gaia gizartera zabaltzeko helburuarekin eta gazteek honen baitan hartzen duten paperaz hausnartzeko, aurten ere boluntariotzari buruzko kanpaina egin da, EGKtik lan hau balioan jartzeko helburuarekin. Gainera, pandemiak ekarritako behar eta gabeziei aurre egiterako orduan, bi hilabete oso gogorak izan dira azkenak eta gizartean hainbat arrakala, arazo eta desberdintasun areagotu dira. Boluntariotzaren beharra edo premia inoiz baino presenteago egon da urte honetan.

Hirugarren sektorean lanean aritzen diren elkarte eta eragileen aitorpena egin da, honi behar duen tokia emanez eta lan hau egunerokotasunean oinarrituta ikusgarri eginez, baina baita (eta bereziki) boluntario gisa azken garaiotan batu eta inplikatu diren gazteei ere aitortza bat eman nahi izan zaie.

Zentzu honetan, aurreko urtean egindako boluntariotza topaketako ondorioetatik abiatuz eta urte honetako esperientziekin tartekatuz, testigantzak zabaltu nahi izan dira aurten: gazteen arteko sarea indartzeko asmoz. Horretarako, pandemiak markatuta, planteamendua moldatu eta egokitu behar izan da, garaiko errealitatea ikusarazteko asmoz. Honek hartu duelarik agendaren eta gazteen beharren erdigunea.

Boluntariotzaren aitortza honetan, gazte sektoreari zuzendutako mezuak garatu eta hedatu nahi izan dira, hezkuntza prozesu horren baitan oinarritutako beharrak bilduz eta partekatuz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazte mailan, boluntariotzan jardutea COVID-19ko pandemia-egoera garaia hasi zenetik zer izan den edo zer ekarri duen gazteentzat sozializatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteek boluntariotzan duten papera balioestea.
- Pertsona gazteek azken urtean egindako boluntariotzaren esperientziak ahots propioz kontatzea, testigantza bitartez.
- Arlo desberdinetako gazte mailako boluntarioak ezagutzera ematea.
- Aurreko urteko topaketan garatutako diskurtsoa ezagutzera ematea eta zabaltzea.
- Astialdiko eragile zein elkarte boluntarioei protagonismoa ematea.
- Boluntariotzaren grina piztea.
- Abenduaren 5a, nazioarteko boluntariotza eguna, gizarteratzea.

Garapena

Lehen unetik azaldu zen gazteek erantzuteko eta ahal zen neurrian laguntzeko erakutsitako prestutasuna: elkarleen bitartez, auzo zein herri mailan antolatutako laguntza sareen bitartez, janari eta arropa bilketekin, etab. Hala erakutsi zuen ere, martxoan Gazteen Euskal Behatokiak egindako [#EsanNolaDaramazu](#) inkestak eta berretsi du urri amaiera eta azaro hasiera bitartean egindako [#NolaDaramazu](#) galdetegiak. Gazte boluntarioek egiten duten lanak aitortzea eta aitortzea izatea aldarrikatu dira EGKtik ere.

Bizipen irudi edo infografiak:

Kanpaina argitara emateko edota publiko egiterako mementoan, euskarri desberdinez baliatu da zabalpena. Panel estiloko diseinua, euskarri hauetako bat izan da. Protagonisten argazkia gehi testigantza batzen dituen irudi baten barne-bildu da informazioa, horrela, bisualki erakargarri

eginez eta hedapenerako modu erakargarri bat baliatuz. Abenduko lehen astean eta Boluntariotzaren Nazioarteko Egunaren data hurbil zegoelarik, testuingurua erabili da edo baliatu da honen hedapenak balioa har zedin.

Horretarako, EGKtik interesgarriak izan daitezkeen zenbait elkarte identifikatu eta haiekin batera planteamenduaren diseinua garatu da. Gainera, honek, harremanak indartzeko eta boluntario gazteekin dagoen lotura sendotzeko baliagarria izan da.

Honakoak izan dira kanpainan parte hartu duten elkarte protagonistak:

- Amuge elkarte
- ALBOANeko Gazte Sarea
- ESN elkarte

Beraien bizipena edota testigantza kontatzeko, honako bi galdera hauek erantzun dituzte:

- Zer izan da zuretzat boluntario gazte bezala aritzea pandemia garaian?
- Nola aldatu/moldatu da zure lana egoera berri honetara egokituz?

Honakoak izan dira, diseinu erara jasota, galdera horietatik abiatuz bildu diren erantzunak:

#BoluntaldiaCOVID19an

Gazteen boluntariotza esperientziak pandemia garaian

ITZIAR,
ALBOAko Gazte Sareko kidea

COVID-19k eragindako alarma-egoera dela eta, AlboAko Gazte Sareko kidea bertan behar utzi behar izan genuen urtero antolatzen dugun eta bertan dugun pertsona gazte eta taldeei sartzeko lekuak. Hala eta guztia ere, eta egoera zaila izanik, aurrera egiteko inoiz eta motibazio handia izan ginen, eta horregatik erabaki genuen lan eginez dera gure aldea jartzea, nolabait gure parte hartzearen ekintza desbideratuz aurrera atera ahal izateko. Ondutik, gehienbat bideo del bideoa egin dugi lan, eta lan egiteko modu hori ohikoa izango zela da. Azkenik, eragari egoerara egokituta, topaketa egin ahal izan dugu pertsona talde txiki batera mugatuta, aurretik aurre zuten streaming bideo, gure jarduna finkatuz muntatu. Erabaki erabakiak digu, ahal dugun guztia egin gite boluntario garenak erabaki ona izan dezakegula gure honetan bada ere. Konturatu ginen, halaber, ahal dugun eginez gero, beste aukera batzuk ere izaki eta aurki ditzakeela.



#BoluntaldiaCOVID19an

Gazteen boluntariotza esperientziak pandemia garaian

CYNTHIA, AMUGEko kidea

Amugeko boluntarioek, COVID-19ak eragindako osasun-heriotza, beraien jardueren handiagotze bat izan izan dute honako kasuetan:

- Gizonek hiru familiak bizi ez dituzte oinarriko beharrek asota, eta %43 muturreko pobreak bizi dira. Hori larritu egin da garai hauetan, eta laguntza handia eman behar izan da elikagai-bankuak amandako elikagaiak banatzeko eta Bizkaitarren erresistentzia-kutxa osaririk elikaduraz beharrek ez zituzten familieratzat egindako dohaintzak banatzeko.
- Familiarentzako aholkularitza eta laguntza, dagoen etan digitala dela eta, administrazio baliabideak erabiltzeko eta transitzioak online egiteko.
- Sentak, bideo eta ikusarriko solasarietan, eskola-materiala eta ikasketetarako aurrerajotako zereginak ikasleentzako banatzea. Hori guztia Ertzaintzaren laguntzarekin.
- Ikasle eskolara larrik online egiten laguntzea, dagoen etan digitala dela eta.





Instagram zuzenekoa:

Pertsona gazteen esperientziak lehen eskutik ezagutzeko asmoarekin, Gazteak eta Boluntariotzari buruzko online elkarrizketak egin dira, solasaldi formatuan Instagram plataformaren bitartez. Zuzeneko hauen bidez, abenduaren 2an eta Boluntariotzaren Nazioarteko Eguna hurbiltzen zegoela, hau da, bezperak zirela aprobetxatuz, 3 gazte boluntarioekin egoteko aukera izan zen. Gazte gonbidatu hauek, honako galderari erantzun zioten elkarrizketan: **“Nolakoa izan da gazte boluntario bezala jardutearen esperientzia pandemia garaian?”**

Honakoak izan dira bertan parte hartu duten eragileak:

- BATEKIN boluntariotza agentzia.
- Gazteen Gurutze Gorria.
- Gorabide Elkarteko gazteak.

Euskarri fisiko honen bitartez jaso eta zabaldu zen informazioa:



Hedapen zabala lortu zuen honako ekintzak eta datuetan jarrita edo oinarrituta, ikustaldi ugari jaso zituen zuzenekoak:

- Lehenengo elkarrizketak 106 ikustaldi lortu zituen, 14 like eta 4 aldiz elkarbanatu zen. 200 kontuk ikusi dute uneren batean (%5a ez da EGKren jarraitzailea).
- 2. elkarrizketak 68 ikustaldi, 10 like eta 2 aldiz elkarbanatu da. 146 kontuk ikusi dute uneren batean (%5a ez da EGKren jarraitzailea).
- 3. elkarrizketak 52 ikustaldi izan zituen. 120 kontuk ikusi dute uneren batean (%3a ez da EGKren jarraitzailea).

Datu hauen arabera, zabalpenak eta planteamenduak pertsona gazteengana maila kuantitatibo baten behintzat asko heltzea ekarri du eta baita mezuaren zabalpena edota aitortza zein boluntariotzaren balioeste hau behintzat iritsi dela jakitea.

Gainera, gerora ere ikusgarri jarri izan dira elkarrizketak EGK-ko sare sozial zein plataformetan eta honek, mementoan bertan ezin izan arren, geroago gazteen eskura eta helgarri izatea ahalbidetu du.

Abenduak 5:

Boluntariotzaren Nazioarteko Egunean, abenduaren 5ean, EGKtik gazte boluntarioek egoera zaurgarri horietan bizi diren pertsonen laguntza eta akonpainamendua eskaintzeko erakutsitako konpromisoa eta ardura zein egindako lana azpimarratu nahi izan da eta balioan jarri ere zentzu horretan.

2017an **#IzanZuAldaketa** kanpainarekin edo iaz **#Boluntaldia** argazki-lehiaketa eta topaketarekin boluntariotza ikusaraztea zen asmoa. Egunero, aste-bukaeretan, opor tarteetan edo COVID-19aren ondorioz bizi den egoera berezietan erantzuteko pertsona gazteak hor daudelako izaera askotako elkarte mordoa eta ez dutelako beti merezi bezain besteko aitortza.

Gai honen inguruko iritziak partekatu eta zabaltzeko, gazte boluntarioekin egon ostean, honakoa da eragile eta norbanako desberdinen artean adostutako eta egun horretan publiko egindako manifestua:

<https://egk.eus/wp-content/uploads/2020/12/manifestua-boluntariotza-2020.pdf>

Ebaluazioa

- Urte nahasi honetan, protagonismoa aurten COVID-19ak hartu du gazte boluntarioen artean ere eta EGK-ko hezkuntza lan-arlotik abiatutako kanpainan, salto kualitatibo zein kuantitatibo bat eman da bai gazte boluntarioekin harremana egiterako orduan edo mementoan eta baita diskurtsiboki posizionamendu bat garatzerako orduan. Gazte boluntarioekin harremanak eta sarea handitzea lortu da, zentzu horretan boluntariotzaren gaiarekin azken aldian parte hartu duten gazteak asko izan dira eta ekarpen handia egin diote EGKri. Beraz, ekarpen aldetik ere aurrerapauso nabarmen bat egin da, batez ere gazteen boluntariotzaren inguruko diskurtsoaren osatzeari begira.
- Gazte boluntarioak kolektiboki eta kolektibo gisa ere, esperientzia indibidualetatik haratago hausnartzen jarraitzea aurrerapauso handia izan da EGKrentzat.
- Aurrera begira ere, eragile desberdinekin dauden harremanak baliatu nahi dira urte honetan egindako aldarrikapen eta neurri proposamen guztiak gizarteratzeko eta praktikan nola inplementatzen diren ikusteko.

3.1.6 “Haziak Astialdira”: Hezkidetza astialdian lantzeko proposamena

Proiektu hau berdintasun teknikariarekin elkarlanean partekatuta garatu da. Memoriako **6.10. atalean** azaldu da sakonago.

3.1.7 Mugen Mugetatik #IkusGaitezen: Gazte migratzaileekin etorkizunera begira

Proiektu hau bakea eta bizikidetza lan-arloko teknikariarekin elkarlanean partekatuta eraman da aurrera. Memoriako **5.3. atalean** azalduta dago sakonago.

3.1.8 Substantziarik gabeko adikzioak

Substantziarik gabeko adikzioena pil-pilean dagoen gaia da, baita EAEko gazteen artean ere. Adikzio hauen kontsumoak Euskadiko gazteen artean duen eragina mahai gainean jartzeko, gaia lantzeko eta baita honen prebentziorako tresnak, programak eta material ezberdinak identifikatzeko, eragile desberdinen arteko topaketa bat burutu da 2020ko abenduan. Bertan, gai honen gainean dauden praktika onak ere konpartitu dira.

Honako lanketa mahai-inguru formatuan egin da, presentzialki zein online bidez jarraitzeko aukera izanik eta beraz erraztasunak emanez gaia ezagutzeko. COVID-19aren ondorioz sortutako alarma egoera dela eta topaketa birmoldatu behar izan da, eta hiru hizlariz osatutako ponentzia baten bidez landu da gaia. Honekin ahotsa eman nahi zaie gai hau lantzen duten entitateei beraien lana balioan jarritz, betiere gazteen errealitatetik abiatuz eta hau partekatzeko espazio bat sortuz.

Aldi berean, elkargune hau baliatu nahi izan da politikari, teknikari, eragile desberdinen eta gazteen arteko harremanak eta komunikazioa hobetzeko eta sarea eraikitzeko.



Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Substantziarik gabeko adikzioen inguruan dagoen informazioa sozializatzea eta gazteen, teknikarien eta politikarien eskura jartzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Substantziarik gabeko adikzioen inguruan dauden tresna, eragile, programa eta material desberdinak identifikatu eta aurkeztea.
- Gazteekin jarduteko bideak, aukerak eta tresnak identifikatzea.
- Adikzio hauen prebentzioan lanean diharduten espazio eta eragileei ikusgarritasuna ematea.
- Praktika onak eta testigantzen bitartez esku-hartzean sakontzea.

Garapena

Topaketa abenduak 18an egin zen Bilboko Arrupe Etxean, eta egun erdiko saioa izan zen. Aurrelanketari dagokionez, topaketarako zenbait elkarte eta eragile identifikatu ziren mapeo baten bitartez eta hauei bertaratzeko gonbidaena luzatu zitzaion. Bertan, ondoko hizlariak hartu dute parte:

- Estibaliz Ansotegi (Ortzadar fundaziotik)

- Illargi Zarate (Ekintza Aluviz elkartetik)
- Unai Garma (Testigantza pertsonala)



Gaur egun gai honen inguruan dauden beharrak identifikatu eta proposamen desberdinak landu ziren. Hizlariak gako eta tresna desberdinak aintzat hartuz, esku-hartzeko galdera hauek erantzun zituzten:

- Zein tresna dira egokienak?
- Norekin batera egin behar da lan? Zeintzuk dira identifikatutako eta inplikaturako agenteak?
- Non egiten da lanketa? espazioa eta esparrua identifikatu dira.

Bakoitzak egiten duen lana eta esku-hartzea balioan jarri zen. Gainera, honetaz gain, Unairen testigantzaren bitartez pertsona gazteenganako eta haien egoerarekiko hurbilpen ariketa bat egin zen, gaitz hau bizi duten gazteei zuzendua bereziki. Honekin, diskurtsiboki zein praktikan landu nahi izan zen arazo honi gizarte bezala nola egin dakioken aurre eta maila indibidualean ere nola erantzun daiteken.



Topaketa presentzialki burutu bazen ere, hau streaming bidez zuzenean ikusteko aukera ere egon zen. Honela, alarma egoeratik udalerrien itxiera perimetralak zirela eta, Bilboko udalerrikoak ez diren gazte eta eragileei ere honetan parte hartzeko aukera eskaini zitzairen.

Topaketaren ondoren hitzartzea egin zuten pertsonekin bideo bat grabatu zen non haien aurkezpen edo ponentziak modu ulergarri batean laburtu zituzten, zabalpenerako.

Gaia bere horretan mahai gainean jartzea pauso kualitatibo bat izan da EGKrentzako.

Memento honetan, zabalpena nola egin diseinatzen dago EGK, 2021 hasieran gai honi jarraipena nola eman pentsatzen eta balioesten. Parte-hartzaileei gaiarekiko egonezin edota beharrengatik galdetuko zaie aurrera begira nola jarraitu ere bideratzeko.



Ebaluazioa

- Gazteen, teknikarien zein eragile ezberdinen parte-hartzea aproposa izan da.
- Parte-hartzea handiagoa izan da streaming bitartez.
- Aurrera begira gaia lantzen jarraitzeko interesa adierazi dute bai gazteek baita honen inguruan diharduten teknikari zein eragile ezberdinek ere.
- Gaiaren inguruko hausnarketen sakontasuna eta hizlarien eta parte-hartzaileen jarrera aktiboa modu positiboan balioesten dira.

3.2 Hezkuntza formala

3.2.1 Hezkuntza Foroa

Hezkuntza formalaren arloan, EGKren diskurtsoa eta bideaosatzen lagunduko duten ikasle elkarte, kontseiluetako ordezkariekin eta maila indibidualean parte hartzen duten gazteekin batera eztabaidarako guneari aktibazio eta egonkortze bat ematea da asmoa **Hezkuntza Foroaren** bidez. Hauekin batera hezkuntza arloko gaiak eztabaidatu eta elkarren arteko adostasunean oinarritutako proposamenak lantzeaz gain, hezkuntza arloko proiektuak zehatzak definitu dira foroan. Hezkuntza lan-arlotik harremana eta interakzioa sortzeaz gain, lan horren bitartez hezkuntza arloko administrazioari proposamen zehatzak helaraztea da helburua ikasleen egoeraren berri emateko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Bitartekari lana burutzea: ikasleen kezka eta beharrak proiektu zehatzen bitartez lantzea, gerora hezkuntza formaleko instituzio eta arduradunei lan horretan jasotako ondorioak helarazi eta proposamen zehatzak bideratzeko.

HELBURU ZEHATZAK:

- Hezkuntza formaleko elkarte eta eragileekin hezkuntza eztabaida gunea koordinatzea.
- Ikasleen arazoak eta kezkak jaso eta foroaren eztabaiden bitartez proposamen eta ekimenak bideratzea.
- Aurreko urtean emandako pausoetatik abiatuta taldearen definizioa eta honen eginkizunak parte-hartzaileen artean finkatzea.
- Foroak egonkortasun batekin lan egiten duela bermatzea.

Garapena

Ikasleentzako ez dira hilabete errazak izan. Aldaketa mordoa ekarri ditu COVID-19ak eta sortutako galderek ez dute beti erantzunik izan, besteak beste [#IkaslePisuakZer](#) kanpainak erakutsi bezala. **Hezkuntza Forotik** elkarlana errazteko, ikasleen beharrei erantzuna emateko eta azaleratzen diren gaiak jorratzeko lanean jarraitu da EGKtik, baita administrazio arduradunekin zubi lana izateko eta egiteko dagoen lanean sakondu ere. Espazio irekia da **Hezkuntza Foroa** eta gero eta ahots eta ikuspegi gehiago zein anitzagoak izan, hobe. Izan ere lantalde honen helburua bikoitza da: batetik, ikastetxe/unibertsitate edo administrazioen aurrean ikasleen beharrak aurkeztea; eta, bestetik, ikasle eta ikasle-taldeen arteko sinergiak bilatzea.

Harreman eta bileren bira:



Aurreko urtean egindako harremanei jarraipena emateaz gain, urte honetako lehen urratsa eragile eta ikasle mugimenduetako kidego berriaren identifikazio zein mapeoaren osaketa egitea izan da. Lantaldea indartzeko aliantza berriak sortu dira eta zubi-lanaren bitartez erronka berriak egotzi zaizkio **Hezkuntza Foroari**. Urtean zehar, hainbat izan dira elkarteekin garatu diren harremanak eta iritzia trukatzeko espazio edo guneak.

Besteak beste, urte honetan honako ikasle eragileekin egin du lan EGK-k hezkuntza formalaren ikuspegitik:

- EHUko Ikasle Kontseilua
- ESN (Erasmus Student Network)
- Gora Ikasleon Borroka
- Ikasle Sindikatua
- Ikama
- UIB (Unibertsitateko Indar Batasuna)

Garatutako dinamika eta planteamenduak:

#IkaslePisuakZer dinamika:



Ikasle pisuen gaia mahai gainean jartzeko beharra identifikatu ondoren, etxebizitza lan-arloarekin elkarlanean [#IkaslePisuakZer](#) kanpaina sortu zen. Honen bitartez antolatu eta bizipenetatik abiatuz, eta erantzun kolektibo batean oinarrituz, administrazioari proposamenak helaraztea zen helburua. Albistean publikatu bezala kanpainari ikasle desberdinen bizipen eta eskaera konkretuak jasotzen zituen [bideoa](#)rekin ekin zitzaion. Kanpainaren ondorioz, agerraldiak izan ziren zenbait komunikabideetan: [Berriako albistea](#), [Donostitik](#), [Tb News](#), [Diario Vasco](#), [Berria](#), [Bizkaia Irratia](#) eta [Euskadi Irratian](#). Honi jarraipena emateko asmoz, ikasturte berriaren

hasierarekin bat, sareetan [formatu berriarekin](#) jasota gogorarazi zen eta honetan ere bizipenetan fokua jarri zen zabalpena.

Zentzu horretan, neurri konkretu batzuk bildu izan ziren ikasle protagonisten aldetik aurrera begira gaia lantzeko, besteak beste:

- Ikasleen egoera hau aintzat hartzea eta neurrietan uneko egoera presente izatea.
- Partaidetza espazioak bultzatzea, batez ere mota honetako erabakiak hartzeko (nolabait ikasle baten eguneroko bizitza baldintzatzen dutenak).
- Egoeraren berri beharrezko denbora tartearekin ematea. Ezjakintasun eta ezegonkortasun egoerak ahalik eta lasterren ekiditeko. Jakinarazpenak lehen mementotik ikasleen esku egotea, hau da, informazio gardena eta antolaketari dagokiona, ikasleen eskura jartzea.
- Laguntza ekonomikoetan neurriak gehitzea. Beraien ohiko etxebizitzan bizitzen geldituko direnen kasuan (garraiorako esaterako) edo joan etorrian ibiliko direnen kasuan.
- Eskaera horiei eutsiz eta gaia mahai gainean jartzeaz gain, ikasle batzuegana iristea lortu zen harreman berriak sortuz.



Azaroaren 17a, Ikasleen Nazioarteko Eguna:

Egun honetan 7 eskaera egin zaizkio **Hezkuntza Forotik** administrazioari. Ikasleen Nazioarteko Eguna aintzat harturik, EGK-ko **Hezkuntza Foroan** parte hartzen duten ikasleek hainbat eskari mahai gaineratu dituzte 2020 honetan ere, eguna aprobetxatuz.

Ikasle problematika lantzeko une egokia zela ikusi da ikasleen aldetik pandemiarena, aurrez aurre egon diren maila eta dimentsio guztietatik beharrak lantzeko, izan ere, premiak biderkatu egin dira azken hilabeteetan. Hala, egoeraz jabetu eta protagonistek lehen pertsonan haien beharrak bideratzeko ahotsa izan dute 7 eskaera hauen bitartez.

Hezkuntza Forotik inoiz baino beharrezkoagoa ikusi da ikasleek egunerokoan bizi dituzten ardurak mahai gainean jartzea eta hauei irtenbidea emateko lan egitea. Baita unibertsitate eta administrazioetik ere. Ikasteko baldintza duinak bermatu behar dira, are gehiago COVID-19ak azaleratu dituen egoerak ikusita. Azken urteetan, EGKtik aldarrikatu da, besteak beste, %100ean euskaraz ikasteko zailtasunak daudela UPV/EHUn, garraio zerbitzua hobetu behar dela, tasen prezioa edo beken sistema birpentsatu behar direla edota partaidetza aktiboa sustatu behar dela. Pandemia garai berezitu honetan areagotu eta nabarmendu dira behar hauek, ikasleen artean egoera are zailagoak sortuz.

7 eskaera ikasleekin eta ikasleentzako:

Egoera kontatzeaz gain irtenbidea bilatzeko **Hezkuntza Forotik** esfortzu berezia egin da ahalik eta ikasle gehienen errealitatea ezagutzeko. Horretarako ikasle mugimenduko eragile eta ikasle-taldeekin bildu da EGK, elkarlana aztertzeko, egoera eta baldintzei jarraipena egiteko eta informazioa eta beharrak trukatzeko. Horren emaitza da [ikasleen nazioarteko eguneko manifestuan](#) zazpi eskaera konkretu eta bereziturekin:

- Ikasteko espazioen egokitzapena eta baliabide fisikoak bermatzea
- Garraio publikoan hobetzea
- Ikasketa tasen prezioa birpentsatzea
- Ikasteko beken sistema birpentsatzea
- **#IkaslePisuak** arautzea eta laguntza espezifikoak ezartzea
- Burokrazia arintzea
- Parte-hartze aktiboa sustatzea



Hona hemen atxikita **Hezkuntza Forotik** azaroaren 17an ateratako [manifestua](https://egk.eus/wp-content/uploads/2020/11/Azaroak-17-manifestua-2020.pdf)

<https://egk.eus/wp-content/uploads/2020/11/Azaroak-17-manifestua-2020.pdf>

Ebaluazioa

- Hezkuntza formaleko **Hezkuntza Foroaren** bitartez, ikasle-elkarteen saretzean eta harremantzean urrats handiak eman dira 2020an zehar.

3.2.2 “Garraio gastuen azterketa” analisiaren zabalpena

Aurreko urteko informazio bilketatik abiatuta, garraio gastuen gainean lortutako informazioaren partekatze ariketa bat burutu da urte honetan. Diskurtsoa sortzeaz gain, egoeraren ulerkera eta gazteen iritzia zein ahotsa entzun dadin ahalbidetuko da zentzu honetan. Horretarako, jasotako

ondorio eta balorazioak administrazio zein elkarte desberdinetara hurbiltzeko unea izan da honakoa, hau bilera desberdinen bitartez egin delarik.

Alde batetik, unibertsitate mailan lan egiten duten taldeekin egin da informazioaren deskargu hau. Izan ere hezkuntza lan-arlotik sor daitezkeen harreman berriei begira jarri eta horretarako baliatu da lanketa hau. Honen bitartez, hezkuntza arloko gazteekin sarea sortzen jarraitu eta honen bidez hezkuntza formalean eragin da.

EGKren diskurtsoa osatzen lagunduko duten ikasle elkarteekin, kontseiluetako ordezkariekin eta maila indibidualean parte hartzen duten gazteekin eztabaidarako guneak eraiki eta sortu nahi izan dira proiektu honekin.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Jaso eta bildutako datuei jarraiki, erabiltzaileen ahotsak entzunaraztea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Txostenaren edukiari jarraipena ematea eta informazio eguneratuaren zein hausnarketa partekatuaren eguneratze bat egitea.
- Ikasleen iritziak partekatzea eta egoerari buruzko proposamen zehatzak administrazioari heltzea.
- Ikasleekin harreman berriak sortu eta sarea handitu zein indartzea.

Garapena

Garraio publikoa UPV/EHUn hitzaldia:

Martxoaren hasieran, EHUKo garraio publikoaren azterketa egiteko eta urteetan zehar ere EGKtik egin den analisi lana plazaratzeko mahai inguru batean parte hartu zen arloarekin loturadun beste zenbait eragilerekin batera.



Bertan EGK-k egindako analisia aurkeztu eta aurrera begira aztertu beharrak identifikatu ziren.

Ikasle Kontseiluarekin informazio bilketa:



Orain arte izandako esperientzia eta lanketetatik abiatuz, 2017an [#ZergArraio](#) proiektuarekin hasi zenetik, EGK-k informazioa etengabe eguneratu nahi izan du gai honen inguruan. Ordutik, sakon aztertu da garraio zerbitzua. Jarraipena egin zaio 'Garraio egoera aztergai' ekimenarekin. Unibertsitatera joateko garraioek hobekuntza asko behar dituztela jakin izan da lehen pertsonan ikasleen esperientzien aldetik.

UPV/EHUko Ikasle Kontseiluarekin batera, egoera aztertzen ari da EGK etengabe eta ahalik eta iritzi gehien bildu nahi izan dira urte honetan zehar ere. Aztertu diren gaiak honakoak izan dira: dauden ordutegiak nahikoak diren, lineetan errefortzuak behar diren eta abar.

Txostena idazketa prozesuan aurkitzen da memento honetan.

Ebaluazioa

- Ikasle elkarte berriekin harremanak egiteko modu edo bide bat izan da eta unibertsitate mailan ikasle mugimenduarekiko hurbilpen bat ekarri du honek.
- Honen bitartez, administrazioarekin zubi lana egin eta iritzi hauek trasladatzen jarraitzea lortu nahi da aurrerantzean ere.

3.23 Hezkuntza eragileak

Hezkuntza, EGK-ko lan-arlo bat den heinean, eremu honetan mugitzen da naturalki lan egiten. Hezkuntza sistema osatzen duten egitura, instituzio eta arduradunekin harremana mantentzea egunerokoan presente dago beraz. Honekin batera, EGK ezagutzera emateko modu bat ere da harreman sare hau, arloko agente ezberdinen artean elkarlana eman dadin batez ere.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Hezkuntza sistema osatzen duten egitura, instituzio eta arduradunekin harremana sortzea eta EGK hezkuntza esparruan ezagutzera ematea.

Garapena

Elkarte eta eragile desberdinekin bildu da hezkuntza lan arloa 2020an. Proiektu desberdinetan bidea egin, hauei garapena emateko eta gai anitz lantzeko helburuarekin egin dira hurrengo talde edo elkarteekin harremanak:

- ALBOANeko hezkuntza ez formaleko lan-arloa
- ALBOAN gazte sarea
- UNICEF
- SOS arrazakeria
- Ongi Etorri Errefuxiatuak elkarteko gazteak
- BATEKIN
- Gizalde
- Gazte Moreak edo Rebeldiako hezkuntza lan arloa
- Juventud Activa Saharaui
- ONGD koordinakundea Euskadi mailan
- Ortzadar Fundazioa
- Gazteen Euskal Behatokia

Unean uneko beharrek bultzatuta, hezkuntzan begirada kritiko eta eraikitzailea duten eragileekin sarea egin eta horrekin proposamen kualitatibo berriak jasotzea izan da asmoa; eta lortu ere egin da. Diskurtsoa aberastu, horrekin hausnartu eta arloa dibertsitate handiagoz eratzen jarraitzea izan da egitekoa. Honekin aurrera begirako lan edo ideia berriei bide ematearekin batera, mementoko errealitateari eusteko proposamenak emateko atala ere landu da.

Hezkuntza eragileen premia edo lanketetara hurbiltzeko era ere bada aurrez aurre haien lana ezagutzea eta horren parte izatea, egunerokoan kokatuz prisma.

Zentzu horretan, talde-lana bultzatu da eta hezkuntza lan-arloaren lanketak aberastu, hezkuntza munduak urte honetan zehar bizi izan dituen egoerak modu eraginkorrago batean analizatuz eta azterketa hori protagonistekin partekatuz une oro.

Ebaluazioa

- Eremu desberdinetan eman diren harremanen baitako balorazio oso positiboa egiten da, honek EGK-ko hezkuntza lan-arloan dauden planteamendu edo proiektuen eta espazioen inguruko proiektzioa ematen lagundu baitu. Honen harira, ekintza hauetan sortutako harremanak ugariak izan dira eta hauek etorkizunerako baliagarriak izan daitezkeela balioetsi da, sor daitezkeen proiektu berriei begira batez ere. Honek, aurrerantzean EGKren ikusgarritasunean laguntzea espero da.
- Aurretik esan bezala, mota honetako jardunaldi eta topalekuek, aukera ematen dute harremanak sortzeko eta beraz aurrerantzean ere hezkuntza saileko zein gainerako beste hainbat espaziotatik eratorritako informazioa jasotzen eta kontuan hartzen joango da, arloko eragile eta agenteak dauden espazio hauetan parte hartzeko asmoz eta ezagutzera emateko zein berriak ezagutzeko helburuarekin.

3.3. Hezkuntza: orokorra

3.3.1 Eskola Kontseilua

Aurten ere, EGK-k, Euskadiko Eskola Kontseiluan unibertsitatekoa ez den irakaskuntzako programazio orokorrarekin zerikusirik duten giza eragileek parte hartzeko organo gorenean parte hartu du. Bertan, EAE mailan irakaskuntza garatzen duten arau eta irakaskuntzaren egoeraren inguruko txosten orokorreari ekarpenak egiten zaizkie betiere gazteen iritzia kontuan izanda.



Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskadiko Eskola Kontseiluko bileretan parte hartzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Eskola Kontseiluko eztabaida eta dokumentuei ekarpenak egitea gazteen ahotsa helaraziz.

Garapena

Osoko bilkuretan parte hartzearen bitartez, EGK-k gazteen eta batez ere ikasle eremuari dagokion iritzia helarazi du espazio honetan.

Aurten, *Euskadiko Hezkuntza-sistema 2017-2018/2018-2019* txosten exekutiboaren lanketa eta onarpenean parte hartu da. Honetan, Euskadiko Eskola Kontseiluak mementoko hezkuntzaren errealitateari erronka batzuk erantsi nahi dizkio hezkuntza komunitate osoaren ahots propioaren bitartez. Gainera, mementoko egoeraren irakurketa egiteaz gain, proposamen konkretuak zerrendatu eta bideratu nahi izan zaizkio administrazioari.

Ebaluazioa

- EGK bezala espazio honetan parte hartzea eta gazteen hitza bertaratzea oso positiboki balioztatu izan da. Gainera, oso baliagarri eta beharrezkotzat jo da ekarpen edo parte-hartze hau aurrera eramaten jarraitzea.
- Aurrerantzean ere, Euskadiko Eskola Kontseiluko deialdietan parte hartu eta jasotako dokumentuen ekarpenak burutzen jarraitzea balioetsi izan da, hezkuntza arloko ikasle eta eragileek dituzten behar eta kezkak plazaratzeko espazio gisa ulertu baita. Ekarpen kopurua handitzea izango da beraz EGKren erronka Kontseiluaren aurrera begirako ibilbidean.

3.3.2 Administrazioekin koordinatu

Eguneroko gaiek eskatuta administrazioekin koordinazio lanak burutzean datza: lan-saio eta bilerak, telefono deiak... Hezkuntza lan-arloari dagokionez, Eusko Jaurlaritza eta EAEko Aldundiak izan dira hartzaileak.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Administrazioekin koordinazio egoki eta egonkorra bideratzea.

Garapena

Urtero bezala, administrazio desberdinekin egon da harremana. Proiektu desberdinen jarraipenatarako eta oro har, elkarlanerako urratsak ematen jarraitu da. Gainera, hau guztia bideratzerako orduan etengabeko komunikazio bide edo kanal zuzenak baliatu izan dira: izan bilerak, telefono deiak eta abar.

Aurten, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiekin zuzenean egon da proiektu desberdin batzuen gaineko harremanean batez ere, horretarako bilerak eginez.

Ebaluazioa

- Administrazio desberdinekin izandako harremanek proiektuek aurrera jarraitzea ahalbidetu eta hauen gaineko ikuspegi desberdinak partekatzeko aukera eman dute, baita hauei EGKtik gazteen iritzi eta ahotsak helarazi eta hauek partekatzeko tokia izatea ere eskaini du harreman honek. Hau horrela, iritzi eta behar horiek administrazioarengana eramaten jarraitzea izango da aurrera begirako ekinbidea ere, hauei garrantzia eman eta behar duten tokia zein espazioa aldarrikatuz administrazioen baitan.

3.3.3 Egunerokotasuna

Lan-arlo bakoitzaren lan zehatzetatik bereiztuta, teknikariek egoitzaren kudeaketa lanetan lagundu behar dute: telefonoari arreta eta deribazioa; hurbiltzen denari arreta eta deribazio zerbitzuak eskaini; materiala, dokumentazioa, eskutitzak, mezu elektronikoak... jaso artxibatu eta deribatu; oinarritzko bulego materialaren egoera aztertu eta erosketa eskaerak bideratu; informatika zerbitzuaren mantenuan lagundu; agenda egunean eraman eta koordinatu.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Egoitzetako lan teknikoak eta kudeaketa zereginak aurrera eramatea.

Garapena

Egunerokotasunean aurreikusitako proiektuak aurrera eramateaz gain beste hainbeste funtzio eta ekimen burutu behar dira. Hauen laburpena hurrengo lerroetan dago jasota:

- 2019ko plangintza.
- 2020ko memoria.
- Bulegoetako aholkularitza.
- Lantalde teknikoaren koordinazioan lagundu: erreleboak, bajak...
- Barne formakuntza ikastaroak: komunikazio harreman eta estrategiak hobetzeko eta berdintasunaren gaineko oinarritzko kontzeptuak bereganatzeko.
- Ezohiko koordinazio bilerak: bai instituzio, lantalde tekniko edo bestelako eragileekin.

Ebaluazioa

- Lantalde teknikoak egoera guztiei aurre egiteko lanak bete ditu eta urtero bezala gauzak aurrera atera.

4. PARTAIDETZA

4.1 EGK Sendotzen

EGK Sendotzen 2017an jarri zen martxan partaidetza lan-arlotik EGK kontseilu bezala indartzeko helburuarekin. Bere barneko elkarteekin harremanak sendotzeko prozesu horretan lan asko egin da, baita EGKtik kanpo dauden gazte eragile zein norbanakoak EGKra erakartzeko ere. 2020an COVID-19ak eragindako pandemia medio, bi ardatz horiek indartzen jarraitu da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren barneko elkarten egungo errealitatea aztertzea eta berauekin harremanak sakontzea eta elkarlana sustatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren barneko lantalde desberdinak indartzea.
- EGKren barneko elkarteekin harreman eta kontaktua gaurkotzea.
- Elkarte berriak EGKra erakartzea.
- EGKren sozializazioan sakontzea. EGKren barruan ez dauden gazte elkarte berriekin harreman sareak sortzea eta elkarlanerako bideak irekitzea.

Garapena

2019an buruturiko elkarten bilera erronda amaitzea zen aurtengo ardura nagusietako bat. Martxoarekin COVID-19aren etorrerak eta beronek beharturiko salbuespen egoerak, **EGK Sendotzen**-ek zituen helburu, asmo eta funtzionatzeko moduak erabat aldatu zituen.

Pandemiak EGKren barruan naiz EGKtik kanpo dauden gazte elkarten egoera nabarmen okertu ostean, elkarteei zein norbanako horiei behar zuten laguntza eta aholkularitza eskaintzera berbideratu zen proiektua. Gauzak horrela, EGK-ko lan-arlo guztien artean aholkularitza zerbitzu

berezitua martxan jartzeaz gain, EGK-ko elkarteetan pandemiak izandako inpaktua neurtzeko dei eta harreman erronda bat jarri zen martxan apirilean konfinamenduaren erdian.

Harreman erronda horrekin, batetik, elkarteen egoera eta beraien eskaerak identifikatzea lortu zen. Bestetik elkarteen eskaera zein beharren aurrean EGKren giza kapital tekniko guztia mobilizatu da, ahal den heinean jasotako galdera eta eskaerei soluzioak bilatzeko. Zentzu horretan elkarteei eskainitako laguntza eta informazioa anitza izan bada ere, laguntza 3 ardatz nagusitan zentratu da:

- Dirulaguntzak jasotzeko prozesuetan gertaturiko aldaketen berri ematea,
- Espazio edo gune konkretuak erabiltzeko sortu diren arazoen aurrean informazioa eta aukera posibleak eskaintzea,
- Salbuespen egoerak ia egunero aldatzen zuen egoeraren aurrean administrazioetik hartutako neurri gaurkotuen inguruan informatzea eta aholkatzea.

Bulegoetatik eskainitako laguntzaz gain, behar gehiago identifikatu eta EGK-ko elkarteetara are gehiago gerturatzeko, apirilean zehar dei erronda bat egin zen. Harremanetan jarritako elkarteak hurrengoak izan ziren:

EGKren barneko elkarteak:

- EKO/ACG
- CCOO Gazteak
- LSB/USO Gazteak
- Gazteleku
- Euskal Gorrak
- JEC
- Gaztetxoak
- Uztarri
- Gurutze Gorria
- Euskal Interkultura
- Urkideak
- Itaka Escolapios
- Bosko taldea
- Ikasle Kontseilua
- Arduradun Eskola
- JOC Euskadi
- Arabako Eskaut Laikoa
- Euskarabentura

- Gazte Komunistak
- Hezkide eskola
- Gazte Abertzaleak
- Urtxintxa
- EGI
- Kale dor Kayko
- Uztarri
- Itaka Escolapios

EGKtik kanpora dauden elkarteak:

- Amuge
- Aldarte
- ESN
- Aisiola
- ALBOAN
- Kurkudi

Ebaluazioa

- **EGK Sendotzen** pandemiak sorturiko arazoak bideratzera berbideratu izana positiboki balioesten da. Erabakiaren ostean elkarre desberdinetatik eskatutako laguntza bideratzeko tresna eraginkor bat ere bihurtu da. Maiz zenbait eskaera edo galderen dimentsioaren eraginez ezin izan dira EGK-tik soluzio zehatzak proposatu, honen aurrean, halabaina, elkartearen arazoak kudeatzeko erakunde edo guneen informazioa eskaini da.
- COVID-19ak gizartearen baitan jarraitzen duenez, **EGK Sendotzen**-en bidez egindako dei erronda denbora jakin baten buruan berriz egitea hausnartu da. Salbuespen egoerak sorrarazitako arazo horiez gain, beste izaera bateko arazoak ere ugaritzen ari dira elkartearen artean (finantzaketa arazoak, funtzionamendu arazoak...) eta EGK-k informazioa eta laguntza eskaintzen jarraitu beharko du.

4.2 Aholkularitza

4.2.1 Gazte eragileei aholkularitza eta partaidetza sustapena:

Aholkularitzan bi atal desberdindu daitezke: lehenik gazte eragileei eskainitako aholkularitza eta partaidetzaren sustapena; eta bigarrenik, EGKren kide izateko aholkularitza.

Lehenengoari dagokionez, 2020an gazte zein gazte elkarte desberdinei aholkularitza eskaini zaie, aurten zoritxarrez aholkularitza horietako gehienak COVID-19ak eragindako ezegonkortasun egoera horri aurre egitera bideratu dira.

Bestetik EGK-k gazteen partaidetza sozialean sakontzeko buruturiko zenbait ekimenetan parte hartu da partaidetza lan-arloaren bidez.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Partaidetza arloan edo beste gairen baten gainean gazte elkarte edo norbanako batek dituen galderen inguruan aholkatzea eta laguntzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazte zein eragile desberdinek antolatzen dituzten hitzaldi edo ekimenen dinamizazioan laguntzea.
- Partaidetza eta boluntarioritza sozialaren balioa gazteen artean zabaltzea.
- Euskadiko Gazteen partaidetzaren inguruan hausnartzea.

Garapena

EAEn gazte eragile desberdinek EGK-ko lantaldearen aholkularitza jaso dute gai desberdinen inguruan (astialdia, enplegua, formakuntzak, etxebizitza...). Aurten ordea azpimarragarria izan da COVID-19aren eraginez sortutako arazoaren aurrean soluzioak bilatzeko elkarte desberdinek egindako dei kopurua, batez ere hezkuntza arloan.

Aurrez aipatu bezala, COVID-19aren aurrean elkarteak laguntzeko aholkularitza zerbitzu berezitua martxan jarzteak asko lagundu du eskaera hauen bideraketan. Aurten guztira EGK-ko hiru bulegotan lan-arlo desberdinei loturiko 53 aholkularitza zerbitzu burutu dira eta COVID-19aren albo kalteei erantzuteko burutu diren zerbitzuak ere 50 inguru izan dira. Azpimarragarria izan da 2020. urtean gazte elkarteak nola sortu laguntzeko eskaini diren aholkularitza zerbitzuak, beste urteetan 3-4 inguru egin izan badira, aurten 12 aholkularitza zerbitzu eraman dira aurrera.

COVID-19aren eraginez sortutako eskaeren aurrean oso garrantzitsua izan da hezkuntzako lan-arlotik aurrera eraman den aholkularitza eta elkarten segimendua. 2020. urtean berriz ere EGKtik kudeatu diren eskaera gehienak hezkuntza arlokoak izan baitira.

EGK-k eragile bezala parte hartutako ekimenak partaidetza arloan:

Urte osoan zehar: Eusko Ikaskuntzaren mendeurrenaren harira 2018an martxan jarritako gazte dinamikari jarraiki EGK-k, Eusko Ikaskuntza, Nafarroako Gazteriaren Kontseilua eta Iparraldeko gazteekin batera **Gazte Agora** proiektua burutzen jarraitzen du. Iruñea, Donostia eta Baionan burutako topaketetatik ateratako txostenaren sozializazioa nola burutu aztertzen (administrazioei nola aurkeztu txostena, elkarteei edo komunikabideetan nola agertu...) dihardu koordinazio taldeak. Gainera, proiektua biribiltzeko egin nahi den lurraldez gaindiko topaketa nola burutu hausnartzeko prozesua irekita dago urtea amaitze aldera. Hau dena egikaritzeko talde motorrean parte hartzen du EGK-k.

Uztaila-azaroa: Gasteizko Udalak COVID-19aren etorreraren ostean, Gazte Plana birplanteatu eta politikak pandemiaren egoera berrira moldatzeko prozesua jarri zuen martxan uztailean Gasteizko zenbait eragileren laguntzarekin. Prozesu guztian zehar, Gazte Planak erantzun beharko lituzkeen lehentasunen inguruko hausnarketa lan bat egin zen eragileekin, tartean EGKrekin. Bertan bildu eta landu dira Gasteizko Udalarekin lan-arlo guztietatik Gazte Planaren berregituraketa horretara bideratutako ekarpenak.

Azaroa-abendua: Azaroak 20 eta abenduak 5 bitartean ospatu da Euskaraldia. EGK-k bertan arigune bezala parte hartu du.

Ebaluazioa

- COVID-19ak erabat baldintzatutako urtea izan da 2020a. Honen aurrean elkarte zein norbanako guztien galdera eta eskaerak erantzuteko gai izan da EGK. Aspektu hori positiboki balioetsi behar bada ere, **EGK Sendotzenen** gertatu bezala, ezinezkoa izan da eskaera guztiei soluzioak bilatzea. EGK-k arazo horien aurrean zubi-lana burutu du administrazioa eta elkarteen artean.

4.2.2 EGKren kide izateko aholkularitza

Partaidetza lan-arloaren funtzioetako bat da gazte elkarteei EGKn sartzeko aukera helaraztea. Horretarako bi bide daude, elkarteak eskaera egitea edota EGK-k elkartearen garrantzia identifikatu eta gero, EGKn sartzeko eskaintza egitea.

Elkarteei begira kide izateko bi modu daude: Eskubide osoko kide izatea edo kide sogilea izatea. Eskubide osoko kidea den elkarteak, Batzorde Iraunkorreko kide izateko eskubidea dauka baita Batzar orokorrean hitz egin eta bozkatzeko eskubidea ere. Sogilearen kasuan, Batzarrera joan eta hitz egin dezake baina ezin du bozkatu ezta Iraunkorraren parte izan.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Ahalik eta eragile gehien erakartzea EGKra eta horrekin gero eta EGK eraginkorrago bat eraikitzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK arlo desberdinetako gazte elkarteetara zabaltzea.
- EGKren lana zabaltzea eta elkarren arteko harremanak indartzen laguntzea.

Garapena

Hau guztiaz gain, laguntza eske gerturatu diren elkarteei EGKra sartzeko informazioa eman zaie. EGKn aholkularitza jaso eta gero kide diren elkarten zerrenda [webgunean dago](#). 2020an Kontseiluan sartzeko aholkularitza jaso duten EAEko elkarteak hurrengoak izan dira:

- Darkum gazte elkarte
- Dragoi Txikia gazte elkarte
- ESN elkarte
- Errotik kooperatiba feminista

Ebaluazioa

- Aholkularitza jaso duten elkarte guztiekin elkarlanerako bideak ireki dira, tartean horietako batzuek EGK-ko lantalde desberdinetan parte hartzeko asmoa azaldu dute. Errotik-ek EGK-ko **Gaur8** lantaldean dihardu lanean, ESN elkarteak **Hezkuntza Foroan** eta Darkum gazte elkarteak bakea eta bizikidetzat lantzen den topaketa eta espazioetan.
- Kudeaketa administratiboak tarteko espero da 4 elkarteak 2021eko martxoan burutuko den Batzar Orokorraren ostean EGK-ko kide berri bihurtzea.

4.3 Euskadiko Gazteak Lankidetzan Programa

EGK-k Euskadiko gazteen partaidetza sustatzeaz gain, Euskadiko gazteriaren artean elkartasun balioak sustatzen dihardu bere sorreratik. Hau horrela, **Euskadiko Gazteak Lankidetzan (EGL)** programaren egikaritzean eta sustapenean parte hartzen du urtero.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGLren deialdian parte hartu duten gazteen hautaketa egitea eta horiei garapen bidean aurkitzen diren herrialdeetan lankidetzara lana burutu ahal izateko behar duten informazioa ematea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK ezagutaraztea.
- Profil anitzeko gazteak ezagutu eta beraiekin elkarlanerako bideak irekitzea.
- Euskadiko gazteriaren partaidetza soziala sustatzea.

Garapena

1993an sortu zenetik, Eusko Jurlaritzak antolatzen duen **Euskadiko Gazteak Lankidetzan programak** 2000 euskal gaztetatik gora bidali ditu munduko zenbait tokitara borondatezko lankidetzara lanak egitera. Aurten ere EGK-k EGL-ko hautaketa batzordean parte hartu du.

Hautaketa prozesua:

Urtero bezala hautaketa prozesuak 3 fase zituen. Martxoaren 5ean Hautaketa Batzordeak Lakuan burutu zuen hautaketa prozesuaren lehen fasea. Hilabete berean COVID-19aren etorrerak ezinezko egin zuen hautaketa prozesuarekin jarraitzea, azkenean Eusko Jurlaritzak programaren 2020ko edizioa bertan behera uztea erabaki zuen. **EGL**-ko koordinatzaileak eman zion EGKri Eusko Jurlaritzaren erabakiaren berri apirilaren 15ean.

Ebaluazioa

- Programak Euskadiko gazteen partaidetza eta boluntariora sustatzeko duen garrantzia oinarrian, COVID-19aren gainetik EGKtik ahal den guztia egin da denbora gutxiren buruan horrelako programa bat berriz ere martxan jartzeko eta beronen garapenean eta zabalpenean laguntzeko.

4.4 Deusto GazteaGo

Deustuko Unibertsitateko Cities Lab Katedrak martxan jarri duen proiektu bat da **GazteaGO**. Oinarria gazterian jarriaz, beraien errealitate eta ikuspegitik hirien erakargarritasuna eta praktikotasuna bezalako ezaugarrien gaineko azterketa bat egitea du helburu.

Proiektua Gasteiz eta Bilbon garatu da. Gazteen perspektiba eta nahiak identifikatzeko bide horretan proiektuarekin bat egin du EGK-k. **GazteaGo** aurrera eramateko Bilbo eta Gasteizen sortu diren bi talde motorretan parte hartu du EGK-k.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteen hausnarketa eta nahiak biltzeaz gain prozesuan zehar gazte perspektiba txertatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Kontseilu bezala proiektuaren gaineko ekarpenak egitea.
- Proiektuaren zabalpen eta sozializazioan laguntzea.
- Etorkizuneko Gasteiz eta Bilbo gazteekin batera birpentsatzea.

Garapena

Proiektu hau Gasteizko Udalarekin zein Bilboko Udalarekin burutu da. 2019an proiektuaren oinarriak eta datak zehazteaz gain, prozesuaren oinarria zen inkesta egin zen bi hiriburuetako gazteen iritzi eta nozioak jasotzeko. Horren ostean, 2020. urtea galdetegiaren kontrastea egiteko urtea izan da. Horretarako Open Space dinamika-metodologia zehatz bat erabiltzea aurre diseinatu zen, galdetegiaren gainean Gasteiz eta Bilboko gazte zein gazte eragileen arteko eztabaida sustatu eta ekarpen zehatzak bilatzeko.

Gasteizko GazteaGO prozesua eta datak:

Otsailak 26: Bileran Cities Lab Katedrako kideak, Vital Fundazioko arduradunak, udal teknikariak eta EGK bildu ziren. Inkestak emandako emaitzen inguruko azken hausnarketak landu ostean, datu horien kontrastea egiteko metodologiaren inguruko azken zehaztasunen inguruan hitz egin zen.

Martxoak: COVID-19ak hasierako asmo zein metodologiaren erabilera kolokan jarri zituen. Hau horrela, galdetegiak emandako datuen kontrastea egiteko zein modu edo espazio sortu erabakitzeko bilera telematikoa bat egitea adostu zen.

Apirilak 20: Talde motorrak egoeraren ebaluazio orokorra egin zuen, eta erabili beharreko metodologia ezin zenez oraindik martxan jarri kontraste saiakera irailera atzeratzea erabaki zuen.

Iraila: Egoera hobetzen ez zenez, berriz atzeratzeko erabakia hartu zen.

Urria-Azaroa: Open Space-tan oinarritutako metodologiaren ordezkari topaketa formatu telematikoa egiteko erabakia hartu zen.

Azaroak 24: Gasteizko **GazteaGO** topaketa telematikoa ospatu zen. Topaketak bi zati nagusi izan zituen:

- Lehen zatia (Gazteekin lanean diharduten Gasteizko eragileak): Katedrako kideek galdetegiaren hausnarketa eta datuen inguruko galderak luzatu zizkieten hiriko eragile eta elkarte desberdinei, beraien hausnarketa eta ekarpenak biltzeko. Talde txikiak egin eta gela birtualetan Gasteizko gazteentzat etxebizitza arloan, aisian, enplegu arloan eta beste zenbait aspektutan hiriak duen eskaintzaren inguruan eztabaidatu zuten elkarte desberdinetako kideek.
- Bigarren zatia (Gasteizko Gazteak): Katedrako kideek galdetegiaren hausnarketa eta datuen inguruko galderak luzatu zizkieten hiriko gazteei. Ostean taldeak egin ziren eta gela birtualetan Gasteizko gazteentzat lehen aipatutako arloetan hiriak duen eskaintzaren inguruan eztabaidatu zuten elkarteek.

Bilboko GazteaGO prozesua eta datak:

Apirilak 21: Lehen bilera burutu zuten Cities Lab Katedrako kideek, BBK fundazioko arduradunak, udal teknikariak eta EGK-k. Inkestak Bilbon emandako emaitzen inguruko azken hausnarketak landu ostean datu horien kontrastea egiteko pentsatuta zegoen metodologia martxan jartzeko zeuden ezintasunak ikusirik, Bilbon ere kontraste topaketa atzeratzea erabaki zenk. Bertan formatu telematikoaren bidez aurrera egiteko aukera aztertu zen.

Iraila: Egoera hobetzen ez zenez, kontrastea modu telematikoan egiteko prozesura martxan jarri zen.

Azaroak 16: Bilboko **GazteaGO** topaketa telematikoa ospatu zen. Topaketa bi zati nagusi izan zituen:

- Lehen zatia (Bilboko gazteekin lanean diharduten eragileak): Katedrako kideek galdetegiaren hausnarketa eta datuen inguruko galderak luzatu zizkieten hiriko gazte elkarte eta eragile desberdinei, beraien hausnarketa eta ekarpenak biltzeko. Horretarako taldeak egin ziren eta gela birtualetan Bilboko etxebizitza arloan, aisian, enplegu arloan eta beste zenbait aspektutan hiriak duen eskaintzaren inguruan eztabaidatu zuten elkarteek.
- Bigarren zatia (Bilboko gazteak): Katedrako kideek galdetegiaren hausnarketa eta datuen inguruko galderak luzatu zizkien hiriko gazteei, beraien hausnarketa eta ekarpenak biltzeko, horretarako taldeak egin ziren eta gela birtualetan Gasteizko gazteei etxebizitza arloan, aisian, enplegu arloan eta beste zenbait aspektutan hiriak duen eskaintzaren inguruan eztabaidatu zuten elkarteek.

Hemendik aurrera kontraste horretatik ateratako hausnarketa eta proposamenak landuko dira elkarlanean. Bilbon zein Gasteizen etorkizunean egingo diren politketan bi prozesuek emandakoa txertatzen joatea da helburua.

Ebaluazioa

- Gasteizen kasuan, COVID-19aren eraginez prozesuak behar baino gehiago iraun badu ere gazteen partaidetza sendo batekin amaitu da prozesua.
- Hiri erakargarriagoak egiterako bidean identifikatu dira gazteak ezinbestekoak ikusten dituzten zenbait gako. Batetik aisia eta jarduera ekonomiko berrien sustapena ezinbestekoa ikusten da eta norabide horretan oso premiazkoa enplegu mota desberdinak ugaritzeko saiakera egitea. Hiriaren kutsu industrialari berrikuntza kutsua gehitzeko lan egin behar dela azpimarratu zen.
- Bilboren kasuan, COVID-19aren eraginez prozesuak behar baino gehiago iraun badu ere, azken zatia telematikoki eginda partaidetza garrantzitsu batekin amaitu da prozesua. Hiri erakargarriagoak egiterako bidean, identifikatu dira gazteak ezinbestekoak ikusten dituzten zenbait gako, aisi ereduari buelta bat ematea, auzoeretara jeitsi eta aisiaren bidez inklusioa lantzea administrazioaren marko eta funtzionatzeko moduak malgutuz. Bestetik etxebizitza politiketan gazteen perspektiba txertatzea, gazteria bere egiten duen etxebizitza politika bat aurrera eramateko.
- EGKtik positiboki balioesten da beraz Bilbo zein Gasteizko prozesuek eman dutena. Orain ateratako ideia ekarpen eta proposamenak bildu eta lantzeko ordua da.

4.5 Gizarte Aldaketarako Herritartasuna

ALBOAN gobernu kanpoko garapenerako erakundearekin elkarlanean EGK-k Deustuko Unibertsitateko **Gizarte Aldaketarako Herritartasuna** irakasgaian laguntzaile moduan parte hartu du.

Unibertsitateko fakultate guztietako ikasleek aukeratu dezakete irakaskai hau bigarren lauhilekoan (Otsaila-Maiatza). Irakasgaian izena emandako gazte talde bat aholkatzea izan da EGKren lana.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Deustuko Unibertsitateko ikasle talde bat aholkatzea herritarren partaidetzaren inguruko eragin plan txiki bat baten diseinuan, garapenean eta ebaluazioan.

HELBURU ZEHATZAK:

- Euskadiko gazteen partaidetza sustatzea.
- Partaidetzaren garrantzia ikasleei helaraztea.
- EGKren sozializazioan laguntzea.

Garapena

Irakasgaia gainditzeko eragin plan bat diseinatu eta garatu behar dute taldeek. Aurten pasa den urtean bezala ALBOAN-eko proiektuaren koordinatzailearekin otsailaren 26an buruturiko bileran adostu zen ikasleei eragin plan hori egitea baino EGK-ko proiektu batean parte hartzeko aukera eskaintzea. Aurkeztu beharreko lana, proiektu horren inguruko balantze eta memoria bat egitea izango litzateke.

Proiektua aurrera eramateko data otsaila eta maiatza bitartean zen. Martxoan konfinamendu osoa ezarri zenean, partaidetza teknikaria ikasle taldearekin batzartu zen telematikoki egoeraren balantze orokorra egiteko. EGK-ko proiektu asko bertan behera geratu baitziren konfinamenduaren ondorioz.

Hau horrela, COVID-19a zein konfinamendua gazteengan eta ikasleengan edukitzen ari zen eraginaren inguruan hitz egin ostean ikasleekin, telematikoki aurrera eramatea posible zen proiektu bat egitea adostu zen.

Proiektuaren egituratzea eta prozesua:

Martxoak 26: Zabaldutako nahi zen galdetegi hori nola egin eta nola zabaltu aztertzeko bilera telematikoa egin zen eta bertan lanak banatzeaz gain, ikasle taldeak zituen galderak erantzun zituen partaidetza teknikariak.

Apirilak 2: Ikasleek bildutako informazioarekin galdetegia izango denaren lehen zirriborro baten oinarriak adostu eta ikasleen galderak erantzun zituen partaidetza teknikariak bilera telematikoa.

Apirilak 14: Galdetegiaren zirriborroa biribiltzeko bilera telematikoa egin zen. Galdetegiaren zabalpenerako estrategia adostu zen ikasleekin eta azken ekarpen posibleak proposatu ziren.

Apirilak 21: Azken ekarpenak gehitu eta galdetegi orokorra sortu zen zabalpenerako prest.

Apirila:22: Galdetegia zabaldu zen.

Apirila amaiera-maiatza: Galdetegiaren erantzunak jaso eta ostean jasotako erantzunetatik COVID-19ak eta konfinamenduak ikasleengan izandako inpaktua neurtzeaz gain unibertsitatean egoera hobetzeko neurri posibleak biltzen zituen txosten bat egituratu zen ikasleekin.

Ebaluazioa

- Konfinamenduaren eraginez ikasleek proiektu konkretu batean parte hartzea lortu ez bada ere, egoeraren zailtasunak gainditzeko proiektu bat garatu da ikasleekin. Finean partaidetzak beraien bizitzak hobetzeko aukera eskaintzen duela demostratu dute ikasleek. EGKtik beraz balorazio positiboa egiten da aurrera eramandako esperientziaren aurrean.
- Egoerak hobera egiten badu, EGKren asmoa ikasleak EGKn martxan daude proiekturen batean murgiltzea izango da 2020-2021 ikasturtean.

4.6 EGK-ko elkarten topaketa

EGK Sendotzen proiektuaren helburuari jarraiki, EGKren barneko elkarten arteko harremanean sakontzen jarraitu nahi izan da elkarten topaketa honen bidez. Norabide horretan eta saretze horretan sakontzeko, 2020an EGK-ko elkarte guztiak biltzeko topaketa bat egitea diseinatu zen elkarteek beraien esperientziak, proiektuak edo formakuntzak trukatzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-ko elkarteen elkar ezagutzarako eta elkarlanerako espazio bat bihurtzea topaketa.

HELBURU ZEHATZAK:

- Elkarrekin desberdinen proiektuak ezagutzea.
- EGK-k elkarteei eskaini diezaieken guztia sakonago azaldu eta erakustea.
- EGK-k etorkizunera begira dituen erronken inguruko hausnarketa espazio bat sortzea.
- Esperientziak elkarbanatzea.

Garapena

Elkarteen topaketa honek espazio fisiko batean elkarrekin guztiak elkartu eta bertan sorturiko interakzio eta hausnarketatik abiatuz elkarteen kohesioa bilatu nahi zuen.

Asmoa hori izaki, osasun krisiak eragindako konfinamendu neurriek ezinezkoa egin zuten topaketa hasiera batean pentsatuta zegoen bezala egitea. Hori horrela, berau beste modu batera egiteko (telematikoki, lurraldeka...) hainbat bide aztertu dira, baina bide horiek ez dute ostean elkarteen artean benetan sortu nahi den interesik piztu, beraz egoera honetan topaketa atzeratzeko erabakia hartu da.

Ebaluazioa

- Konfinamenduko neurriak ezartzeak erabat baldintzatu du proiektuaren garapena. EGK-k baldintza berri hauetan izaera honetako topaketa bat nola egin aztertzen jarraitzen du. Hau horrela izaki, egoera hobe batean topaketa hau ospatzeko asmoa du EGK-k.

4.7 Material eta gelen lagapena

EGKren material eta gelen lagapen zerbitzua gazte talde eta partaidetzako ekimen ezberdinei eskaintzen zaie. Zerbitzua hobetzeko prozedura estandarizatua 2015an abiatu zen eta ordutik EGK-ko partaidetza arlotik kudeatzen da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren elkarteei eta beste eragileei gelak eta materialak maileguan eskaintzea, gazte elkartegintzarekin eta eremu parte-hartzaileekin harremanak sortuz.

HELBURU ZEHATZAK:

- Hiru bulegoetako materialak eta gelak lagatzea.
- Indarrean dagoen prozedura estandarizatua jarraitzea eta berritzea.
- Egindako lagapenei jarraipena egitea eta zerbitzua bultzatzea.
- Lagapenaren bitartez harremanak eta elkarrekiko konfiantza sortzea, EGK eta gazte eragileen arteko sarea eraikiz.

Garapena

Zerbitzuaren onuradunak EGKren parte diren eta ez diren elkarteak izan dira. Materialak edo gelak maileguan hartzeko gazte eragileek edota gazteek webgunean dagoen formularioa bete behar dute. Behin hori eginda, EGK-ko partaidetza teknikaria harremanetan jartzen da eskatzailearekin lagapena zehazteko. Webgune berrian formularioaz gain, materialen katalogoa, gela edota materialak eskatzeko jarraibideak eta fidantzen zerrenda eskuragarri daude.

Aurten ere maileguan ematen diren materialak eta gelak jarraipen orri batean apuntatu dira. Prozedura estandarizatu honi esker zerbitzuaren kalitatea hobetzen doa urtero. COVID-19aren etorrerak sorrazitako osasun krisiaren aurrean, eskaintzen zen zerbitzuaren gaineko protokolo

bat martxan jartzea erabaki zen. Hau horrela, gazteen zein langileen osasuna arriskuan jarri gabe eta protokoloa jarraituz eraman dira aurrera martxotik aurrera eman diren zerbitzu guztiak.

Horietako batzuk bertan behera geratu dira, langileen zein gazteen osasuna bermatzea ezinezkoa ikusten zelako.

2020an elkarte hauen eskaera erantzun du EGK-k EAEn:

- 2020/01/30 My Way gazte kooperatiba
- 2020/02/05 Aiesec gazte elkarte
- 2020/12/02 ESN Bibo
- 2020/02/17 Aizkorri eskaut taldea.
- 2020/02/21 Euskal Interkultura
- 2020/02/27 ESN Bilbo
- 2020/03/02 ESN Bilbo
- 2020/03/11 Euskarabentura
- 2020/06/19 Euskarabentura

Ebaluazioa

- 2015ean martxan jarritako prozedurari esker zerbitzu honen kudeaketa ona izan da, bai EGKrentzat, bai eskatzaileentzat. Zentzu honetan, lagapen guztietan fidantzak jaso eta itzuli dira. Lan hau Idazkaritzarekin elkarlanean egin da.
- COVID-19aren eraginez materialen lagapen zerbitzu asko ezin izan dira gauzatu. Hala ere, EGK-k oso positiboki balioesten du egoera honen aurrean elkarteek izandako jarrera ulerkorra. Pandemiak dirauen bitartean segurtasun neurriak eta protokoloa kontuan izanda zerbitzua eskaintzen jarraituko du EGK-k.

4.8 Gobernu irekia (OGP)

Eusko Jaurlaritzak, hiru Foru Aldundiek eta hiru hiriburu-udalek proiektu berri baten parte izatea erabaki zuten. Badira bi urte **Gobernu Irekiara (OGP)** aurkeztu eta hautatuak izan zirela. Proiektu hau aurrera eramateko foro ezberdinak sortu ziren partaidetza, gardentasuna eta gobernu irekiagoak eraikitze konpromiso ezberdinak landuz. Horietako bat Foro Erregularra da, bertan hiru administrazioetako ordezkariak daude eta baita gizarte zibileko ordezkariak ere, tartean EGK. Azken hauen papera, gizartearen interesak zein beharrak identifikatzea da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Eragin politikoa izatea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteen iritzia erabaki gunetara hurbiltzea.
- Gazte ikuspegia eta perspektiba txertatzea.
- Eguno partaidetzaren inguruan gazteek duten perspektiba mahaigaineratzea.

Garapena

2018. urtean **OGP**-aren Foro Erregularrak eta beronek sustatutako zenbait espaziok konpromiso desberdinak (Partaidetza I-Lab, Open Eskola, zuzentasuna, Open Data Linked data, kontu-eremateak) betetzeko plana garatu zen.

2020an Partaidetza arlotik OGParen barnean antolatutako bileretan egindakoaren informazioa:

Foro Irekiaren baitan Open Eskola konpromisoaren barruan 2018tik udal gobernantza eredu garden eta parte-hartzaileagoak bilatzeko bidean, Europako esperientzia desberdinak aztertuta eta topaketa desberdinetatik ateratako adibide eta aspektuekin Open Eskola gida egituratzeari ekin zitzaion. Gida horren lehen eredu bat prestatu ostean 2019-2020 bitartean horren baliagarritasuna neurtzeko 3 proiektu pilotu jarri dira martxan:

- Bilboko Udala
- Añanako Kuadrilla
- Tolosako Udala

Topaketa:

Hiru udal hauek Open Eskolaren gidari jarraiki egindako bilakaera aztertzeko topaketa bat burutu zen ekainaren 10ean. Bertan EAEko administrazioetako politikari zein teknikariek, gizarte zibileko arduradunek eta OGPko koordinatzaileek parte hartu zuten topaketan.

3 udalen esperientziak aztertzeko topaketa telematikoan gela birtual desberdinetan banatu ziren partaideak, gela bakoitzak esperientzia guztien inguruan hausnartu eta ekarpenak egiteko aukera eman zuen. Norabide horretan EGKtik [*Parte Hartzea European*](#) txostena oinarrian Gazte perspektibatik zenbait hausnarketa eta ekarpen plazaratu ziren.

Amaitzeko partaide guztiak gela orokor birtual batean elkartu ostean ekarpen eta hausnarketen bilketa bat egiteko dinamika berezi bat egin zen. Ostean jasotako ekarpenekin aurrera eramango zen prozesuaren berri eman zuten koordinatzaileek.

Ebaluazioa

- COVID-19aren agerpenak **OGP**aren helburuen errealizazioa atzeratu badu ere, Open Eskolaren eta modu orokorrean **OGP**aren baitan burutzen diren proiektuak aztertu eta ekarpenak egiten jarraituko du EGK-k. Topaketaren garapenean aipatu bezala, EGK bezalako eragileen garrantzia ezinbestekoa da izaera honetako proiektu hauetan gazte ikuspegia txertatzen dela bermatu dadin.

4.9 Egunerokoa

Teknikari bakoitzaren lan-arlotik kanpo, EGKren funtzionamendu egokia bermatzeko egin behar diren lanen artean, bilera, aholkularitza, egoitzako kudeaketa lanak, urteko proiektuen justifikazioa eta plangintzak burutu dira.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-ko beste lan-arloekin barne koordinazioa eta kanpo eragileekin harreman berriak eraiki ahal izatea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Egoitzetako kudeaketa lanak egitea.
- Memoriak eta hurrengo urterako plangintza egitea.
- Hedabideetan agertzea, hala eskatzen denean.
- EGKren barne antolakuntzarako bileretan parte hartzea.

Garapena

Egoitzako kudeaketa lanak:

Bulegoa eta materiala zaindu eta txukun mantendu, telefonoa artatu, bulegoko mantenuaz arduratu informatika, argiketaria, su itzalgailuaren mantenua etab izan dira urte honetan egindako lanak.

Ebaluazioa

- Partaidetza oinarrian EGK-ko beste lan-arloetako proposamenei baliagarriak diren balorazioak egiten jarraituko da.

5. BAKEA ETA BIZIKIDETZA

5.1 Etikasi programa

Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiarekin batera koordinatuta garatzen da proiektu hau. Honen helburua giza eskubideei buruz eta etikari buruz ikastea da. Horretarako, bidaia hezigarriak antolatu dira, Europan indarkeria luze jasan duten lekuak bisitatzeko. Bisitak Batxilergoko lehen mailako, Lanbide heziketako Erdi edo Goi Mailako Heziketa Zikloko edo Unibertsitateko lehen mailako ikasleen taldeei eskaini zaizkie. Proiektuan parte hartzeko alde zuretik lan bat egin behar izan da.

Bisitaren ostean, beste lanketa bat egitea aurreikusita zegoen Euskadin gertatutakoaren eta Europako leku horretan gertatutakoaren gaineko gogoeta kritiko bat egiteko eta ondorioak ateratzeko. COVID-19aren krisiak proiektua bertan behera utzi du 2020an.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Eusko Jaurlaritzako Bizikidetza, Giza Eskubide eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiarekin batera, **Etikasi** programaren bigarren deialdia aurrera eramatea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Proiektua aurrera eramateko beharrezkoak diren materialak prestatzea.

Garapena

Etikasi proiektuko bigarren deialdia aurrera eramateko urtea izan da 2020a. 2018 eta 2019ko diseinu eta proiektu pilotuaren ikasketak praktikan jarrita, bidai hezigarrien eta hauen aurreko formakuntzaren diseinua garatu zen urte hasieran.

Deialdia urtarilaren 30ean ireki aurretik Batxilergoko eta Lanbide Heziketako eskola ugariarekin harremana ireki zen, baita EAEn dauden lau unibertsitateetako irakasle eta arduradunekin ere. Honen helburua izen-emateak irekitzerako orduan informazioa ahalik eta gazte gehienengana

helaraztea izan zen. Behin deialdia irekita EAEko institutuekin harremanetan jarri da EGK, joan den urtean izen-eman zutenekin eta baita proiektua ezagutzen ez zuten beste batzuekin ere; Batxilergoko lehen mailako taldeek Auschwitzera bidaia hezigarria egiteko aukera izan zezaten.

Bestalde, Deustuko Unibertsitateko eta Euskal Herriko Unibertsitateko Ikasle Kontseilu eta irakasle desberdinen bitartez zabalpena egin zen bertako ikasleen artean, baita Mondragon Unibertsitatea eta Tecnumekoen artean ere. Unibertsitateetako Ikasle Kontseilu eta elkarte ugariren bidez zabalpena egin zen sare sozial eta email bidez, baita presentzialki **Etikasi** aurkeztuz ere. Komunikazioa, gizarte langintza, nazioarteko ikasketak edo gizarte hezkuntzako graduetako ikasleei aurkeztu zitzairen, besteak beste, **Etikasi** programa.

Unibertsitateen kasuan fakultate konkretu batzuen kasuan (EHU-ko zuzenbideko edo Bilboko Ingeniaritza Eskolaren kasuan, adibidez) fakultateko zabalpen sareak ere erabili dira, Graduako maila desberdinetako ikasleengana informazioa helarazteko. Beste kasu batzuetan, Deustuko irakasle batzuei esker, adibidez, Bilboko zein Donostiako kanpusetako ikasgeletan **Etikasi** aurkeztu zen, mementoan bertan ikasleen galderak eta zalantzak erantzuteko aukera emanez.

Komunikazio zabalpenean halaber, komunikabide ugarian erantzuna izatea lortu da, hala nola [irradi](#) zein [egunkari](#) eta idatzizko prentsan.

Zabalpen esfortzuari esker aurreko urteko izen-emate datuak hobetzea lortu da 2020an. Denera Batxilergoko 20 ikasgelak eta Lanbide Heziketa zein Unibertsitateko graduako 60 ikasle ingururen izen-emateak jaso dira. 2020ko deialdiko berrikuntza izan da Belfastera bidaiatuko zuten ikasleen kasuan, Unibertsitateko Graduako ikasleei zabaldu zaiela parte hartzeko aukera. Proiektu pilotuan unibertsitateko ikasleak lehen mailakoak bakarrik izan zitezkeen, baina 2020an Graduako ikasturte guztietako ikasleei zabaltzeko hautua egin da.

Parte-hartzaileen hautaketa prozesua garatuta, gazteei apirila eta ekainean eman beharreko bidaien aurretiko formakuntzaren diseinua garatu da. Honen helburua bidaietara joan aurretik gazteek dagoeneko hausnarketak egiten hastea zen. Honela, bidaiak ahalik eta gehien probesteko aukera izango zuten.

Formakuntza emateko epeak apirilaren amaiera eta maiatzaren hasiera ziren, eta bidaiak ekainaren 22tik 25era zeuden aurreikusita Auschwitzeko kasuan eta uztailak 6-10 Belfasteko kasuan. Formakuntzaren diseinuarekin hasi eta gutxira, ordea, COVID-19aren krisiaren ondorioz,

egoera Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzako Idazkaritza Nagusiarekin elkarlanean aztertu eta 2020ko **Etikasi** programa bertan behera uztea erabaki zen.

Ebaluazioa

- 2020an egindako zabalpen kanpainaren bidez batez ere lanbide heziketa eta unibertsitateko ikasle gehiagorengana iristea lortu da.
- Izen-eman duten gazteen erantzuna oso positiboa eta aberasgarria izan da, programarekiko interesa handitu da.
- COVID-19aren krisiak sortutako egoera gertatu ez balitz 2020ko **Etikasi** programaren erantzuna oso positiboa izan da.
- Zabalpena egiterakoan unibertsitateko fakultateetan zein lanbide heziketako Lanbide Heziketako irakasleengan interes handia egon da programarekiko.
- Batxilergoko talde berrien partetik interesa piztu da.
- Orokorrean esan daiteke publiko zabalagora iristea lortu dela 2020an, eta izen-ematean egin beharreko hausnarketak egiteko aukera ematea ere eskertu dute ikasle zein irakasleek.

5.2 Bake lantaldea

2015ean sortutako lantaldeari jarraipena emateko, 2020an talde honetara jende berria gehitzeko deialdia zabaldu da. Helburu nagusia, gazteen artean bizikidetza eta giza eskubideetan oinarritutako gizarte bat eraikitzeke egun dauden erronkak eta proposamenak identifikatu eta horien gainera gogoeta sustatzea da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteentzat gai hauei buruz hitz egiteko espazio erosoak sortzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gai berriei buruz hitz egiteko aukerak sortzea.
- Gazte eta administrazioaren arteko zubi lana egitea.

Garapena

EGK-k Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiarekin 2018-2020 urteetarako sinatutako lankidetzaren hitzarmenak dionez, honen helburu nagusia gazteak bizikidetzaren eta giza eskubideen aldeko kulturaren parte hartzeko eta hori zabaltzeko estrategia garatzea da. Indarkeriaren amaiera ordenatuarekin eta bizikidetzaren normalizazioari lotutako gaiak lantzen jarraitzeaz gain, datozen urteetan giza eskubideen agenda berriari lotutako gaiak ere jorratu nahi dira: migrazioak, errefuxiatuen egoera, berdintasun ezaren edo diskriminazioaren forma berriak, esaterako.

2020an lantaldearen bilera deialdia EGK-ko enplegu eta etxebizitza lan arloetako lantaldearekin batera egin da. **Emantzipa....zer?** eta Bake lantaldeek Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (RGI bezala ezaguna) eta Espainiako gobernuak sortu duen Bizitzeko Gutxieneko Diru-Sarrera landu dituzte, gazteen bizikidetzaren duen eragin zuzena aztertzeko eta baita enplegu eta etxebizitza arloetan izan dezaketen eragina aztertzeko.

Ebaluazioa

- Egun, bizikidetzaren eta giza eskubideekin lotuta, gizartean dauden erronkak identifikatzen jarraituko du lantaldeak.

5.3 Mugen mugetatik #IkusGaitezen: Gazte migratzaileekin etorkizunera begira

Askotarikoa da gaur egun EAEn bizi den gazte bakoitzak duen errealitatea. Zentzu honetan, bizipen eta egoera pertsonal zein errealek berebiziko garrantzia hartzen dute askotan. Hortik

abiatuz, EAEn bizi diren gazte migratzaileek daukaten errealitateaz eta testuinguruaz hausnartu nahi da gaiaren gainean sakontzeko tarte emanaz.

Honekin, lehendabizi gazte migratzaile direnek bizi duten errealitatearen argazki orokor bat egin nahi izan da. Hori aztertu ostean gizarteratze prozesuetan gazteen papera eta partaidetzan sakondu da, berau analizatuz eta ikustera emanaz. Gazte hauen parte-hartzea nolakoa den aztertu da, bai EGKren elkarrekin eta baita haratago ere. Migrazio prozesua bera bizi duten pertsonen eta zehazki gazteen testigantzak jaso dira. Gazteen testuinguruaren baitan akonpainamendu lana egiten dutenen egoera ere ezagutu da, baita norabide horretan lan egiten duten talde desberdinenak ere. Izan ere, asko eta asko dira norabide horretan lan egiten duten pertsona eta erakundeak.

Horretarako, Giza Eskubide, Bizikidetzak eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiarekin sinatutako hitzarmenean bizikidetzak sustatzeko eta bermatzeko egin beharreko pauso bat gehiago da proiektu hau, kasu honetan EGK-ko hezkuntza lan-arloarekin batera antolatutakoa.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EAEn bizi diren gazte migratzaileek gaur egun daukaten errealitatea lantzea, aztertzea eta ezagutzera ematea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EAEn bizi diren gazte migratzaileek gaur egun daukaten errealitatea lantzea, aztertzea eta ezagutzera ematea.
- Gizarteratze prozesuetan gazteen paperaren gainean sakontzea.
- Bizipen eta egoera pertsonaletatik abiatuz, gazte migrante bezala gizarrean topatu dituzten erronken gaineko ikuspegiak aurkezteak.
- Migratzaileak ez diren gazteek duten papera identifikatzea.
- Gizarreko biztanle, eragile eta gazte bezala, gazte hauei ahotsa eta ikusgarritasuna ematea.
- Gazteen eta migrazioari buruzko diskurtsoa eratzea eta berau zabaltzeko aukera izatea.

- Gazte hauen parte-hartzea nolakoa den aztertzea.

Garapena

Gazte migratzaileekin etorkizuna eraikitzeke bizikidetzaren baten alde egin behar da lan, eta horretarako orainetik martxan jartzea ezinbestekoa da. Zentzu horretan, gazteei protagonismoa ematea beharrezkoa da, besteak beste gaur egungo EAEko migratzaile asko gazteak direlako. Espazio desberdinetan egoten dira gazteak, kasu batzuetan espazioak partekatuz baina askotan ez direlarik elkar ikusten. EAEko aniztasuna erreala dela ikusita, gazte migratzaileekin batera etorkizunera begiratu nahi izan du proiektu honek, gazteak elkartzen diren (eta elkartzen ez diren) espazioak identifikatu eta bertako partaidetza nolakoa den aztertzeke.

Mugen mugetatik #IkusGaitzen: Gazte migratzaileekin etorkizunera begira topaketa irailaren 26an, larunbatean, ospatu zen Bilboko Hika Ateneoan. Eguneko egitaraua prestatzeko aurreko hilabeteetan zehar eragile desberdinekin harremanetan jarri zen EGK, bai hezkuntza lan-erlotik eta baita bakea eta bizikidetzako lan-erlotik ere. Honen helburua topaketa ahalik eta biribilena planteatzea izan zen, bi arloetako ikuspuntu desberdinak kontuan hartuz.

Hala, eta jakinda testigantzen garrantzia eta inpaktua azpimarragarria izan ohi dela orokorrean, topaketa bi ataletan banatzea erabaki zen. Lehen atal batean 4 pertsonaren testigantza ezagutarazteko plaza eman zen: Amaia Iguaran (Euskadiko GGKEen Koordinakundea), Fatimetu Zenan (IAS), Ayoub Zouairi (Asociación de Estudiantes Marroquíes de Euskadi) eta Bachari Labeidenak (IAS). Jatorri eta bizitza desberdinak izan dituzten 4 pertsonen testigantzak entzuteak, Euskadin dauden gazte migratzaile eta ez



migratzaileen arteko erlazioaren ikuspuntu desberdinak mahaigaineratzeko aukera eman du. Hizlariak elkarte desberdinetatik ekartzeak testigantza eta iritzi anitzagoak izatea ahalbidetu zuen halaber, eta baita gazte migratzaileen egoera eta parte-hartzea zein eta nolakoa den ezagutzeko ere.

Topaketan sortutako espazioa probestu zen testigantzek mahaigaineratutako gaiei jarraipena emateko. Ayoubek gazte marokoar bezala bere bizipenak azaldu zituen, eta baita Euskadiko Ikasle Marokoarren Elkarteko (AEMPV) kide bezala ikusi izan dituen gauzak ere. Beraien elkartearen kasuan, azaldu zuenez, unibertsitateko ikasle diren gazte marokoarren perfila dute elkartekideek, eta unibertsitate mailako ikasleekin lan egiteak goi mailako ikasketak egiten ari diren gazteen parte-hartzea nolakoa den ikusarazi die.

Fatimetu eta Bachari Juventud Activa Saharaui (JAS) elkarteko kide dira, eta beraien kasuan txikitan Euskadira iritxita izandako bizipenak partekatu zituzten, bata familiarekin etorri zelarik eta bigarrena bakarrik. Hona heldu eta hazten joan ziren heinean txikitan onartutzat zituzten bizitza baldintzak egokiak ez zirela ikusi zuten. Partaidetza espazioen beharra azpimarratu zuten, gazteak leku gutxitan elkartzen baikara eta horietako gehienak militantzian edo **#IkusGaitzean** bezalako topaketetan da.

Amaia Bilbon jaioetakoa da, bizitzan zehar militantzia desberdinetan eta kooperazio proiektu ugaritan parte hartu du. Atzerrian lanketa egitearen erakargarritasuna gazte askok ikusten dutela eta bertan parte hartzeko prestutasuna dutela onartu zuen, baina mahaigaineratutetako mezuetako bat izan zen kanpora joateko beharrik gabe hemen, etxean oraindik badagoela asko lantzeke. Gazteen partaidetza desberdina da gaiaren arabera, eta elkartzea ahalbidetzen duten espazioen beharra adierazi zuen besteak beste.

Horrelako espazioa sortua zegoela aprobetxatuz, ondoren parte-hartzaile zein hizlariak bi taldeetan banatu ziren beraien iritzia ere entzuteko.



Azpimarratzeko modukoa izan zen bertaratutako gazteen profil zein jatorria. Jatorri oso desberdinetako gazteak elkartu ziren, eta baita gazte migratzaileekin lan egiten duten eragileetako pertsonak ere (hala nola Ongi Etorri Errefuxiatuak, Bigite elkarteko hezitzaileak edo Emigrados Sin Fronteraseko gazte bat). Aniztasun honek bi taldeetan adierazitakoa mamitsua izan zedin ahalbidetu zuen, eta topaketaren amaieran gazte ugari eskerrak eman zituzten lehen aldia baitzen horrenbeste aniztasun izanda ahotso gazteena izan zelako. Are gehiago, zirraragarria izan zen ikustea nola topaketa amaitu ondoren ere isildu gabe hitz egiten jarraitu zuten beraien artean, ordura arte horrenbeste aniztasuna izan duen espazioren batean egoteko aukerarik izan ez dutenez aukera aprobetxatu nahi zutelako.

Ekitaldiaren bigarren atal honetan dinamika parte-hartzaile bat egin zen. Gazteei jatorri desberdineko gazteak non topatzen diren eta topatze ez diren espazioak identifikatzea eskatu zitzaizen, eta horren aurrean zer aldatu litekeen jardun ziren bi taldeak. Bi taldeetan Euskadin jaio eta hazitako gazteak eta gazte migratzaileak nahasi ziren, ahalik eta ekarpen aberatsenak jasotzeko asmoz. Mahaigaineratutako iritzi eta ekarpen batzuk harrigarriak izan ziren bertaratutako gazte batzuentzat, eta denek konfiantzazko espazio batean egoteak aprobetxatu zutela adierazi zuten benetan pentsatzen dutena esateko.

Besteak beste, migratzaile diren gazteek Euskadin jaiotakoekin alderatuta aisialdi espazioak ez dituztela partekatzen aipatu zen, kasu askotan aukera desberdinak dituztelako aisialdian parte hartzeko. Partaidetza ematen denean ere, hau desberdina dela mahaigaineratu zen bi taldeetan, eta adierazpen hau esanguratsua izan zen. Oinarrizko gauzak ziurtatuta ez dituen gazte batek beste espazioetan parte hartzeko aukerak murriztuak dituela adierazi zen. Harrigarria egin

zitzaien Euskadin jaiotako gazteei ere gazte migratzaileetako batzuek esan zutenean beraiek dagoeneko irain edo jarrera arrazistak normalizatuta dituztela, eta hemen bizitzeko jarrera horiek onartu eta bizitzarekin aurrera jaraitu behar dutela.

Jatorri desberdinetako gazteek elkar ikusi eta espazioak partekatzeko oraindik lan asko dagoela egiteko izan zen ondorio orokorretako bat. Helburu hori lortzeko eskolaren eta etxeko espazioen garrantziaz jardun zen, eskolan txikitatik aniztasun hau normalizatzea beharrezkoa delarik, baina hori bakarrik eginda emaitza ez da magikoki emango. Etxean gazteekin egiten den lanketa ere garrantzitsua da, bertan transmititzen diren balio eta mezuek eskolan erakutsitakoari aurre egiten badie askotan bizikidetza erreala izatearen helburua ezerezean gelditzen baita.



#IkusGaitezen lehen pauso bat izan zen bertaratutako gazte askorentzat. Amaieran askok eskertu zuten, bai 4 hizlariak eta baita entzuten egondako beste gazteek ere, honelako espazio anitza sortu izana. Beste egoera batzuetan beti pertsona berdinak topatu ohi direla kritikatu zuten, militantzian pertsona berdinekin koinziditu ohi dutelako. Baina honelako espazioa berria izanik EGK-k aukera eman zuen elkarte desberdinetako gazteak ordura arte ezagutzen ez zituzten gazteekin lantalde batean batera jartzeko.

Irailak 26an landutako esperientziak, eskaerak, iritziak... jaso eta txosten formatuan argitaratuko dira, Euskadiko egoeraren muralean informazio gaurkoratu gehiago eta gizarte interkultural baten alde aurrerapauso bat gehiago emateko. Halaber, topaketaren ondorio nagusiak jasotzen dituen bideo bat ere egingo da etorkizunera begira material grafiko bezala erabiltzeko ondorioak jaso eta zabaltzeko.

Ebaluazioa

- Topaketaren ebaluazio orokorra oso positiboa izan da. Lehen aldia da jatorri horren desberdineko horrenbeste gazte elkartu direla. Beraiek egindako balorazioa ere oso baikorra izan da, oso gustora egon zirela adierazi zuten. Mahai inguruan hizlari bezala egondako 4 pertsonak ere esker ona adierazi zuten antolaketa egin izanagatik eta beraien esperientzi zein elkarteen ikuspuntuak partekatzeko aukera emateagatik.
- Topaketaren helburuetako bat bertaratzen ziren gazteen artean aniztasuna bermatzea zen (migratzaileak eta EAEn jaioetakoak, lehen eta bigarren belaunaldiko etorkinak, ikasten eta lanean dauden gazteak...) eta profil hori duten pertsonak egon ziren **#IkusGaitzen**-en.
- Eragile ugariarekin gaia lantzea beharrezkoa zela ondorioztatu zelako antolatu du EGK-k topaketa hau, eta bertaratutako pertsonak hipotesi hau berretsi zuten. Honelako espazioak sortzen jarraitu behar da, poliki-poliki bada ere anistazun hau lantzeko eta batera bizi diren gazteen arteko elkar ezagutza sustatzeko. Adierazgarria da plazak bete izana, honelako gaiak lantzeko interesa dagoela adierazten du.

5.4 Gazteak eta bakea mahai-inguruak



Baketik erakundeak memoria, bakea eta bizikidetzat landu ditu EAEko udalerri desberdinetan. Horretarako, udaletxeekin herri bakoitzean gerturikoaren azterketak egiteaz gain, mahai-inguru eta ekitaldiak antolatzen dituzte herritarrekin memoriaren gaiari buruz hitz egiteko.

Honen harira, gazteen ikuspuntua eta ezagutzak jakin eta mahaigaineratu nahi dituzte eta, horretarako, EGKri Euskadiko ekitaldi desberdinetan parte hartzea eskatu zioten 2020an Iker Uson ikertzaile eta irakaslearekin batera.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteek memoriari buruz dakitena jakinaraztea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-k gazteekin memoriari buruz egindako lanketak zabaltzea.
- EGK eta lan-arlo honetan egindako lana ezagutaraztea.

Garapena

Topaketa hauetan gazteen eta bakearen arteko hausnarketez solastatzen da, baita memoriaren transmisioaz eta gazteentzako bakeari buruzko gaiak lantzearen garrantziaz ere, besteak beste. Topaketa hauen bitartez, EGK-k azken bost urteetan egindako lanetik ateratako ondorioak aurkezten zaizkie bertaratutakoei, baita proiektu desberdinetan atera diren paradoxa edo galderak eta eskaerak ere.

Gazteek dakitena, ez dakitena eta jakin nahiko luketena izan da aurten jorratu beharreko gaietako bat, baita bakearen eta gatazkaren inguruko gaiei buruzko transmisioa jakintza. Transmisioaren beraren garrantzia ere abiapuntu da **Gazteon Aukera** dokumentala edo **Etikasi** bezalako proiektuetatik ateratako ondorioak ezagutarazteko. Transmisio horren eza eta isiltasunen esanahia ere lantzea da helburu topaketan, gazteekin landutako eta mahaigaineratutako transmisio mota desberdinak jorratuz.

2020ko topaketak, besteak beste, Legazpiko udalarekin elkarlanean egitea planteatuta zeuden. COVID-19 pandemiak ordea topaketak bertan behera utzi ditu.

Ebaluazioa

- COVID-19aren krisiagatik 2020ko topaketak bertan behera uzteak EGKren lana ezagutaraztearen eta gazteek memoriari buruz dakitenaren ondorioak zabaltzeko helburua etorkizunerako uztera behartu du.

5.5 *Gazteon Aukera* dokumentalaren difusioa



2014-2016 urtetan bake hitzarmenaren baitan burututako proiektuetan gazteek egindako ekarpenak instituzioei, komunikabideei eta gizarteari helarazteko helburuarekin **Gazteon aukera** dokumentala prestatu zen. 2018an zehar materialaren zabalpenarekin hasi zen arren (zinemaldiak, telebista, kongresuetan aurkezpena...), dokumentalak erakusten duen informazioa zabaltzen jarraitu da 2020an.

Helburua

HELBURU OROKORRA:

EAEko gizartera dokumentalean jasotako informazio eta ondorioak helaraztea, baita EGKren lana orokorrean ere.

Garapena

Dokumentalaren zabalpenarekin jarraitzeko, berau **Etikasiko** formakuntza saioetan erabiltzea aurreikusi zen. Bakeari buruz gazteek duten iritzia entzuteak batez ere lehen formakuntza saioko urduritasuna apurtzeko balio du, eta aldi berean, gaian sartzen hasteko.

COVID-19aren ondorioz **Etikasi** bertan behera gelditu den heinean, dokumentalaren zabalpenak ere zailtasunak aurkitu ditu. Horiek horrela, dokumentalaren zabalpena moldatu eta dokumentalaren informazioa jasotzen duen *Gazteak eta Bakea* liburua hedatzeko aukera probestu da. Horretarako, *Gazteak eta Bakea* liburuaren hirugarren edizioa inprimatzeko aukera izan du EGK-k 2020an, urtean zehar egindako proiektuetan liburua erabiltzen jarraitu delako.

Ebaluazioa

- Dokumentalaren difusiorako bide berrien azterketa egiten jarraitu da.

5.6 #HistoriaOsatzen Ikasketa Komunitatea

Deustuko Unibertsitateak bertako ikertzaile desberdinekin Etika Aplikatuko Zentro bat dauka eta bertan egiten diren ikerketetan gazteen ezagutzak eta ikuspuntuak kontuan hartu nahi dira. Euskadin azken hamarkadetan jazotakoaz gazteek dakitena eta jakin nahi dutena aztertu nahi da proiektu honen bitartez, betiere historiaren irakaspenaren ikuspuntutik. Horretarako, 2019an diseinatu eta martxan jarri zen **#HistoriaOsatzen Ikasketa Komunitatea**.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Hilabetero egiten diren saioetan kalitatezko parte-hartzea sustatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Ikasketa Komunitatearekin jarraitzea.
- Gazte parte-hartzaileek mahaigaineratzen dituzten galderak, hausnarketak eta lan ildoak jasotzea.
- EAEko gazteek jakin nahi dutena ezagutzea, gai konkrituak landuz eta baita zeharkakotasuna duten beste arlo batzuk ukituz.

Garapena

Urtarrila eta ekaina bitartean hilabeteen behin saio bat egin da, non gazte parte-hartzaile guztiak elkartu eta gatazkari buruz hausnartu duten ikuspuntu desberdinak landu diren. Lehen hiru hilabeteetako saioak presentzialki izan ziren Bilboko Deustuko Unibertsitatean. Apiriletik aurrera ordea, COVID-19ak sortutako pandemiari aurre egiteko segurtasun neurriak hobeto errespetatzeko bilerak online egitera pasa ziren.

2019ko azken hilabeteetan egindako saioei jarraipena eman zaie. Memorien mapak egin ostean errelatoak aztertu dira, gazte guztiek ez baitute errelato berdina jaso, eta hori gizartearen isla izan da aldi berean. Euskadiko testigantza desberdinak landu dira eta aktoreen, mementoen eta testuinguruen garrantzia landu da.

Lehen saiotik gazteek mahaigaineratzen dituzten galderak, eskaerak eta erronkak jaso eta hauei nola erantzun aztertu da. Dauzkaten galderei erantzuna bilatzeko zein prozesu egin behar duten landu da halaber gazteekin. Proiektu osoaren protagonista gazteak izan dira, beraien galderak eta jakin-minak jaso direlarik. Gazteek dakitena jakitea izan da helburuetako bat, baita zer jakin nahi duten jasotzea ere. Historiaren irakaspena alor formal eta ez formalean landu da, jakin nahi dutenari erantzuna emateko aukerak aztertzeke.

Ekainean amaitutzat eman ziren gazteekin egindako saioak, eta uda ostean koordinazio taldeak batzen jarraitu du 2019-2020 ikasturtean ateratako informazioa ebaluatu, ordenatu eta ondorio txostenak prestatzeko.

Ebaluazioa

- Parte-hartzaileen jarrera aktiboa eta kolaboratiboa izatea lortu da, COVID-19a tartean zegoela kontuan izanik oso positibotzat eman daitekeena.
- Gazteen interesa altu mantendu da, asko ezagutzen ez zuten Euskadiko historiaren atal batean informazioa jasotzea asko eskertu dute.
- Deustuko Unibertsitateko Etika Aplikatuko Zentroarekin elkarlana mantendu da.

5.7 Harremanak eragileekin

Gizartean eragile ugari daude bakearen eta bizikidetzaren gaiak jorratzen dituztenak, betiere gazteekin erlazionatuta. 2020ko lehen hilabeteetan COVID-19aren pandemiak lan egiteko moduak moldatu arazi ditu, eta eragileekin harremanak ere egokitu behar izan dira.

Internet eta telefono bidezko bilera eta trukaketek topaketa eta batzarrak ordezkatu arren, 2020an eragile ugariarekin komunikazioa mantentzea ahalbidetu da, baita berriekin harremana sortzea ere.

Dagoeneko badauden elkarlanak indartu dira, eta halaber, eragile berriengana gerturatuz aniztasuna handitzeko hautuaren aldeko esfortzua handitu da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gizarteko eragileekin elkarlana sustatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Elkarlanik ez dagoen eragileekin harremanetan jartzea edo harreman hori sendotzea.

Garapena

Arrazakeriaren aurka, eta bakean bizi den eta bizikidetzaz aberastasun bezala ulertzen duen gizarte baten alde egiten duen SOS Arrazakeria GKEarekin lana estutu da 2020an zehar. **Mugen Mugetatik #IkusGaitetzen: Gazte Migratzaileekin etorkizunera begira** topaketan gazte migratzaileei buruzko lanketa tarteko, Donostiako SOS Arrazakeriako teknikariekin bilerak egin dira gazte migratzaileekin lanketa nola egin jorratzeko. GKEak urteak daramatza gazte migratzaileekin lana egiten (tutoretzapeko izandakoak zein jada 18 urte edo gehiagorekin

iritsitakoekin). Gaia jorratzeak dauzkan erronkei ahalik eta modu eraikitzaileenean aurre egiteko euren aholkularitza eske jo zuen EGK-k beraiengana.

Erakunde honen bidez izan zen halaber 2020ko martxoan bakarrik dauden gazte migratzaileek egindako eskaeraren berri. **“Ekarpenak egin nahi ditugu, uzten diguzue? – Ez moztu gure hegoak!”** izenburupean plazaratutako manifestuari atxikitu zen EGK. Manifestu honetan aurkeztutako eskaerak bat datoz Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak azken urteetan jorratutako lanarekin, eta beraz atxikitzea erabaki zen.

#IkusGaitezen proiektuari esker, halaber, Bizkaian gehienbat lan egiten duten beste eragile batzuekin harremana sustatzeko aukera izan du EGK-k 2020ko lehen hilabeteetan, batez ere Skype eta antzeko plataformen bidezko bilerei esker. Ongi Etorri Errefuxiatuak Bizkaia eta CEAR Euskadiko Bizkaiko teknikari ugarirekin informazio trukaketa handitu da, baita AMEKADI eta bakarrik dauden gazteekin lan egiten duten Bigite Bizkaiaiko hezitzaile elkartearekin ere.

Urteko lehen hilabete hauetan indartutako beste harremanetako bat EGK-k UNESCO Etxearekin duena izan da. Euskadiko gazteekin lan egiten duen heinean, EGK beste eragile batzuekin batera lantalde batera gonbidatua izan zen. **“Guztiok batera, inor atzean utzi gabe”** lantaldean AMUGE, Mujeres en la Diversidad, Foro Rural Mundial, Aldarte eta UNESCO Etxea bera dira EGKrekin batera lantaldean dauden elkarteak.



Ebaluazioa

- EGKren lana finkatu eta zabaltzeko oso baliagarriak izan dira 2020an zehar egindako edo sendotutako harremanak.
- Gazteen egoera eta eskaerak jakinarazteko baliagarriak izan dira egindako bilerak, eragile hauetako batzuek EGKren lana sakonago ezagutzeko aukera izan dutelarik.
- Etorkizunera begira elkarlan hauek finkatzeko interesa erakutsi dute eragileek, eta horretan lan egiten jarraituko da.

5.8 Egunerokoa

Teknikari bakoitzaren lan-arlotik kanpo, EGKren funtzionamendu egokia bermatzeko egin behar diren lanen artean bilerak, aholkularitza, EGKren egoitzetako kudeaketa lanak, orain arte garatutako proiektuen justifikazioa eta plangintzak burutu dira besteak beste.

2020ko egunerokoa, aurreko proiektuetan ikusi daitekeen bezala, COVID-19ak aztoratu du. Ordutik aurrera, eta oraingoz irailera arte, EGKren egoitzetan lan egin ordez segurtasun neurriengatik telelanera egokitu da EGKren egunerokotasuna.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-ko izaera eta funtzionamendua bermatzen duten eguneroko lanak burutzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Telelanera aldaketa ahalik eta modu egokienean egitea.
- Lan-arloarekin erlazioa duten nazioarteko egunak jorratzea.
- Giza Eskubideen aurkako protokoloa aktibatzea erasorik balego

Garapena

Egindako lanen artean jarraipen bilerak egin dira bai EGK-ko talde teknikoarekin, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiko ordezkariarekin eta hala eskatu izan duten elkarteekin.

EGK-ko beste lan-arloetako proposamenei baliagarriak diren balorazioak ematea ere egunerokoaren parte izan da. Egunerokoan sartu dira baita ere egoitzako kudeaketa lanak, besteak beste gela eta materialen lagapenak egitea, telefonoa erantzutea, ezustekoei aurre egitea eta abar. Telefono eta email asko gazte gaien inguruko aholkularitza ematea izan da, bake eta bizikidetzeta lan-arloaren kasu gehienak **Etikasiri** buruzko zalantzak izanik.

2020ko egunerokoa COVID-19ko krisiak ere moldatu du, eta gai horri buruz gazteek egindako aholkularitza eskaerei erantzuna eman zaie.

Kirolean homofobiaren aurkako Nazioarteko Eguna:

Otsailaren 19an ospatzen den Nazioarteko Egunean, berdintasun lan-arloarekin batera gazteen artean egunaren garrantzia zabaltzeko argitalpena egin zuen EGK-k.



Kirolean ere LGTBI+fobiarik ez
No a la LGTBI+fobia, tampoco en el deporte

Honelako nazioarteko egunetan gazteen artean kontzientzia garatu nahi da, oraindik ere diskriminazioa ematen baita Euskadiko gazteen artean kirol munduan. Indarkeria LGTBI+fobikoak egun ere gure gizartearen errealitate bat izaten dirau, baita kirolean ere, eta horregatik gazteekin kirolean lan egiten duten eragileei deialdia luzatu zitzaizen prebentzio mota guztietan inplikatzeko eta orain arteko esfortzua hobetzeko.

Bakearen Nazioarteko Eguna:

Irailaren 21ean, Bakearen Nazioarteko Egunean, EGKren aldetik aldarrikapena egin zen sare sozialen bidez. Bake positiboaren eraikuntzaren aldeko aldarria izan zen, gaur egun ere erronkak identifikatu dituelako EGK-k euskal gazteriaren artean.



Bakeaz hitz egiteko espazio seguru gehiago behar dira, modu eraikitzaile batean bake positiboa gauzatzeko. Itxi gabe dauden zauriak tentuz zaindu behar dira, giza eskubidearen eta bakearen alde egiten duen gizartea eraikitzeko. Gazteriak hitz egin nahi du, bakegintzan parte-hartze protagonista eta aktiborako aukera izan nahi du, eta batez ere, bake positiboaren alde gazteek dauzkaten iritzi eta erronkak entzun eta kontuan izatea nahi da. Horretarako gazteen iritzia entzun eta horri arreta ematen jarraitu behar zaio, euren ahotsa ezagutarazteko prozesuan administrazio, komunikabide zein gizarteari orokorrean eskaera luzatu nahi zaio.

Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna:

Abenduaren 10a da Giza Eskubideen Nazioarteko eguna. 1950etik ospatzen den egun honen isla egin nahi izan da EGKren aldetik. Horretarako Eusko Jaurlaritzarekin 2014an hitzarmena sinatu zenetik gaur egunera arteko proiektuetan landutako Giza Eskubideak aztertu dira. EGK-ko proiektu guztietan Giza Eskubideen errespetua aldarrikatzen da, hori delarik bake eta bizikidetzaren lan-arloaren oinarrietako bat. Hortaz gain, hala ere, proiektu batzuetan Giza Eskubide zehatzak

sakonago landu dira (tortura debekatzen duena, erlijio askatasuna, bakean biltzekoa...), eta hori jaso nahi izan da Abenduaren 10ean.

2014-2020 urteen artean egindako proiektuetan landutako ideia edo aldarrikapenak jaso eta paneltxo batzuk egin dira. Bertan, lanketa egindako urtea, proiektuaren izena, aldarrikapena eta hau Giza Eskubideen Aldarrikapeneko zein artikulurekin lotuta dagoen adierazten du paneltxo bakoitzak. Sare sozialetan eta EGKren webgunean zabaldu da kanpaina abenduaren 10ean.

Adibide bezala txertatzen dira paneltxo batzuk:



Hemen topatu daitezke [paneltxo guztiak](#).

Giza Eskubideen urraketa deitoratzeko protokoloa:

Protokoloaren xedea EGK-ko gazte-elkarte baten parte edota EAEn bizi diren gazteen kontrako erasoak identifikatu eta deitoratzeko balio izatea da. Betiere, pairatutako Giza Eskubideen urraketak gaztearen jatorria, kultura, erlijioa edo ideologia politikoa badu oinarri.

Protokoloaren helburuak ondorengoak dira:

- Edozein ideia politiko, erlijioso, kulturalen defentsan indarkeriaren erabilerari zilegitasuna kentzea.
- Gazte-izaera anitza aldarrikatzea eta ondorioz eraikitzen gaituen edozein ezaugarriari erasotzea, izateko dugun askatasuna erasotzea dela argi uztea.
- Bake eta giza eskubideen kulturarekin lotutako baloreak gazteen artean sustatzea: tolerantzia, errespetua, enpatia, etab.
- EGK bakegintzan lan egiten duen erakundearen irudia sendotzea eta gizarte eta administrazio mailan zilegizko eragilea bezala aitortua izatea.

Irailaren 26an Bilbon gazte batek jazotako eraso arrazistaren ondorioz Giza Eskubideen urraketa deitoratzeko protokoloa aktibatu zuen EGK-k. Sare sozialetan zein [EGKren webgunean](#) zabaldu zen adierazpenean ikusi daitekeen bezala, gaztearen jatorriagatik eman zen eraso.

Azaroaren 4an berriz ere aktibatu behar izan zuen EGK-k [protokoloa](#) eraso arrazista batengatik. 25 urteko gazte batek urriaren 10ean jasandako erasoaren berri izan ostean aktibatu zen oraingoan, gertakaria Bilbon eta gaztearen jatorriagatik izan zelarik berriz ere.

Jatorriagatik egindako eraso arrazista oro gazteen nortasunari zuzenean egindako eraso da. Arrazakeria hau den formakoa dela ere (indarkeria zuzena, zeharkakoa, estrukturala...), eta berauk sortzen dituen Giza Eskubideen urraketa oro (eraso arrazista izan ala ez) salatu nahi izan dira protokoloaren aktibazio honekin, izan gizartean ematen diren eraso arrazistak orokorrean zein gazteengan partikularrean.

Ebaluazioa

- Jarraipen bilerak egiten jarraitu da.
- Lan-arloarentzako esanguratsuak diren nazioarteko egunetan posizionamendua egiteak EGKren lana ezagutarazteko aprobetxatuz.

- Gazte gaien gainean aholkularitza eta informazioa erraztea, ziurtagirien kudeaketa, prestatzen diren ekimenen gaineko izen ematearen kudeaketa eta zalantzak argitzea, ahalbidetu da.
- Gazteen Giza Eskubideak jatorria, kultura, erlijioa edo ideologia politikoagatik urratzen direnean gertakari horiek deitoratzen jarraitu da honelako gertakarien aurrean protokoloa aktibatuz.

6. BERDINTASUNA

6.1 Gaur8 lantaldea



Gaur8 lantaldea EGK-ko berdintasun lan-arloko diskurtsoak sortzen dituen espazioa da. 2016an sortu zen eta ordutik forma ezberdinetan mugitu da. Bertan, feminismoari eta LGTBI+ kolektiboari buruzko hainbat gai lantzen dira eta horiek berdintasun arloko proiektuetan islatzea dute helburu.

2020an lantaldean biltzeko deialdia irekia da; alde batetik, EGK barneko elkarteak hurbiltzeko, eta bestetik, gaiarekiko interesa izan duten norbanakoengana gerturatzeko. Hala ere, 2019an ikusi zen norbanako horiengana iristeko beste modu interesgarriagoak zeudela (ondoren azalduko den zineforuma esaterako). Hori dela-eta, 2020an berdintasun lan-arloak espazio hau mantentzeko, EAEn lan egiten duten eragile feminista eta LGTBI+ kolektiboko eragileekin biltzeko eta sartzeko apustua egin du.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren berdintasun arloko diskurtsoa eratzea eta eguneratzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Berdintasun lan-arloko erronka berriak identifikatzea eta proposamen berriak egitea.
- Berdintasun arloan dauden gazte elkarten eta norbanakoen harremana sartzeko eta sendotzea.

Garapena

Gaur8 lantaldeak, hainbat forma ezberdin izan ditu urteetan zehar. Batzuetan jendetsuago eta beste batzuetan ez hain jendetsua. 2020 urtean, berdintasuneko sarea indartzeko ahalegin berezia egin nahi izan da, horretarako, elkarte bakoitzetik, feminismoa eta LGTBI+ kolektiboa lantzen duten pertsonekin harremanak estutu dira. Zuzeneko harremana garatuz eta ekintza puntualen harira bilerak sortuz.

Baina, banakako harreman horiek talde bihurtzeko ahalegina egin da, **Gaur8**ri indarra emateko asmoz. Hala, ondorengo orrietan ikusiko den bezala, **Gure Protokoloak mintzagai** topaketan edota **Festak: emakume gazteen espazioa eta botere harremanei buruz hitz egiteko saioa** bezalako elkarguneetan, norbanako horiek espazioak elkarbanatu zitzaizten eta talde izaera gara zezaten saiatu da.

Ebaluazioa

Gaur8 lantaldea talde aldakorra da, hala, denboran zehar forma ezberdinetan egituratu da eta eragile desberdinekin bildu. COVID-19ak, ordea, izan du lantaldearengan eragina eta ez dago memento indartsuenean.

Aldi berean, esan beharra dago, berdintasun arloak sare handia duela eta norbanako eta elkarte askorekin harremana duela. Zentzu honetan, uste da, pandemiak ekarritako harremantzako modu berriek, taldea birformulatzeko eta indartzeko lagundu dutela. Izan ere, online izaerako bilerak gero eta gehiago egiten dira, eta gazteek konpromiso gehiago hartzen dute honelako sistemen bidez buruturiko ekimenetan.

Bestalde errealitate berrian sortu diren arazoek ere (emakume gazteengan eman diren erasoak eta hauen kudeaketak, transek bizi dituzten errealitate berriak...) interes ezberdinak eta behar anitzak azaleratu dituzte. Eta hauek, **Gaur8** taldearentzako aberasgarriak dira.

6.2 #BazterretikErdira Zineforuma

#BazterretikErdira zineforuma 2019 urtean sortu zen berdintasun arlotik, izan ere, feminismoa eta LGTBI+ kolektiboari buruzko gaietan duen norbanakoen interesa piz dezakeen proiektua zela uste zen. Euskarri batetik (kasu honetan filmak eta dokumentalak) abiatuz eztabaida sortzeko helburua duen proiektua da.

2020 urtean, ildo berdinari jarraituz, zineforuma egin da eta aniztasuna landu duten pelikulak proiektatu dira.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-ko berdintasuneko diskurtsoa lantzea eta datozen urteetan aurrera eman daitezkeen proiektuen ideiak biltzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Zineforum metodologiaren bidez aniztasuna lantzea.
- Pertsona gazteen hausnarketak indartzea.
- Saioetan ateratako ondorio eta hausnarketak bildu eta horien gaineko lanketa egitea

Garapena



Zineforuma egiten den bigarren urtea izanik, aurten ere, aurreko urtean bezala, filmen proiektzioak urtean zehar egin nahi ziren. COVID-19ak sorturiko konfinamendu egoera medio, proiektzioak iraila abendura bitartean egitea erabaki zen. Hala, iraila, urria, azaroa eta abenduan proiektatu dira filmak.

Aurreko urtean bezala emanaldiak Hika Ateneon egin dira, eta zentzu honetan, hauek erabiltzen dituzten difusiorako baliabideak aprobetxatu dira. Ondorengoak izan dira aukeratutako filmak:

- ZAURIA (K) (Irailak 29). Zauria(k) proiektua, eromena, gaizki egonak eta osasun mentala ikuspegi feminista batetik lantzen duen dokumentala da. Sufrimendu psikosoziala eta genero bizipenak uztartzen eta 9 emakumeren* errealitateak barne hartzen dituena. Izendatzen ez dena ez da ikusten, eta ikusten ez dena ez da existitzen.
- RAFIKI (Urriak 27). Nairobi, Kena eta Ziki ikasleek bizitza oso ezberdinak daramatzate, baina biek ahal dutena egiten dute ametsak lortzeko. Beraien bideak gurutzatzen dira beraien gurasoak aurrez aurre jartzen dituen hauteskunde kanpaina baten erdian. Neskek elkar maite dute, baina Kenyako gizartea oso kontserbadorea da, eta maitasunaren eta segurtasunaren artean aukeratu beharko dute.
- UNA MUJER FANTASTICA (Azaroak 24). Marina zerbitzari gaztea eta abeslari izateko hautagaia da; Orlando inprenta baten jabea da. Biek elkarrekin etorkizun bat nahi dute. Orlando bat-batean hiltzen denean, Marinak bere familiari eta gizarteari aurre egin behar die bera zer den erakusteko: emakume konplexu, indartsu, zintzo eta fantastikoa.
- PRIDE 2014 (abendua 15). 1984ko udan, Margaret Thatcher lehen ministro zela, Meatzarien Sindikatu Nazionalak greba deitu zuen. Londresen, Gay harrotasunaren manifestazioan, lesbiana eta gay talde batek dirua biltzen du langileen familiei laguntzeko, baina sindikatuak ez du dirua onartzen. Orduan, taldeak meatzariekin harremanetan jartzea erabakitzen du eta Galesko herrixka batera joaten dira. Horrela hasten da bi komunitate erabat ezberdinen historia bitxia, kausa komun batengatik elkartzen direnak.

Ebaluazioa

Oso positibo balioetsi da proiektu honetan eginikoa. Aurreko urteko jarraipen bat izanik, honen diseinua egitea erraza izan da; alde batetik, aurreko urteko espazioak (Hika Ateneok) ondo

funtzionatu zuela ikusita errepikatu delako eta, bestetik, filmen erreproduzioek duten lan teknikoa aurreko urteko berdina izan delako.

COVID-19ak ez du izan eragin kaltegarririk zineforumean. Alde batetik, irailetik aurrera egin behar izan dira emankizun denak, baina, modu positiboan balioetsi da aldaketa hau, izan ere, denboraldi egokia dela uste da zineforumak egiteko. Bestetik, Hika Ateneoko espazioa kontuan izanik, uste da, edukiera gutxitu arren oso ondo mantentzen direla segurtasun neurriak. Hala, proiektuarekin aurrera egitea erraza izan da.

Nabaritu den kontu bakarra bertaratutako pertsona kopuruarena izan da. Lehen proiektzioan, Zauria(k) dokumentalean, 27 pertsonak izena-eman zuten. Oihartzun asko izan zuen eta jende asko bertaratu zen. Batzuk gainera, aurreko edizioetako berdinak izan ziren. Azken proiektzioetan berriz, jende gutxi eman du izena.

Honen aurrean, bi balorazio egiten dira: alde batetik, egoera zaila dela eta jendearen bertaratzeko nahiak murriztu egin direla ulertzen da, bestetik, oso espazio garrantzitsua dela uste da, izan ere, hausnarketa oso interesgarriak ateratzen dira. Hala, berau mantentzea oso positibotzat jo da.

6.3 I. Berdintasun Plana

2017an onartu zen EGKren **I. Berdintasunerako Plana** eta ordutik berdintasunarekiko konpromisoa neurri ezberdinen bidez aurrera eraman da. 2020an, orain arte bezala, planari jarraipena emango zaio, ezarriak dauden ekintzak eta irizpideak inplementatuz eta EGKren funtzionamenduan funtsezkoa den elementua bilakatuz.

Hala ere, **2020an Planaren** azken urtea izanik, honen berrikuspen osoa egin behar izan da eta EGK-ko **II. Berdintasuna Planaren** diseinua eta garapena gauzatu da, 2021-2024 urteko Berdintasun Plana izango dena.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren barne nahiz kanpo lanean berdintasuna zeharkako balore gisa errotzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- **I. Berdintasun Planean** zehaztuak dauden neurriak inplementatzea.
- Ezartzen diren neurrien jarraipena eta balorazioa egitea.
- **I. Berdintasun Planaren** guztizko balorazioa egitea.
- EGK-ko **II. Berdintasun Plana** diseinatzea eta garatzea.

Garapena

Egindako ekintzak:

2020an berdintasun planean oinarritutako bi ekintza zehatz burutu dira. Lehenik, Indarkeria egoerak pairatzen dituzten EGK-ko langileak babesteko protokoloa egin da. Protokolo honen bidez indarkeria matxista pairatzen duten EGK-ko langileen egoera hobetu nahi izan da, indarkeria hau euren bizitza pribatuan ematen denean izango delarik. Honek definizioa, helburuak, aplikazio eremua, berme prozedura eta ebaluazioa, eta jarraipena ditu bere baitan eta 2021eko Batzar Orokorrean aurkeztuko da.

Bestalde, 2013an egin zen **I. Praktika Egokien Liburua** (PEL) berrikusi eta berritu da, EGKren **II. Praktika Egokien Liburua** sortuz. Hau bi helburu nagusiren baitan kokatzen da: zeharkako gaiak nola landuko diren zehaztea eta EGKren lana egiteko modua finkatzea.

Horretarako, maiatzaren 20an, 2013an egindakoa hausnartzeko eta **PEL** berri bat garatzeko saio bat egin zen, eta ondoren, ekarpenen bidez, liburu berri bat sortu eta garatu da. Hau 2021an argitaratuko da eta ondorengo urteetako lan ildoak izango da.

I. Berdintasun Planaren ebaluazio txostena:

Egindako ekintzez gain eta aurtan **I. Berdintasun Planaren** azken urtea dela kontuan izanik honen ebaluazio txostena egitea beharrezkoa ikusten zen. Horretarako, planaren betetze-maila,

koherentziaren ebaluazioa, prozesuen ebaluazioa eta inpaktuaren ebaluazioa egin da. Horretarako, lan-arlo bakoitzeko teknikariarekin eta Iraunkorreko loturarekin bilera telematikoak egin dira banan-banan. Honez gain, galdetegia bat sortu da ebaluazio hau teknikari eta Batzorde Iraunkorreko kideez gain elkarteetako kideek ere osatzeko. Ebaluazio hau 2021ko Batzar Orokorrean aurkeztuko da.

Bestalde, EGK-ko **II. Berdintasun Planaren** garapenarekin hasi da, honen marko teorikoa lantzen eta egingo diren ekintzen eta ardatzen oinarriak finkatzen. 2021eko Batzar Orokorrean aurkeztuko da Plan hau, hori dela-eta, hau garatzeko prozesu parte-hartzailea egingo da 2021eko urtariletik martxora arte.

Ebaluazioa

Orain arte egindako ebaluazioa oso positiboa izan da. Izan ere, COVID-19ak sorturiko egoera honek nolabaiteko pausa bat ezarri duenez berdintasun arloan orokorrean, aukera eman du Berdintasun Planeko lanen azterketa bat egiteko eta bertan ezarriak dauden ekintzak egiteko.

6.4 Gune Anitza



Gune Anitza berdintasunarekiko eta aniztasunarekiko aldeotasuna adierazten duen zigilua da eta 2017tik martxan dagoen proiektu iraunkorretako bat da.

2020an proiektuari jarraipena eman zaio: alde batetik, espazio berriak identifikatuz eta horiekin harremanak garatuz; bestetik, orain arte atxikita dauden espazioekin balorazioak eginez.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Berdintasunarekiko eta aniztasunarekiko aldeotasuna erakustea eta hauekiko gazteek dituzten proposamenak gune ezberdinetan txertatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- **Gune Anitz** gehiago txertatzea.
- Atxikitako espazioen ebaluazio bat egitea.
- Hobekuntza proposamenak eguneratuak mantentzea.

Garapena

Gune Anitza ezagutarazteko bideoaren difusioa:

2019an **Gune Anitza** ezagutarazteko bideoa grabatu eta editatu zen. Honetan, jada atxikita dauden espazio askok zigilura atxikitzearen zergatiak zeintzuk izan ziren azaldu zituzten. 2020an bideo honi difusioa egin zaio [webgune](#) eta sare sozialetan.

Bergarako Udalarekin eginiko elkarlana:

2019an hasi zen EGKren eta Bergarako berdintasun arloarekin harremana eta hortik sortu zen Bergaran egin zen **Gune Anitzara** atxikitzeke ekitaldia. Topaketa horretan 26 gune atxikitzeaz gain, interesa jarri zuten espazio asko bertaratu ziren. Hori dela-eta, 2020an, Bergarako espazio ezberdinetan **Gune Anitza** izateko eskuorriak diseinatu dira Berdintasuneko Sailarekin elkarlanean. Bertan **Gune Anitzako** informazioa eta eskaerak ageri dira.



Espazio berrien atxikitzea:

2020an espazio ezberdinak atxiki dira **Gune Anitzara**. Honakoak izan dira espazio horiek: Errotik Kooperatiba Feminista eta Uribe Kostako mankomunitatea. Azken honen barruan, atxiki diren Udalak honakoak izan dira: Barrikako Udala, Urdulizeko Udala, Plentziako Udala, Gorlizeko Udala eta Sopelako Udala. Atxikitzeko prozesua luzea izan da, hori dela-eta, ez da gauzatu hauen atxikimenduren argitalpena, baina, 2021an hori egitea aurreikusten da.

Honez gain, Uribe Kostako mankomunitatearekin harremana estutu da eta irekita geratu da, **Gune Anitzarara** atxiki diren herrietan aniztasunari buruz lanketa egiteko ideia.

Ebaluazioa

2020an egindakoa positiboki balioesten da. Alde batetik, proiektu honen bidez Bergarako Udalaren harremana finkatu delako etorkizuneko koordinazio lanak burutzeko, eta bestetik, atxiki diren beste espazioekin ere, harremana garatu delako.

Aldi berean, Uribe Kostako mankomunitatean lan ildo bat ireki da eta 2021era begira, honetan jarraitzeko asmoa dago.

6.5 Berdintasun protokoloak



2016an **Gaur8** lantaldetik salaketa publikoak egiteko **Berdintasun Protokoloak** diseinatu ziren eta ordutik aktibazio publikoak egiten dira eraso matxista eta LGTBI+fobikoak ematen direnetan. Protokoloen onarpena Batzar Orokorrean eman zen.

2020an, hauen azterketa bat egin da. Alde batetik, eginda dagoen diskurtsoaren gainean aldaketa batzuk jorratu dira, gaur egun indarkeriaren aurrean dauden gako eta aldarrikapen berriak ezartzeko. Bestetik, sareetan erabiltzen den irudia aldatu da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Eraso matxista eta LGTBI+fobikoen aurrean **Berdintasun Protokoloak** aktibatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- **Berdintasun Protokoloak** eguneratzea, bai diskurtsiboki baita erabiltzen den irudiaren aldetik ere bai.
- **Berdintasun Protokoloen** eragina mantentzea.
- EGK-k berdintasunarekiko duen konpromisoa berrestea.

Garapena

2020 urtean, 27 aldiz aktibatu da protokoloa, baina, protokoloa ez da erasoko aktibatzen, sarri bi edo hiru erasorekin batera aktibatzen da. Hala, EGKren kontabilizazioaren arabera, 2020an 37

emakume gaztek jaso dute erasoren bat. Horietatik 8 gutxienez etxebizitza esparruan eman dira eta 5 bikotekide edo bikotekide ohien artean eman dira. Lurraldetasunari dagokionean, 8 eraso Gipuzkoan, 17 eraso Bizkaian eta 12 eraso Araban eman dira.

Bestalde, eraso LGBTBI+ fobiko bakarra dela eta aktibatu da protokoloa.

Gure Protokoloak hizketagai:



Azaroaren 23an, EGK-ko protokoloak berrikusteko saioa garatu zen Zoom plataforma bidez, horretarako **Gaur8** lantaldearen bueltan dabiltzanekin harremanetan jarri eta saio hau egiteko proposamena helarazi zitzaien banan-banan. Horiez gain, elkarte guztiei luzatu zitzaien gonbidapena eta [sare sozialetan](#) egin zen zabalpena.

Bertan, aktibatzen den modua, informazioa jasotzeko bidea, erabiltzen den mezua eta baliatzen den iruditegia landu ziren. Honako galdera hauek landu nahi izan ziren: EGKren diskurtsotik abiatuta, aktibazioa noiz egiten den ondo dagoela uste da? Zer hobetu daiteke? EGKren diskurtsotik abiatuta, erabiltzen den diskurtsotan zer dago hobetzeko? EGKren diskurtsotik abiatuta, erabiltzen den iruditegian zer hobetuko daiteke?

Lanketa hauek eta proposamen berria, 2021eko Batzar Orokorrean aurkeztu behar dira. Hori horrela izanik, lanketekin jarraitzea aurreikusten da hemendik martxora bitartean.

Ebaluazioa

Protokoloen aktibazioa denbora asko eskatzen duen lan bat da, albisteetan agertzen diren erasoen jarraipena egin behar izatea da eta informazio eskaerak kudeatzea besteak beste. Gaur egun, oraindik ere, daukagun protokolo sistemarekin zaila da EAEko emakume gazteen indarkeria egoeraren argazki orokorra ateratzea. Hala ere, aurrerapauso asko eman dira datuei dagokionean. Administrazio ezberdinekin dagoen koordinazioa ona da, eta gero eta tresna gehiago daude alor hau jorratzeko.

Hala ere, COVID-19ak nahiko eragin izan du alor honetan. Izan ere, aurreko urtean baino salaketa gutxiago izan dira EGKren esku, eta konfinamenduan argitaratu diren albiste ezberdinek jakinarazi dute, erasoak eman badirela. Hori dela-eta, honi buruz hausnartzea ezinbestekoa izan da.

6.6 Festak: Gure espazioak birpentsatzen



2018an egindako analisiaren arabera, EGK-ko protokoloen aktibazioak gorakada nabarmen bat izaten dute udako sasoian; herrietako festen bueltan batez ere. Hori dela-eta, 2019an **Festak: Gure espazioa birpentsatzen** izeneko proiektua atera zen aurrera, EAEko gazteek festa eremuetan duten partaidetza nolakoa den jakiteko eta bertan ematen diren botere harremanak nolakoak diren aztertzeko.

Proiektu hori sortzearen arrazoia EGK-k espazio honetan duen diskurtsoa garatzea izan zen, horretarako aurre diagnosi bat egin zelarik. 2020an diagnosi horri jarraipena eman izan zaio, herri ezberdinetan eztabaida taldeak sortuz eta diskurtso garatuago bat eraikiz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-k jaien espazioari dagokion diskurtso bat garatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Emakumeek jaien kudeaketan eta gozamenen duten partaidetza nolakoa den ikertzea.
- Mugimendu feministek jai ereduaren aurrean egindako lana aztertzea.
- Jaietan ematen diren erasoaren aurrean dagoen erantzun instituzionala zein den ikustea.
- Hartzen diren neurri politikoak aztertzea.
- Etorkizunean maila instituzionalean sortu daitezkeen politika publikoei buruz hausnartzea.

Garapena

COVID-19ak sorturiko egoera dela-eta, zailtasunak eman dira proiektu hau aurrera ateratzeko. Alde batetik, tarte batez konfinamendua ezarri delako eta egoera bera ez delako eroso izan, eta bestetik, ez delako festarik eman. Horregatik, proiektuaren birformulazio bat egitea ezinbestekoa izan da.

Festak: Emakume gazteon espazioa eta botere harremanei buruz hitz egiteko esaioa:

Diskurtsoa lantzeko bidean jarraitu da, horretarako, 2020ko irailaren 22an Bartzelonako Noctambul@s Behatokiarekin batera saio birtual bat burutu zen festetako espazioan emakumeek duten partaidetza aztertzeko eta ematen diren botere harremanei buruz hitz egiteko. Honako hauek dira parte hartu duten elkarteak: Errotik kooperatiba, Alboan sarea, Gazte

Abertzaleak, Piratak, Eusko Gaztedi EGI, Rebeldía eta Gurutze Gorria. Horrez gain, hainbat norbanako ere izan ziren saioan.



Ebaluazioa

Proiektuak gorabeherak izan ditu errealitateak mugatu egin duelako honen garapena aurrera eramanez izatea. Hala ere, egia da, festarik egon ez den tarte hau, memento egokia izan dela hauei buruzko hausnarketak garatu eta EGKren diskurtsora ekartzeko.

6.7 Beijing+25

2020an 25 urte beteko dira Beijiingeko Ekintza Plataformak bizitzako eremu guztietan (publikoan zein pribatuan) emakumeen berdintasunezko parte-hartzea oztopatzen duten egoeren aurka neurriak ezarri zituenetik. Egindako aurrerapenak gorabehera, benetako aldaketa ez da izan espero zena.

Hori dela-eta, 2020ko maiatzaren 7tik 8ra Mexiko Hirian Berdintasuna Sortzeko Foroa ospatzea espero zen genero-berdintasunerako mundu mailako topaketa izango zena. Biler hori NBE Emakumeak erakundeak antolatu behar zuen eta ezaugarrietako bat ikuspegi intersektionala eta belaunaldien artekoa txertatzea izango zenez EGK-k bertan parte hartzea zen plangintzan ezarritakoa.

Horretarako, lehenik eta behin EGKrekin lanean dabiltzan emakume gazteekin Foroan landuko diren gaiak jorratzeko topaketak burutu nahi ziren. Eta ondoren, Mexiko Hirian ospatuko den topaketan parte hartuko da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Beijingen 25. urteurrena dela-eta, elkarriketa publiko bat sortzea, Euskal Autonomia Erkidegoan genero-berdintasunaren aldeko premiazko ekintzarako eta erantzukizunerako, ikuspegi intersektional eta belaunaldien arteko batetik.

HELBURU ZEHATZAK:

- Beijing+25erako euskal ibilbide-orri bat egitea.
- Urteko lehen seihilekoan lan-prozesu bat diseinatzea eta aktibatzea Beijing+25en inguruan, Emakunderen aholkularitza-elkartearekin elkarlanean.
- Foroan lan prozesuan parte hartzen duten emakumeen parte-hartzea bultzatzea.

Garapena

Lehenik eta behin, esan beharra dago, proiektu hau bertan behera geratu dela oraingoz. Zentzu honetan, berdintasun arlotik egin den lana proiektu honen jarraipena egitea izan da batez ere. Hori dela-eta, hau kudeatzen duten teknikariekin harremanetan jarri da eta 2020ko apirilaren 1ean bilera bat egin zen proiektuari buruz hitz egiteko.

EGK-ko berdintasun saretik, Bejiingeko gaia lantzea oso positiboa kontsideratzen da, eta etorkizunean burutuko den topaketan parte hartzeko, EGK-tik ere honen lanketa egitea beharrezko ikusten da. Hala ere, proiektua geldi geratu denez, ez dira aurrerapauso gehiago eman.

Ebaluazioa

Emakunderekin izandako harremana eta egindako bileretan ateratako emaitza oso positibo balioetsi da. Hala ere, proiektua geldi geratu denez ezin izan dira aurrerapauso gehiago eman, beraz, aurrerago egin ahal izango da ebaluazioa sakonago bat.

6.8 Zutabeak Arrakalatzen: etxebizitza eta generoa



Proiektu hau etxebizitza lan-arloko teknikariarekin elkarlanean partekatuta eraman da aurrera. Memoriako **1.2 atalean** azalduta dago sakonago.

6.9 Berdintasun arloko ata esanguratsuen egutegia

EGK-k bere diskurtsoak gizarteratu eta mezu zehatzak helarazteko, nazioarteko egunak baliatzen ditu. Berdintasunean, badaude urtean zehar errepikatzen diren hainbat nazioarteko

140

egun eta 2020an data esanguratsu horietan dagokion manifestua eta komunikazio kanpaina egin da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Urtean zehar berdintasunarekin eta LGTBI+ kolektiboarekin zer-ikusia duten data garrantzitsuak azpimarratzea eta egun horietan manifestu edo diskurtsoa plazaratzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Data esanguratsuen garrantzia azpimarratzea eta gaur egungo egoerarekin lotzea.
- Gazteriak egun horiek ezagutzea.
- EGKn partaidetza bultzatzeko tresna bezala erabiltzea.
- EGKn parte hartzen duten elkarteak data hauetan publikatutako manifestu eta diskurtsoetan inplikatzeko eta hauen atxikimenduak aurrera eraman indarrak batzeko.

Garapena

2020an ondorengoak izan dira EGKtik aurrera eraman diren nazioarteko egunak:

Otsailak 11: Emakumea zientzian:

EGK-ko 2019. Batzar Orokorrean erabakitakoaren harira, emakumeak zientzian duen eta izan beharko lukeen indarrak aldarrikapena egin zen otsailean EGKn. Honako eskaera hauek egin ziren:

- Egunduek zientziaren arloan generoen arteko berdintasunaren arloan aurrera egiten jarraitzeko duen garrantzia aldarrikatzea.
- Eusko Jaurlaritzari eskatzea eskura dituen tresna eta eskumen guztiak erabil ditzala emakumeek historian zehar zientzian izan duten papera aldarrikatzea, normalean ahaztua eta gutxietsia izaten baita.

- Administrazio guztiei eskatzea berariazko programak gara ditzatela emakumeek zientziara sarbidea izan dezaten eskumenak dituzten tokietan.

Otsailak 19: Kirolean LGTBI+fobiaren aurkako nazioarteko eguna:

Otsailaren 19an, EGK-ko sareetan kirolean ematen den LGTBI+fobiaren aurkako adierazpenak egin ziren. Horrez gain, irudi bat osatu zen salaketa hau egiteko.



Otsailak 22: Emakume eta gizonen soldata eta berdintasunaren aldeko Europako eguna:

2020an ere, urtero bezala, berdintasuna eta enplegu lan-arloak beste 6 elkarterekin batera, **Emakume eta Gizonen Soldata Berdintasunaren aldeko Europako** egunaren harira [manifestu](#) eta adierazpen bat egin zituen. Kargu eta ofizio bera betetzen duten pertsona guztiei berdin ordaintzea aldarrikatzeko emankumeen, gizonen eta genero bitarrekoak ez diren pertsonen artean bereizketarik egin gabe.

CCOO Gazteak, EKO-ACG, Gazte Abertzaleak, Euzko Gaztedi EGI, LSB-USO, Aldarte eta Rebeldía izan ziren bertara atxiki zirenak eta atxiki aurretik, manifestua lantzeko elkarte bakoitzarekin bilerak egin ziren. Bilera horietan, elkarte bakoitzaren diskurtsoak gaiarekin nola lantzen diren ezagutu zen eta datu berrien eskaerak egin ziren.

Martxoak 8: Emakumearen eguna:

EGK-tik urtero martxoaren 8an idatzi bat atera izan da. 2020an, formatu honi buelta eman nahian, bideo labur bat egin zen eta [sare sozialetan](#) zabaldu zen. Bideoak honakoa aldarrikatzen zuen:

“Gazteriaren agendan berdintasuna lehen lerroan izan behar delako Euskadiko Gazteriaren Kontseiluan feminismotik lan egiten dugu oinarritzko eta zeharkako balore gisa. Hezkuntzan, enpleguan, bakean eta bizikidetzan, etxebizitzan, komunikazioan, partaidetzan, administrazioan eta koordinazioan”.

Maiatzak 17: LGTBI+fobiaren aurkako nazioarteko eguna:



Maiatzaren 17an, igandean, COVID-19ak eragindako egoera aprobetxatuz, elkarte ezberdinekin Instagrameko zuzenekoak egin ziren, LGTBI+fobiaren esparruan egiten duten lana azaltzeko. Honako bost elkarterekin egin ziren zuzeneko horiek: Hiruki Larroxa, Aldarte, Honduras Diversa, Gehitu eta Naizen.

Elkarrizketak hiru galderen ildoan izan ziren:

- Nola jaio da zuen elkartea eta gaur egun zer egiten duzue?
- Nola ikusten duzue LGTBI+fobia gazterian?
- Zein eskaera egiten dizkiozue administrazioei?

Azaroak 25: Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna:

EGKtik urtero adierazpen bat ateratzen da azaroaren 25aren harira, baina beti fokua emakumeengan jartzen da. Aurten, galdera honi erantzun nahi izan zaio: gizon gazteek zer dute esateko/egiteko?

Horretarako lau profil hautatu dira eta bakoitzetik zerbait ezberdina jakin nahi izan dira:

- Lehenik **adituari** galderak egin zaizkio, eta honek, gaiarekin hurbilpen bat eman du marko orokor bezala.
 - o Zerri buruz hitz egiten dugu maskulinitateei buruz hitz egitean?
 - o Zuk maskulinitateei buruz ikertu duzu, zein lotura du honek azaroak 25ekin? Eta feminismoarekin?
- Ondoren, maskulinitate lantegi baten parte hartu duten bi **mutil gazteei** galdetu zaie, eta hauen bidez esperientziak jaso dira.
 - o Duela gutxi, maskulinitateen lantegi baten parte hartu zenuten, zein izan zen zuen esperientzia? Zer atera zenuten bertatik?
 - o Holako esperientzia batean parte hartzeak zer ematen du? Zein mezu bidaliko zenieke beste mutil gazte batzuei?
- Ostean, **emakume gazteei** galdetu zaie, mugimendu feministan dabiltzan gazteei galdetu zaie, ea emakume gazte bezala zer bota duten faltan gai honekiko.
 - o Zuen militantzian zer da faltan bota duzuen?
- Amaitzeko, gazterian maskulinitateei buruz hitz egiten hasteko zer egin dezakegun pentsatuko dugu eta horretarako **eragile** bati galdetuko diogu.
 - o Nola lantzen dituzue zuek maskulinitateak?
 - o Nola has gaitezke gazterian hau lantzen?

Lanketa honen emaitza izan da [webgunean](#) eta sare sozialetan argitaratu den bideoa.

Ebaluazioa

Oso positibotzat jo da 2020an data garrantzitsuen harira egin den lanketa. Alde batetik diskurtsoak modu ezberdinetan landu direlako eta modu berriak bilatu direlako gazteengana gerturatzeko, eta bestetik, edukian ere teorizazio lanketa sakonago bat egiteko esfortzua egin delako. Esate baterako maskulinitateen gaiei eusteko apustua egin da.

6.10 Haziak Astialdira: Hezkidetza astialdian lantzeko proposamena



2019an hezkidetza astialdian landu eta ikertzeko proiektua jarri zen martxan. Honen bitartez, astialdiaren egunerokoan murgilduta dauden pertsonen iritziak jaso eta hauek partekatu ziren mundu honetan lan egiten duten zenbait elkarterekin. Honela, aurretiaz hezkidetzari buruz landu dutena eta pertsona gazteek hezkuntza ez formalean honi buruz duten iritzi zein ezagutza maila bildu ziren.

EAEko astialdi-hezkuntzan hezkidetza zein mailatan lantzen den ikusi ostean eta aurrera begira egin beharreko hutsuneak identifikatuta izanik, alor honetan egon daitezkeen eta aurkitutako ahulgune eta erronkei eman nahi izan zaie garrantzia. Horretarako, ALBOAN entitatearekin elkarlanean eta egindako hausnarketetatik abiatuta hezitzaileentzat baliagarria izango den diskurtso bat eta tresna bat sortu eta partekatu dira, aurrerantzean baliagarria izan dadin hauen lanean. Guzti honetan, EGK-ko hezkuntza eta berdintasuneko lan-arloak elkarlanean jardun dira gai honi bide emateari begira.

Proiektu hau hezkuntza lan-arloarekin batera koordinatu da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Astialdian jarduten diren pertsonen hezkidetzarekiko esku hartzean duten eginkizunean sakontzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Astialdi taldeetan hezkidetzaren inguruan diseinatutako, eta aurreko urtean abiatutako dinamika saioei jarraipena ematea.
- Mementoko egoeraren informazio bilketan sakontzea (galdetegi baten bitartez) eta diskurtso bat eratzea.
- Ateratako diagnosi edo analisitik ondorioen bilketa partekatze ariketa bat burutzea.
- ALBOANekin elkarlanean landutako tresna elkarteei ezagutaraztea.

Garapena

Haziak Astialdira: Hezkidetzak astialdian hartzen duen tokiaz hausnartzen:

2020an, 2019an bildutako informazio guztia jaso eta *Haziak Astialdira* izeneko txostena garatu



eta zabaldu da. Bertan, lehenik eta behin, hezkidetzarekin loturiko kontzeptu teorikoak azaldu dira gai honi marko teoriko bat jartze aldera. Ondoren, egindako galdetegi eta eztabaida saioetako informazioa bateratu eta analisi bat egin da.

Txostenaren aurkezpenari dagokionean, 2020ko urriaren 14an Beldur Barik programako antolatzaileek eginiko “Hezkuntza ez formalean Indarkeria matxistaren prebentzioa gazteen artean” saioan parte hartu zen eta txostenaren azalpena egin zen. Bertan, lanketaren nondik norakoak azaldu ziren eta zalantzetarako tartea ireki zen.

Une honetan, txostenaren difusio lanean ari da EGK. Horretarako, inprimaturiko ale guztien zabalpena egiten ari da posta bidez. Zabalpena txostenean parte hartu duten elkarteetan, EGKrekin elkarlanean dabiltzan astialdiko elkarteetan, gazte guneen eta emakumeen etxeen artean egin nahi da. Nolabait, bertan jasotako informazio guztia lurreratu eta itzultzeko.

ALBOAN elkartearekin harremana:

EGK-tik hezkidetzan egindako lanaren harira, ALBOAN elkarteko kideekin batera, 2020an hezkidetzako talde metodologiko baten parte hatu dute EGK. Horretarako, 2020ko martxoaren 28an egin zen lehen bilera eta ordutik hainbatetan bildu da lanketa ezberdinak egiteko. Bertan, lehenik eta behin, material ezberdina partekatzen da eta hezkuntza formalean hezkidetzaren autodiagnosia zentro desberdinetan aurrera nola eramán garatzen da.

Horrez gain, saio ezberdinak antolatu dira eta EGK-k bertan parte hartu du, esate baterako, maskulinitateak lantzeko hitzaldian.



Ebaluazioa

Prozesu honetan zehar, pertsona gazteek hezkidetzari dagokion jardun praktikoari zein erronkei egindako ekarpenak batu eta txosten osatu batean islatu dira. Gako desberdinen gainean emandako iritzi bilketa honek, hausnarketa partekatu bat osatu du eta aurrera begira interesgarriak izan daitezkeen puntuak balioetsi ditu. Iritzi hauen bilketa oso anitza eta aberasgarria izan da.

Eduki hau, gainera hezkidetzari lantzen duen ALBOAN elkartearekin ere partekatu da, harremaneko ibilbidea oso lagungarria izan delarik. Honek, gainera, diskurtsoa osagarritzen, partekatzen eta zabaltzen lagundu du, feedbacka jasotze aldera.

Oraindik, material honi eman beharreko erabilgarritasuna edo ibilbidea ezin daiteke ebaluatu, hori baita eman beharreko hurrengo pausoa. Egindako ibilbidea, eragile desberdinekin izandako harremana eta aurrera urratsak egiteko jasotako iritziak oso baliagarri izan direla balioesten da.

6.11 Berdintasun eta LGTBI+ arloan lan egiten duten eragileekin harremana

Feminismoaren eta LGTBI+ alorrean eragile asko dabilta antolatuta eta gai ezberdinen gainean hausnartzen. Hala, EGKrentzat funtsezkoa da eragile hauekin harremanetan egotea. Alde batetik gazteekin, hauen beharrak zeintzuk diren jakiteko eta horien aurrean lanketa ezberdinak egiteko. Bestetik, eragile publikoen kasuan, gazteen iritzia hauengana transmititzeko eta erabaki publikoetan ahalik eta gehien eragiteko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Berdintasuna eta LGTBI+ arloan lan egiten duten elkarten, eragileen, instituzioen, administrazioen eta arduradunen artean harremana sortzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKn egiten den lana sozializatzea eta ikusgai bihurtzea.
- Gazteriaren perspektiba bat ematea beste erakunde eta administrazio batzuen proiektuetan, EGK erreferente bihurtuz.
- EGK-ko proiektuetan pertsona gazte berrien partaidetza lortzea.

Garapena

Emakunde:

2020 zehar Emakunderekin hainbat bilera egin dira, batez ere Beldur Barik programaren harira. Izan ere EGK-k programaren gainean gazte perspektiba sartzen eta honen difusioa elkarte ezberdinetan garatzen lagundu du. Aldi berean, EGK azaroaren 13an egin zen Beldur Barik lehiaketako epaimahaian egon zen.

Koordinadora Feminista:

2020ko maiatzaren 2an, Koordinadora Feministak antolaturiko asanblada irekian parte hartu zen EGK-tik. Alde batetik mugimendu feministak egiten duena gertutik jarraitzeko aukera egokia dela ikusi delako eta bestetik, bertaratu ziren eta bilera mota hauetara bertaratzen diren elkarteekin harremanetan jartzeko tresna ona dela uste delako.

Bertaratu baino lehen, hauek eginiko diagnostikoaren lanketa egin zen eta EGK-k bertan izan zezakeen diskurtsoa ere landu zen. Horrez gain, Koordinadoratik egingo diren etorkizuneko bileretan parte hartzea aurreikusi da.

Hiruki larroxa:

2020ko maiatzaren 17an egindako elkarriketen harira, Hiruki Larroxa kolektiboarekin harremana garatu da. Alde batetik egun horretan egin zena koordinatzeko, baina baita elkar ezagutu eta lanketa amankomunak egiteko bideak irekitzeko ere.

Ikusgune Behatokia:

2020ko ekainaren 11an, Ikusguneko bi kiderekin bilera birtuala egin zen, bai bi espazioek egiten duten lana azaltzeko eta elkarlanean egin daitezkeen aukerak zeintzuk diren aztertzeko. Ordutik harremana mantentzen da eta etorkizunean elkarrekin lan egitea aurreikusten da.

Ekologistak Martxan:

2020ko ekainaren 19an Ekologistak Martxan elkartekoak EGKrekin jarri ziren harremanetan proiektu amankomun bat garatzeko. Elkarrekin, ekofeminismoa lantzen du eta horretarako proiektu bat burutuko du irailetik aurrera martxan jartzeko. Zentzu honetan, EGK-ko berdintasunean dabilzan elkarrekin eta norbanakoekin kontaktua izan nahi du euren proiektuan parte hartzeko. Egindako harremana lehen harremanaren baitan kokatzen da, baina aurrera begira elkarrekin lankidetzan aritzea aurreikusten da.

Errotik Kooperatiba Feminista:

2020an Errotik Kooperatiba Feministarekin harremana estutu da. Lehenik EGK-ko berdintasun lan-arloa ezagutarazteko eta euren lana zein zen jakiteko bilera bat egin zen. Ondoren, euren lana EGKren sare sozialetan partekatu da eta berdintasun alorreko ekintza ezberdinetan parte hartu dute. 2021ean EGKn sartzeko prozesua abiatu dute.

Ebaluazioa

2020an elkarte berri ezberdinekin bildu da, eta hori oso positibotzat jo da.

6.12 Egunerokoa

EGK-ko lan-arlo guztiek ezinbesteko dute kontuan izatea urtean zehar beharrezkoak izango diren barne nahiz kanpo koordinaziorako bilerak, baita ager daitezkeen bestelako proiektuetan parte-hartzeko aukerak ere. Gainera, berdintasun lan-arloaren kasuan, gaiak berak dakarren zeharkakotasuna eta **I. Berdintasun Planaren** barne neurriak ezarri behar direla kontuan izanik, barne lanak pisu handia hartu du.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-ko beste lan-arloekin barne koordinazioa eta kanpo eragileekin harreman berriak eraiki ahal izatea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Egoitzetako kudeaketa lanak egitea.
- Beste lan-arloetako berdintasun ikuspegiko ekarpenak egitea.
- Memoriak, hurrengo urterako Plangintza eta Berdintasun Planaren ebaluazioak egitea.

150

- Hedabideetan agertzea, hala eskatzen dutenean.
- EGKren barne antolakuntzarako bileratan parte hartzea

Garapena

COVID-19ak sorturiko egoerak erabat baldintzatu du eguneroko jarduna; lehenik eta behin, topaketa asko gelditu egin behar izan direlako eta bigarrenik, aurrera begirako ezjakintasuna eman delako. Aldi berean, gizartean errealitate berri bat ezarri da (lege berriak, lanuzteak, konfinatuta egon behar izana...) eta honekiko gazteek dituzten arazo berriak azaleratu dira. Hori dela-eta, EGK-tik orokorrean eta berdintasunetik modu partikularrean, elkarteekiko zaintza bat eman da. Horretarako feminismoan diharduten edota LGTBI+ elkarte ezberdinei [aholkularitza](#) eta jarraipena eman zaie.

Bestalde, errealitate honek, diskurtso berriak lantzeko aukera eman du. Zentzu honetan, alde batetik, etxebizitza segurua ez dela ikusi da, eta bestetik zaintzaren gaia lantzeko beharra nabarmendu da. Horretarako, EGK-tik aktibatzen diren protokoloetan erasoak etxean eman diren edo ez kontabilizatzea garrantzitsua dela ikusi da eta 2020ko martxoaren 25ean [hausnarketa](#) bat burutu zen eta enpleguko alorrarekin batera, zaintza eta osasun arloan dauden emakume gazteen errealitate aztertzeko bidea ireki da.

Ebaluazioa

COVID-19ak sorturiko egoera honek zaildu egin du berdintasun arloko eguneroko lana, jada aipatu bezala aldaketa asko eman direlako eta errealitate berrira egokitu behar izan delako. Hala ere, eguneroko berri honek ere, aukera eman du gauza berriak egiteko eta modu berriak aprobeztatzeko. Beraz, esan daiteke, orokorrean, positibotzat jo dela egunerokoan egindakoa.

7. KOMUNIKAZIOA

7.1 Diseinatzaile gazteen lan-poltsa

Urtean zehar antolatutako ekitaldietako deialdien zabalpenean, hauetan jorratutako ondorio eta proposamenen gizarteratzean eta EGKtik sortutako diskurtsoaren hedapenean ikus-entzunezko baliabideak (iruditegia, bideoak, kartelak, txostenen maketazioa, etab.) eskura izatea oso baliagarria da. Bide horretan, azken urteetan bezala, diseinatzaile gazteen lan-poltsa funtsezkoa izan da, are gehiago informazioa kontsumitzeko ohiturak aldatu direnean.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-k egunerokoan egiten duen lana zabaltzeko beharrezkoak dituen euskarrien diseinuak garatzea: kartelak, liburuxkak, txostenak, bideoak, etab.

HELBURU ZEHATZAK:

- 2019ko diseinatzaile gazteen lan-poltsa berritzea.
- EGKren marka indartzea.
- Euskadiko diseinatzaile gazteei lan aukera bat eskaintzea.

Garapena

2019ko lan-poltsaren ebaluazioa:

Urtarrilean zehar Lantalde Teknikoarekin diseinatzaile gazteen lan-poltsako diseinatzaileekin izandako harremana aztertu da, proiektuen eta hauen emaitzen zabalpenean emandako laguntza baliagarria izan den eta kasu bakoitzean nolakoa izan den lankidetzat. Era berean, diseinatzaile gazteei idatzi zaie euren egoerari buruz galdetzeko, zehazki 2020an zehar lan-poltsan jarraitzeko asmoa zuten eta ea fakturak egiteko gaitasuna mantentzen zuten. Honen ostean zortzi diseinatzaile geratu dira.

2020rako beharrak identifikatu:

2020ko plangintza zehaztearekin batera Lantalde Teknikoan behar komunikatiboak identifikatu dira. Proiektuen eta helburuen arabera eskatuko diren profilak zehaztea izan da asmoa, ostean lan-poltsan zer falta den aztertu eta hau bilatzeko.

Deialdi berria eta lan-poltsa berritu:

2020ko [martxoaren 3an](#) zabaldu zen deialdi berria eta martxoaren 27a arte bildu ziren hautagaien CV eta portfolioak. Guztira 10 hautagaitza jaso ziren eta ezaugarri guztiak betetzen zituztela berretsi ostean 4 hautatu dira. Hauekin 2018ko Datuen Babeserako legea betetzeko pausuak eman dira.

2020rako lan-poltsa:

Aukeraketa egin ostean, diseinatzaile gazteen lan-poltsa 8 gaztek osatu dute. Urtean zehar lan-arloetako teknikariak harremanetan jarri dira haiekin sortutako beharrak asetzeko. Era berean, batzuen egoera aldatu egin da eta, hori dela-eta, diseinatzaile gazteen lan-poltsatik at geratu dira.

Ebaluazioa

- 2020 urtea aurrekoekin alderatuta ezohikoa izan da. COVID-19ak sortutako egoera dela-eta ekitaldien gehiengoa urte amaierarako utzi dira eta, ondorioz, diseinatzaile gazteei egindako eskariak murriztu dira.
- Urtean zehar egindako materialak beste behin kalitate altukoak izan dira. Komunikazioa inoiz baino garrantzitsuagoa izan da proiektuak erakargarri egiteko eta, ildo horretan, diseinatzaile gazteen euskarriak oso lagungarriak izan dira.
- Urteko lanen ebaluazioa egin ostean, 2021eko urtarrilean haien egoera zein den galdetuko zaie eta gero 2021 plangintza zehaztean diseinatzaile gazteen deialdia berrituko da.

7.2 Piztu! buletin digitala



Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak antolatutako ekimen eta proiektuen berri emateko ezarritako kanala da **Piztu! buletin digitala**. Honen bitartez 2-3 astean behin harpidetuek aurrera eramandako ekimenen berri jasotzen dute. Puntu hau oso garrantzitsua da, izan ere hartzaileen interesak mezua helarazterakoan asmatzea errazten duelako.

Bidalitako edukiak honakoak dira:

- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren azken albisteak.
- EGK-ko kide diren elkarten jarduerak.
- Bestelako gazte eragileen jarduerak.
- Euskadiko gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen ekintza, proiektu edo egitasmoak agenda atalean.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren, berau osatzen duten elkarten, gazte elkarten eta bestelako gizarte eragileen lana eta deialdiak ikusaraztea eta balioan jartzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-k zein osatzen duten elkarteek egiten duten lana harpidetuei jakinaraztea eta gizarteratzea.
- Komunikazio baliabide gutxi dituzten gazte elkarte eta gizarte eragileei komunikazio euskarri bat eskaintzea haien ekimenak ezagutarazteko.
- Euskadiko administrazioek gazteei bideratutako proiektu eta egitasmoak gazteei helaraztea hauentzako interesekoak badira.
- Gazte elkarteek eta gizarte eragileek beste elkarte eta eragile batzuk egiten dutenaren berri jasotzea.
- Euskara sustatzea (edukiaren %60 gutxienez euskaraz).

Garapena

Harpidedun kopurua:

2018an izandako Datu Babes politikaren aldaketagatik harpidedun kopurua nabarmenki jaitsi zen eta, 2019an zehar bezala, 2020an ere esfortzu berezia egin da aurrez izandako kopurura heltzeko. Zoritxarrez, COVID-19a dela-eta martxotik irailera egitekoak ziren ekitaldi ia guztiak atzeratu dira edo online moduan egin dira. Hauek direnez harpidedunak lortzeko ohiko bidea, ezin izan da nahi zen kopurua bete. Ostean, irailetik aurrera egindako ekitaldietan, parte-hartzaileei aukera eskaini zaie eta hainbat animatu dira, baina osasun eta segurtasun neurriengatik zailagoa izan da.

COVID-19aren eragina:

COVID-19ak eragin nabarmena izan du lan-arlo guztien egunerokoan eta, hori dela-eta, zabaltzeko albiste gutxiago izan dira. Berdina pasa da EGK-ko elkarteek antolatutako ekitaldiekin edo agendan sartzeko ekimenekin. Hori dela eta apirila osoan ez da **Piztu! buletin digitala** bidali; maiatzean ordea proiektu batzuek martxa hartu dutenez eta beste batzuen emaitza aurkeztu denez ohiko maiztasuna mantendu du. Horretaz gain, aurreko urteetan egin ohi bezala, udan gutxiago bidali dira harpidedunak gainezka ez egiteko. Horren guztiaren eraginez **Piztu! Buletin digital** gutxiago bidali dira.

Hemen jarraian 2020an bidalitako **Piztu! buletin digitalak**:

- Piztu! 51 buletin digitala <https://labur.eus/Piztu51>
- Piztu! 52 buletin digitala <https://labur.eus/Piztu52>
- Piztu! 53 buletin digitala <https://labur.eus/Piztu53>
- Piztu! 54 buletin digitala <https://labur.eus/Piztu54>
- Piztu! 55 buletin digitala <https://labur.eus/Piztu55>
- Piztu! 56 buletin digitala <https://labur.eus/Piztu56>
- Piztu! 57 buletin digitala <https://labur.eus/Piztu57>
- Piztu! 58 buletin digitala <https://labur.eus/Piztu58>
- Piztu! 59 buletin digitala <https://labur.eus/Piztu59>
- Piztu! 60 buletin digitala <https://labur.eus/Piztu60>
- Piztu! 61 buletin digitala <https://labur.eus/Piztu61>
- Piztu! 62 buletin digitala <https://labur.eus/Piztu62>

Ebaluazioa

- Harpidedun kopuruan COVID-19ak sortutako egoera eta honen harira hartutako osasun eta segurtasun neurriengatik ez da lortu aurreikusitako zenbakia.
- Bidali diren buletinek oso harrera ona izan dute. Antzeko zerbitzuetan %20ko irekiera da normalena eta 2020an zehar bidalitako ia guztiak %45etik gorako irekiera izan dute. 2021ean zehar erronka harpidedun kopuruak igotzea izango da, ahal den heinean irekiera maila mantenduz.
- **Piztu! buletin digitala** bi edo hiru astean behin bidaltzea dago aurreikusita, oporretan maiztasuna aldatuz. Aurten ere hala egin da. Eta, COVID-19aren eragina dela eta ekitaldi gehienak irailera atzeratu direnez, sortutako albiste kopurua ere asko mugatu da. Hori dela-eta martxotik irailerako maiztasuna nabarmenki murriztu da.

7.3 Sare sozialak kudeatu



Gazteria une oro bilakaera prozesuan dagoen kolektiboa da, anitza eta heterogeneoa. Hori dela-eta, honen beharrak, proposamenak, ideiak eta bizitzan eragina duten gertaerei buruz informazio ahalik eta eguneratuena izatea beharrezkoa da administrazioekin zubi-lana ongi egiteko. Bide horretan sare sozialak tresna oso baliagarria dira.

Era berean, lan-arloetatik zein hauen lantaldeetatik garatutako ekimen, proiektu eta txostenen berri emateko baliabide izugarriak dira. Bestelako eragileekin harreman zuzena eta interakzioa izatea ahalbidetzen du, baita esandakoaren feedback-a jasotzea ere.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren eta bere publikoen arteko harremana sendotzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Antolatutako ekintzen, hauen ondorioen eta parte-hartutako topaketen berri ematea.
- Trafikoa www.egk.eus webgunera edo izen-emate formularioetara bideratzea.

- Proiektu bakoitzari buruz informazioa zentralizatzeko traolak erabiltzea: **#Etikasi**, **#HaziakAstialdira**, **#LangileonBaldintzakZer**, **#IkaslePisuakZer**, **#IkusGaitezen**, **#BazterretikErdira**, **#LanEgokia**, **#ZutabeakArrakalatzen**, etab.
- EGKren presentzia sareetan indartzea.
- EGKren marka sendotu eta ezagutaraztea.

Garapena

Instagram:

Sare berezia da eta irudiak sekulako garrantzia du. Hori dela-eta, proiektuen zabalpenean esfortzu berezia egin da edukia Instagramera moldatzeko. Irudi bat baino gehiago erabili dira argitalpena maizago azaltzeko erabiltzaileari, tamaina berezikoak egin dira story-ak erakargarriago egiteko eta bideoak ere egin dira.

Illo horretan, COVID-19aren osteko asteetan are gehiago sakondu eta kontuan izan dira lortutako informazioa guztia eta egindako paneltxoak zabaltzerakoan. Era berean, aurkezpenak edo agerraldiak egitea ezinezkoa zenez zuzenekoak egin dira txostenak ([Islamofobia: feminismoak, erronkak eta ikuspegiak](#) edo [Gazteak eta etxebizitza 2019](#)) aurkezteko edo beste eragileek egindakoari oihartzuna emateko, Ikasle Kontseiluak egindako galdetegia, maiatzak 17, LGTB+fobiaren aurkako eguna, baliatuz Hiruki Larroxa Kolektiboari, Aldarte, [Gehitu](#) eta [Naizen](#) elkarteei egindako elkarrizketa bana edo abenduaren 5aren harira, Boluntariotzaren Nazioarteko Eguna, gazte boluntarioek COVID-19ko pandemiaren ondorioei erantzuteko egindako lana erakusteko eta ezagutzeko hiru zuzenekoak ([Zulaima Batekin elkartekoa](#), [Diego Gurutze Gorrikoa](#) eta [Maialen Gorabide elkartekoa](#)). Horretaz gain, gazteon egoera salatzeke eta informazioa gizarteratzeko irudi espezifikokoak egin dira.

Ikasturte berriarekin eta ekintzen itzulerarekin eduki gehiago sortu da Instagramerako. Story bitartez zein argitalpenekin gazteengana gerturatzeko esfortzua egin da, ekitaldietan parte-hartzea handitzeko eta unean uneko jarraipenaren bitartez gerturatu ezin zutenek ekitaldiaren berri izateko.

Twitter:

Twitter sare sozialeko mezuak unean unekoak direnez zabalpen bakoitzean behin baina gehiagotan eman da informazioa, kasu bakoitzean era ezberdinean aurkeztuz eraginkortasuna bermatzeko. Ildo horretan, hariak maiz erabili dira: Batzar Orokorreko [jarraipenean](#), irratiko [tertulietan](#), hedabideetan izandako [elkarrizketetan](#), langabezia datuak [publikatzeko](#), gazteen prekaritatea salatzen [paneltxoekin](#) edo [#BoluntaldiaCOVID19an](#) kanpainari [jarraipena egiteko](#). Izan ere, era honetan, erabiltzaileak mezu bat ikusiz gero aurretik eta ondoren esan direnak ere ikus ditzake interesekoa badu gaia. Era berean, esfortzu berezia egin da iruditegi zabala erabiltzeko eta sarean lan egiteko, gaia jorratzen duten eragileen zerrenda osatuz eta haiekin interaktuatuz. Gazteriaren aniztasuna kontuan izateaz gain modu honetan elkarlanean arituta ikuspegi gehiago txertatzen direlako eta proiektu bakoitza aberatsagoa delako.

Gainerako sareetan bezala COVID-19ak eragindako ondorioek direla-eta ahalik eta informazio gehien zabaltzeko erabili da Twitter kontua ere. Krisiak gogor eragin die gazteei eta aholkularitza eskaintzeko zein neurrien azalpenak emateko baliatu da batik bat. Era berean, beste eragileek egindako lana zabaltzeko eta gizarteko ertzetan dauden kolektiboei ikusgarritasuna emateko ahalegina egin da.

Ikasturte berriarekin antolatutako ekitaldiak zabaltzeko eragileen inplikazioa bilatu da ahalik eta gazte gehiagorengana heltzeko. Aldi berean, informazioa jasotzeko ere probestu da, bestelako talde eta gazteek gaiak zer zioten ikusteko eta egindako ekimenen berri izateko. Azkenik, aurrez esan bezala, unean uneko jarraipena egin da hari ezberdinen bidez. Era honetara edozein txio ikusten duen erabiltzaileak ekitaldiari buruzko gainerakoak ere irakur ditzake gehiago jakin nahi badu. Ildo honetan, traolak ere erabili dira.

Facebook:

Iaz hasitako ibilbide beretik jo da 2020an ere. Urtarriletik martxora normaltasunez komunikatu da, ahal den heinean irudiari garrantzia gehiago emanez. COVID-19aren agerraldiak areagotu egin du ikus-entzunezkoen erabilera. Zurrumurru, bulo eta antzeko desinformazioen aurrean kalitatezko edukia eskaintzeko apustua egin da: paneltxo informatiboak, aholkularitzako kontaktuak, enplegu datuen aurrean irakurketa kritikoa, etab.

Uda ostean eta ekitaldiekin berriro ere hastean informazio anabasan EGK-k esandako ezberdintzeko irudi, tipografia eta kolore korporatiboak indartu dira. Ezin da ahaztu

erabiltzailearen hasierako orrian azaltzen direla elkarten plataformak publikatutakoak eta horrek askotan zailtzen duela.

YouTube:

Azken urteetako bilakaera jarraituz, 2020an zehar mezuak zabaltzerakoan ikus-entzunezkoak garatzea funtsezkoa izan da. Hori dela-eta, urtarrian **Etikasi** programa zabaltzeko bi bideo egin ziren, bidaia bana: [Belfast](#) eta [Auschwitz](#). Ildo horretan, martxoaren 8an berdintasunarekiko [konpromisoa berresteko](#) beste bideo bat egin zen eta, azkenik, COVID-19a dela-eta ikasleen bizitzako egoera salatzeko [#IkaslePisuakZer kanpaina](#) burutu da.

Aipamen berezia merezi du **Gune Anitza** ziguilari bultzada emateko orain arte atxiki diren espazioei eskainitako tarteak. Bideo labur zein [luzean](#) euren arrazoi, motibazio eta ziguilutik lortutako onurak kontatzen dituzte.

Uda ostean lantalde eta ekintzetan garatutako diskurtsoa gizarteratzeko eta nazioarteko egunen harira EGKren posizionamendua zabaltzeko, zenbait bideo egin dira. Gazteek pairatzen duten prekaritatearen aurrean eskatzen dutena eta aldarrikapenak batzeko [#LanEgokia kanpaina](#), esaterako.

Ildo horretan, antolatutako ekitaldiei ahalik eta oihartzun gehien emateko zenbait bideo egin dira. Konfinamenduaren ostean etxebizitzan jarritako fokua aprobetxatuz genero-ikuspegitik aztertzeko [#ZutabeakArrakalatzen jardunaldia](#) zabaltzeko hizlariak galderak planteatu zituzten; eta, ostera, ekitaldia bera [streaming bidez](#) igorri zen.

Azkenik, egun pil-pilean dauden bi gai jorratzeko beste hainbeste bideo egin dira. Batetik, berdintasun lan-arlotik maskulinitatean [jarri da fokua](#) azaroak 25, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Eguna, baliatuz. Bestetik, gazteek COVID-19ko pandemiak sortutako egoera zaurgarrietan egindako lana nabarmentzeko boluntariotzari buruzko [bideo bat](#) egin da.

Linkedin:

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko (EGK) marka indartzeko duela urte batzuk LinkedIn orria sortu zen. 2020an zehar ez da eduki berezirik sortu sare sozial honetarako, baina COVID-19aren aurrean EGK-k eskainitako aholkularitzari oihartzuna emateko baliatu da, bereziki konfinamendu garaian sortutako zalantzen aurrean baliabideak, erantzunak eta informazioa non zegoen errazteko.

Ebaluazioa

Instagram:

Azken urteetako joera jarraituz, 2020an ere gorakada nabarmena izan du EGKren Instagram kontuak. Gazteen artean erabili den sarea da eta poliki-poliki bidea egiten ari da Kontseilua.

Urtea (abendua)	Jarraitzaile kopurua	Jarraitzaile berriak
2020 (abendua 9 arte)	1336	+144
2020ko ekainak 30	1.192	+159
2019	1.033	+253
2018	780	+374
2017	406	+223
2016	183	

Bestelako estatistikak lortzerako orduan, Instagram sarea da zailtasun gehien jartzen dituen. Hala ere, argitalpenak begiratz gero, begi-bistakoa da gero eta emaitza hobeak ematen ari dela sare soziala. Batetik, aipatu den bezala, jarraitzaile kopurua goraka doalako nabarmenki. Bestetik, aurrekoarekin estuki lotuta, atsegite eta interakzio kopuruak ere goraka egin dutelako, batez ere, story-ak publikatu direnean.

Ildo honetan, mosaiko moduko argitalpenak eta story bitartez iritzi bilketak egiteak ere asko lagundu du.

Aipamen berezia merezi dute egin diren zuzenekoek. Bai konfinamendu garaian txostenak aurkezteko egindako zuzenekoek edo elkarteek egindako lana azpimarratzekoek zein urte amaieran gazte boluntarioen esfortzua nabarmentzeko egindakoek publiko eta gazte berrietara gerturatu du EGK.

Twitter:

2019ko ibilbideari jarraituz urte oso ona izan da 2020a ere. Lehen seihilekoa oso zaila izan da gazte ororentzat konfinamendua eta pandemiari erantzuteko neurriengatik, hainbat zailtza eta

erronka sortu direlako. Bide horretan, EGKtik ahalik eta informazio gehien elkarbanatu da, azaleratutako datuei buruzko testuingurua plazaratu eta une oro fokua gazteek bizitako egoeran jarritz. Horiek dira apiriletik ekainera bitartean izandako gorakadaren arrazoiak.

Hilabetea	Inpresioak	Profilera bisitak	Jarraitzaile berriak
Urtarrila	24.200	296	+8
Otsaila	33.400	232	+9
Martxoa	52.900	477	+9
Apirila	36.1000	339	+17
Maiatza	46.700	578	+13
Ekaina	30.600	561	+20
Uztaila	22.200	235	+2
Abuztua	15.000	189	+9
Iraila	24.300	397	+11
Urria	37.400	704	+4
Azaroa	38.300	1.890	+19
Abendua (9a arte)	16.600	733	+2 (3.342)
Guztira	702.600	6.631	123
<i>2019an</i>	<i>490.300</i>	<i>8.412</i>	<i>+121 (3.215)</i>

Horretaz gain, Twitter sareak hainbat datu boladaka pilatzeko aukera ematen du. Jarraian dagoen taulan hiru hilabeteka bildu dira bidalitako txioek lortu duten eragina neurtzeko hainbat:

	Urtarrila/martxoa	Apirila/ekaina	Uztaila/iraila	Urria/abendua	Guztira
Inpresio kopurua	110.500	113.700	59.800	93.100	377.100
Interakzio-tasa (%)	0,8	1,5	1,0	1,3	1,2
Esteketan klikak	290	129	103	189	711
Birtxioak	132	192	70	145	539
Atsegindut	195	303	151	354	1.003
Erantzunak	117	122	42	94	375

Datu hauek azken urteetan sare sozialean izandako jarrera aldaketa berresteko arrazoiak ematen dituzte. Proiektuka mezu gehienak traola batean pilatuz eragin handiagoa izan da, informazioa aurkitzea erraztu da eta marka indartu da. Bestetik, irratan edo telebistan izandako elkarrizketei edo ekitaldiei egindako unean uneko jarraipenak birtxioak, erantzunak edo atsegin erreakzioak areagotu ditu. Era honetara, erabiltzaileek txio bat ikusiz gero, ekitaldiko gainerako mezuetara errazago hel daitezke. Eta, gainera, beste edozein unetan proiektu horren jarraipena berrerabil daiteke eta honen oihartzuna areagotu.

Facebook:

Facebook sare sozialean trafikoa beheraka egin du nabarmen eta EGKren orrialdeko kasuan ez da ezberdin izan. Azken urteetan jarraitzaile gorakada asko moteldu da eta baita orrialdera heldutako trafikoa edo argitalpenek lortutako interakzioak ere. Horri aurre egiteko ikus-entzunezko baliabideen presentzia areagotu da eta zabalpenak beste eragileekin elkarlanean egin dira oihartzuna areagotzeko. 2020 urtea 4.077 jarraitzaileekin hasi zuen eta, orduetik, lortutako inpaktuak nabarmenki jaitsi dira. Beheko taulan bildu da jarraitzaile kopurua:

Hilabetea	Jarraitzaile berriak
Urtarrila	+1 (4.078)
Otsaila	-7 (4.071)
Martxoa	+3 (4.074)
Apirila	+1 (4.075)
Maiatza	+1 (4.076)
Ekaina	+2 (4.078)
Uztaila	+10 (4.088)
Abuztua	+2 (4.086)
Iraila	+4 (4.090)
Urria	-6 (4.084)
Azaroa	+5 (4.089)
Abendua (10a arte)	+12 (4.101)
Guztira	+61
2019	4032 (+50)

7.4 Webguneen mantenua

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak bere eguneroko lana egiteko hainbat webgune ditu, bakoitza bere domeinu, zerbitzari eta mantenuarekin. Horretarako, kanpo enpresak hautatu dira. Horretaz gain, bai Lantalde Teknikoa zein Batzorde Iraunkorra komunikatu ahal izateko Gmail kontu bat dute (bigarrena soilik zabalpen-zerrenda da).

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren webguneek (www.egk.eus, www.egk.org, www.astialdiforaa.org), zerbitzariak eta email zerbitzuek funtzionatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Urtean zehar sor daitezkeen arazoen aurrean laguntza teknikoa izatea irtenbidea ahalik eta azkarren topatzeko.
- Webguneak programazioaren eta diseinuaren munduan emandako aldaketetara moldatzea.

Garapena

www.egk.eus:

EGKren jarduna adierazteko bide nagusia izanda, esfortzu berezia egiten da ondo funtziona dezan. Era berean, edukiaz gain webgune eguneratua izan dadin eraberritu egiten da tarteka eta hobekuntzak txertatzen dira. 2020an zehar sare sozialekin interakzioa errazteko neurriak hartu dira, programazio kontuak arindu zenbait orrialde motelago zihoazelako eta irisgarritasuna bermatzeko zenbait ezaugarri moldatuz. Ildo honetan, webgunean gero eta eduki gehiago dagoenez, albiste bakoitzean orain argitaratu zen eguna jartzen du, erabiltzaileak testuinguru guztia izan dezan.

Zerbitzaria, SSL ziurtagiria eta kontu teknikoak:

Duela urte batzuk https ziurtagiria indarrean ezarri zen eta azken boladan Google bezalako erabiltzaileek zenbait orrialde arriskutsu bezala adierazten zituzten hau izan ezean. 2019an ziurtagiria lortu zen eta 2020an zehar segurtasun enpresek eta mantentzea eskaintzen dutenek emandako aholkuak jarraitu dira egunean izateko webguneak.

Ebaluazioa

- EGK-k dituen webguneek urtean zehar euren zerbitzua arazo gabe eskaini dute.

- Egin beharreko aldaketak, SSL ziurtagiria lortzea esaterako, modu azkar eta errexean egin dira.

7.5 www.egk.eus webgunearen mantenua

EGK-ko komunikazio kanal nagusia webgunea da (www.egk.eus). Egunerokoa sortzen diren albisteen berri ematen da, garatzen diren txostenak igo eta antolatutako ekitaldien argazki-galeriak publikatu. Era berean, agenda atalean bai EGK-k zein bestelako eragileek antolatutako ekitaldien berri ematen da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-k egiten duen lanaren berri ematea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK- antolatzen dituen ekitaldien berri ematea.
- EGK-k antolatutako ekitaldien ondorioak biltzen dituzten txosten, manifestu, posizionamendu eta bideoak zabaltzea.
- EGK osatzen duten elkarten eta euren ekitaldien berri ematea, zerrenda ahalik eta eguneratuena eskaintzea.
- EAEko gazteentzat interesgarriak diren ekitaldien berri ematea agenda atalean.

Garapena

Webguneako testuak eguneratu:

Prozesu luze baten ostean 2016an www.egk.org domeinutik www.egk.eus domeinura pasatzeaz gain diseinu berria aurkeztu zen. Ordutik gazteen eta, ondorioz, EGKren errealitatea aldatu denez 2020an zehar webgunean aurkezten ziren testu guztiak moldatu dira Lantalde Teknikoaren eta Batzorde Iraunkorrarekin elkarlanean.

Kolaborazioen zabalpena:

EGK-k izandako ibilbidea dela-eta, azken urteetan zenbait kolaborazio egin dira hedabideetan **7.11** atalean zehaztu den bezala. Ohiko Gazteberri Aldizkariko iritzi-artikuluak eta Radio Euskadiko Ganbara saioan izandako tertuliak zabaltzeaz gain, COVID-19ak gazteen bizitzan izandako eragina aztertzeko egindako agerraldiak ere zabaldu dira, besteak beste ETB1eko Eztabaida saioan edo ETB2ko En Jake saioan.

EGK-ko elkarte, administrazio eta beste eragileen ekitaldiak:

EGK osatzen duten elkarteek, hitzarmena sinatutako administrazioek zein bestelako eragile edo gazte-taldek EAEko 16 eta 30 urte bitarteko gazteei bideratutako ekitaldien berri izatean webguneko agendan sartu dira.

Ebaluazioa

2020	Saioak	Erabiltzaileak	Bisitatuko orriak
Urtarrila	1.659	1.325	3.596
Otsaila	3.384	3.023	6.697
Martxoa	2.170	1.609	4.040
Apirila	1.475	1.162	2.863
Maiatza	1.540	1.210	3.177
Ekaina	1.503	1.226	3.021
Uztaila	979	815	1.845
Abuztua	3.052	2.782	4.433
Iraila	1.797	1.427	3.648
Urria	1.704	1.361	3.626


Azaroa	2.638	2.000	5.651
Abendua (9a arte)	476	390	1.106
Guztira	22.377	18.330	43.703
<i>2019an</i>	<i>37.230</i>	<i>30.122</i>	<i>70.318</i>

Datu asko dira eta garrantzitsua da testuinguru bat ematea. Otsailean sekulako gorakada eman zen **Etikasi** programako deialdia ireki zelako. Bake eta bizikidetzaz lan-arloarekin elkarlanean zabalpen handia egin zen eta horrek erabiltzaile kopurua nabarmenigo zuen. Era berean, oso positibotzat ikusten da bisitatutako orriak ere asko igo izana, izan ere honek esan nahi du bestelako edukiak ere ikusi zituztela.



Aste Santu eta udako oporren garaian, ohikoa den bezala, erabiltzaile kopurua jaitsi da eduki aldetik ere webgunean gutxiago eskaintzen delako eta gazteen egitekoak bestelakoak direlako. Ildo honetan maiatzeko ezohiko datua konfinamendu ostean berriro kalera irteteko aukerarekin azal daiteke.

Azkenik, abuztuko ezohiko gorakada Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean aurkeztutako **#MaskaraBeti** kanpainaren eragina da. Hedabide zein sare sozialen bitartez zabalpen handia egin zen eta, horren ondorioz, erabiltzaile gehiago sartu ziren webgunera.



Jarraian webgunearen erabiltzaileei buruzko bestelako datuak:

Adina


Aurreko urteetan bezala, erabiltzaileen gehiengoa gaztea da. EGKren webgunera sartzen den ia hirutik bat 25 eta 34 urte bitartekoa da, zehazki %21,7a. Beheko grafikoan ikus daiteke zehatzago:



Generoa

Google Analytics erremintak ez du ahalbidetzen hirugarren generoa aukera bezala ateratzea estatistiketan, horregatik daude soilik emakumezko ala gizonezko aukerak. 2020an erabiltzaileen gehiengoa emakumea da: %64,6-%35,4. Aurreko urteetako joera zertxobait gehiago areagotu da, baina apenas hamarrekoko batzuk.

	Saioak (%)	Saioak
Emakumezkoak	%64,6	5.876
Gizonezkoak	%35,4	3.227



Bisiten jatorri demografikoa

Bisitarien jatorria edo webgunera nondik sartzen diren jakitea ere interesgarria da. Hona hemen webgunera bisita gehien egiten dituzten hiri eta herrien zerrenda:

1. Ezarri gabea (%24,03)
2. Bilbo (%20,91)
3. Donostia (%10,79)
4. Gasteiz (%7,35)
5. Madrid (%6,52)

7.6 Lan-arloka sarea sortu

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren helburua gazteen eta administrazioen artean zubi-lana egitea da. Horretarako, ahalik eta gazte eta gazte-elkarte gehienekin du harremana, bai plataformako kide direnekin zein ez direnekin ere. 2020an gainera, COVID-19ak eragindako krisi

multisektorialean esfortzu berezia egin da sarea zabaltzeko eta izandako harremanak ahalik eta eraginkorrenak izateko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren lan-arlo bakoitzeko harreman-sarea indartzea eta sakontzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Lan-arlo bakoitzak egiten dituen lantalde, bilera edo ekimenetan parte-hartzaile kopurua igotzea.
- Elkarlanean eragile gehiagorekin aritzea.
- EGK ezagutaraztea.
- EGKren marka sendotzea.
- COVID-19ak sortutako arazoen aurrean ahalik eta gazte gehieni laguntzea.

Garapena

Urteko plangintza:

EGKtik antolatutako proiektu orori begira helburu berdinak dituzten eragileen zerrenda egin da. Batetik, haiekin elkarlana bilatzeko eta aukera balego euren esperientzia jardunaldi edo topaketetan azaltzeko. Gainera, honela, zabalpenerako bigarren eragile bat ere badago. Bestetik, gazteei bideratutako antzeko egitaraua antolatzen duten espazio edo agenden zerrenda egin da, haien zerbitzuen bitartez zabaltzeko ere. Azkenik, hiri edo lurraldeko eragileen zerrenda ere egin da informazioa haiei bidali eta antolatutako proiektura gonbidatzeko.

Berdintasun lan-arloa:

Aipatutako plangintza orokorraz gain, berdintasuna zeharkako balorea denez mapeo sakonagoa egin da berdintasun lan-arloarekin elkarlanean. Era honetara, proiektu orotan genero-ikuspegia txertatzea lortu da eta arloko sarea indartzea ere. Azkenik, lortutako harreman horiek baliatu dira

proiektu zehatzetarako: maiatzak 18ko Instagram zuzenekoak, azaroak 25eko bideoa eta protokoloen eraberritzea, besteak beste.

COVID-19:

Pandemiak gizartea orokorrean eta gazteak bereziki gogor jo ditu. Ez zegoen antzeko egoeraren aurrekaririk eta erantzuna ematea ez da erraza izan. Ildo horretan, EGK-ko elkarteei, bestelako gazte-talde edo eragileei zein norbanakoei ahalik eta zerbitzu egokiena eskaintzeko eta administrazioek hartutako neurrien informazio zehatzena izateko kontaktu ugari egin dira EGKren aldetik. Era berean, sortutako zalantza edo egoera berrien aurrean eragileekin harremana bilatu da sinergiak lortzeko. Horren fruitu izan dira, besteak beste, argitaratutako paneltxo informatiboak.

Ebaluazioa

- EGKren publikoa 16 eta 30 urte bitarteko gazteak dira, hau da, une oro aldatzen ari den kolektiboa. Behar berriak identifikatzen dira, eragileak desagertzen eta sortzen doaz eta administrazioek maiz bideratzen dituzte programa edo egitasmoak. Hori dela-eta, beharrezkoa da harremanak ahalik eta eguneratuenak eta sendoenak izatea.
- Beraz, hurrengo urteetan egindakoa oinarri izanda osatzen eta berritzen joango da komunikazio teknikaria, Lantalde Teknikoaren, Batzorde Iraunkorraren eta lan-arloetako lantaldeen laguntzarekin.

7.7 Gizarte Aldaketarako Herritartasuna

Deustuko Unibertsitateak hautazko modura Gizarte Aldaketarako Herritartasuna ikasgaia eskaintzen du Donostiako campusean. Ikasturteko bigarren seihilekoan (otsaila-maiatza) Fakultate guztietako ikasleek aukera dezakete ikasgai hau. Ikasleei gizartean eraldaketa sortzeko eragin-plana egitea eskatzen zaie eta, bide horretan, kanpo aholkularitza eskaintzen

dute zenbait elkarte: SOS Arrazakeria, ALBOAN, Loiola Etxea eta EGK-k, aurten bi ikasle-talderi gainera.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Deustuko Unibertsitateko ikasle-talde bat aholkatzea herritarren partaidetzaren gaineko eragin plan txiki baten diseinuan, garapenean eta ebaluazioan.

HELBURU ZEHATZAK:

- Deustuko Unibertsitateko ikasleen partaidetza sustatzea.
- Gizarte eraldaketa lortzeko partaidetzaren garrantzia ikasleei ikusaraztea.
- Deustuko Unibertsitatearekin harremana sendotzea.
- EGKren sozializazioan laguntzea eta EGK gazteen artean ezagutaraztea.

Garapena

EGKren aurkezpena:

Otsailaren 25ean Deustuko Unibertsitatearen Donostiako Campusean EGKren aurkezpena egin zen. Ikasgaiaren helburua gizartean eragitea da eta, tutoretza egingo duten elkarteek ikasle-taldeei zertan lagun diezaieketen ulertzeko, banaka proiektuak eta lan egiteko moduak aurkeztu ziren.

Lehen bilerak:

Aurkezpenaren ostean bi ikasle-taldeak EGKrekin harremanetan jarri ziren eta lehen bilera eguna zehaztu zen. Lehen taldearekin lehen bilera martxoaren 5ean izan zen. Ikasle-taldeak proiektuaren nondik norakoak aurkeztu zituen: emakumearen kosifikazioa eta horri buruzko kontzientziazio kanpaina Deustuko ikasleen artean. Horretaz gain hurrengo asteetarako egutegi bat finkatu zen. Bigarren taldearekin bilera ezarri zen, baina COVID-19ak hankaz gora jarri zituen bi kronogramak.

COVID-19aren eraginez moldaketak:

COVID-19aren kutsadura saihesteko neurriak zirela-eta, bilera presentzialak egiteko aukera alde batera utzi zen. Ikasgaiko irakasleekin hitz egin ostean zein ikasle-taldeekin komentatu ostean bilerak modu telematikoan egitea adostu zen, haien lana ahal zen heinean egiten jarraitu ahal izateko.

Martxoaren 23ko astean bi taldeekin egin zen lehen bilera eta, ordutik aurrera, bi-hiru astean behin. Berrogeialdiarekin lehenik eta ostean deseskaladarekin oso zaila egin da proiektua aurrera eramatea. Proiektua ezin atzeratzeak ahal bezala aurrera eramatea ekarri du eta galdetegi, bideodei zein antzeko baliabideen bidez egin da lan.

Eragin soziala izateko plana:

Aurreko urteekin alderatuta oso zaila egin da ebaluazio zehatza egitea. Informazioa lortzeko iturri guztiak telematikoak izan dira, ezin izan da modu presentzian egin.

Ebaluazioa

- COVID-19aren eraginez kronograma eta planteamenduak errotik aldatu behar izan dira, horrek sortutako arazo eta oztopo guztiekin.
- Ikasleei jarraipena egitea zailagoa izan da. Euren egunerokoan zalantza mordoa izan dituzte, informazio falta batzuetan. Eta buruan zutena kolpez aldatzea ez zaie erraza egin.

7.8 Bilbo Instagramer lehiaketa

Bilbao Gazte plataformaren helburua hirian gazteentzako antolatzen diren ekitaldiak zabaltzea da, ez soilik Bilbao Gazteak edo Bilboko Udaleko Gazteria sailak antolatutakoak. Azken urteetan YouTube bitartez egindako apustua 2020an Instagramen egin da eta egungo planak beste modu batera helarazteko bi gazte hautatu dira.

Lehiaketa honetan EGK epaimahaiko kide izan da. Ezarritako baldintzak haien webgunean eta sare sozialen bidez zabaldu ziren: 18 eta 25 urte bitartekoa izatea, Bilbon errolatuta egotea eta euskara zein gaztelania jakitea.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Bilbon dagoen eskaintza zabaldu eta honi buruz gazteek duten iritzia pilatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Bilboko Udalak eta gazteriaren artean harremana sendotzea.
- EGK Bilboko gazteen artean ezagutaraztea.

Garapena

Deialdia:

2020ko irailean Bilboko Udalak, Bilbao Gazte markaren bitartez, bere instagramerrak aukeratzeko lehiaketaren zabalpena egin zuen urriaren 14a arte. EGK-k honen oihartzuna egin zuen webgunearen eta sare sozialen bitartez.

Aurre-aukeraketa:

Behin parte-hartzaile guztien bideoak jasota, EGKtik hauek ikusi eta balioetsi dira Bilboko Udalak ezarritako irizpideen arabera.

Elkarriketak:

Urriaren 19an arratsaldean parte-hartzaileei elkarriketa egin zitzaion aukeraketa osatzeko. Ostean, Bilbao Gazte plataformak hautatuei jakinarazi die eta hurrengo hilabeteetan bideo bana egingo dute Bilbon dagoen eskaintza zabaltzeko.

Ebaluazioa

EGKrentzat antzeko epaimahaietan egotea beti da interesgarria. Batetik, administrazioekin lehen eskuko harremana izaten delako eta zuzen-zuzenean jakiten delako gazteei bideratutako proiektu eta politikak nolakoak diren. Bestetik, gazteengana gerturatzeko aukera ona delako egiten dituen egitasmoak azaltzeko.

7.9 Barne komunikazioa

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren komunikazio oro ez da kanpora begirakoa. Barne komunikazioa ere oso garrantzitsua da eta, hau, komunikazio teknikariaren ardura da presidentearekin koordinatuta. Batetik, Lantalde Teknikoa osatzen duten lan-arloen artekoa; bestetik, Lantalde Teknikoa eta Batzorde Iraunkorraren artean; eta, azkenik, EGK osatzen duten erakundeekin. Hiru euskarri hauen funtzionamendu egokiak soilik bermatzen du EGKren funtzionamendu egokia eta eraginkortasuna..

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko (EGK) barne-komunikazioa hobetzea, bai Lantalde Teknikoa osatzen duten lan-arloen artean, bai Lantalde Teknikoaren eta Batzorde Iraunkorraren artean eta bai hauen eta EGK osatzen duten elkarteen artekoa.

HELBURU ZEHATZAK:

- Lan-arloen artean sinergiak sortzea. EGK osatzen duten erakundeekin harremana sendotzea, haien presentziari garrantzia gehiago emanez (webgune, sare sozial, **Piztu! buletin digitala**).
- Bileren denbora murriztea eguneroko komunikazioa arinagoa eginez eta hobetuz.

Garapena

Aurreko urteetan bezala, barne komunikazio ahalik eta onena izateko zenbait neurri hartu dira.

- EGKren egitekoarekin zerikusia duten gaien jarraipena egiteko egunero hainbat egunkari eta aldizkari begiratzen dira. Horietan zerbait interesgarria aurkituz gero, lan-arloko teknikariari bidaltzen zaio. Gaia orokorragoa bada edo eragina zabalagoa bada, lantalde osoari bidaltzen zaio.
- EGK-k komunikabideetan dituen agerpenak lan-arloko teknikariari bidali eta Excel batean gorde. Horretaz gain, Excel-a lantaldearekin elkarbanatua dago teknikari bakoitzak nahi duenean kontsulta dezan. Era berean, kanpaina bakoitza egiten denean, honek lortutako emaitzen berri ematen zaie: sare sozialetan izandako inpaktua, erabiltzaileengandik jasotako erantzunak, etab.
- Sare sozialetan tarteka bilaketak egiten dira Lantalde Teknikoak eskuartean dituen gaien gainean zer esaten den jakiteko: gazteen iritzia, hitzarmena sinatua dagoen administrazioek zerbait esan duten, etab.
- Batzorde Iraunkorrak eta elkarteek EGKren jardunaren berri jasotzen dutela bermatu, EGKren tresnen bitartez, batik bat posta elektronikoa. Administrazioarekin batera egiten den lana da hau.
- Teknikariei, eta Batzorde Iraunkorrari hala eskatzen badu, komunikazio laguntza eman (zuzenketak, aholkularitza, estilo-ildoak...).

Horretaz gain, COVID-19aren ondorioei aurre egiteko esfortzu berezia egin da.

Konfinamendu garaia:

COVID-19aren ondorioz ezarritako konfinamendu garaian esfortzu berezia egin da barne komunikazioa indartzeko. Lantalde Teknikoko langile bakoitza bere etxean egon denez hilabeteetan, presidentearekin elkarlanean neurriak hartu dira informazio trukea mantentzeko eta lan-arloen arteko informazio trukea mantentzeko. Era berean, hartutako neurriei buruzko informazioa gizarteratzeko eta aholkularitzak eskaintzeko koordinazioa indartu da.

Ikasturte berria:

Ikasturte eta normalitate berriarekin eta ekitaldiak antolatzearekin batera informazio trukea mantentzeko eta ezagututako baliabide edo metodologiaren berri elkarri emateko neurriak hartu dira.

Ebaluazioa

Barne-komunikazioa arintzea eta hobetzea izan da asmoa. Hein handi batean lortu da, bai Lantalde Teknikoaren barnean bai honen eta Batzorde Iraunkorraren artean. Aurreko urteetako jarduna jarraituz, lan-arloen arteko sinergia eta elkarlana oso garrantzitsuak izan dira barne komunikazioa hobetzeko eta plangintzako proiektuak aurrera eramateko. Ildo honetatik, presidentearekin koordinatuta, barne antolakuntzarako egindako bilerei beste ikuspegi bat eman zaie COVID-19ak sortutako egoeraren aurrean erronkei ahalik eta modu eraginkorrean erantzuteko.

7.10 Komunikabideekin harremana

Urteko plangintzan islatutako proiektuen zein hauetan sortutako ondorioen berri ematerako orduan hedabideen laguntza oso baliagarria da, baita EGK-k parte hartzen duen ekimenen hedapenerako ere. Era berean, gazteekin zerikusia duten gaietan iritzia eskatzea ohikoa da.

2020a oso urte berezia izan da unean uneko gaiak sortu direlako: COVID-19ak sortutako informazioarekin bizitako nahasmenak, ikasle pisuen arazoa eta identifikatutakoa gizarteratu beharra, gazteei buruz esandako aurreiritzi eta estereotipoen aurrean EGK-k egindako defentsa, etab.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskadiko gazteen interesekoak diren edo izan daitezkeen gaiak hedabideen eta, beraz, gizartearen agenda mediatikoan eta sozialean txertatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren jarduera eta iritzia hedabideetan azaltzea.
- Hedabideetatik jasotako proposamenak kudeatzea.
- Gazteen ikuspuntua txertatzea.

- Ekimen eta iritziak hedabideen bitartez gizarteratzea.

Garapena

Egunerokoan, bai proiektu konkretuen zabalpenean zein bestelako kontuekin, hainbat hedabide EGKrekin harremanetan jarri dira gazteen iritzia eta diskurtsoa ezagutzeko. Hauei erantzuteko, honakoak egin dira:

- Prentsaurrekoak eta prentsa-oharrak.
- EGKren ekitaldien berri eman hedabideen agendan argitaratzeko.
- Hedabideek eskatutako elkarrizketak kudeatu.
- Kazetarien eskaerak eta proposamenak kudeatu.

Horretaz gain, azken urteetan egindako lanaren ondorioz, zenbait kolaborazio edo ohiko agerraldi lortu dira.

Gazteberri Aldizkaria:

Aurreko urteetan bezala, EGK-ko presidenteak hilero iritzi-artikulua sinatu du Gazteberri Aldizkarian. Aukera ezin hobea izan da unean uneko gaiei buruz EGKren posizionamendua argi uzteko: gazteen aldarrikapenak, pairatutako egoera, gertakari edo esandakoen aurrean erantzuna emateko, etab. Jarraian iritzi artikulua:

- Urtarrila: **#GazteAgora** eta gazteen saretzea <https://www.gazteberri.eus/?p=7047>
- Otsaila: belaunaldi arteko proiektuak <https://www.gazteberri.eus/?p=7117>
- Martxoa: ikasle gazteei bideratutako garraioa <https://www.gazteberri.eus/?p=7133>
- Apirila: COVID-19ari aurre egiteko neurriak <https://www.gazteberri.eus/?p=7184>
- Maiatza: etxebizitza politikan aldaketa <https://www.gazteberri.eus/?p=7276>
- Ekaina: gazteen lan egoera prekarizatua <https://www.gazteberri.eus/?p=7330>
- Uztaila: astialdiko taldeen lana <https://www.gazteberri.eus/?p=7335>

- Abuztua: **#GazteAgora** ondorioak <https://www.gazteberri.eus/?p=7382>
- Iraila: COVID-19a dela eta esandakoen aurrean <https://www.gazteberri.eus/?p=7438>
- Urria: Gazten lan egokien aldarria <https://www.gazteberri.eus/?p=7585>
- Azaroa: Azaroak 25, fokua maskulinitatean <https://www.gazteberri.eus/?p=7730>
- Abendua: memoria entregatu zen egunerako ez zen argitaratu.

Hurrengo urtean jarraipena ematea da asmoa.

Ganbara:

Radio Euskadi saio honek **#GanbaraDeCerca** deituriko tertulia soziala egiten du gaurkotasunekoak diren gaiak errepasatzeko. Hilabeteen behin, asteazken gauez, EGK-ko presidentea tertulia honen parte izan da azken urteetan. 2020an, COVID-19 eta udako etenaldia dela eta, maiztasuna ez da berdina izan. Jarraian tertuliak:

- Otsaila <https://bit.ly/37lxdaf>
- Martxo <https://bit.ly/3aqLIXS>
- Apirila <https://bit.ly/3craT7L>
- Maiatza <https://bit.ly/2XeYOlq>
- Urria: <https://bit.ly/3nQnHLr>
- Abendua <https://bit.ly/2VZrJnX>

Eztabaidan:

2020an EITBk estreinatutako saioan COVID-19aren azken berriak eta honek eragindako ondorioak aztertu izan dira. Gazteen iritzia, lekukotzak eta ikuspegia mahai gainean jartzeko EGK-ko presidentea zenbaitetan izan da gonbidatua:

- Ekainak 19 <https://bit.ly/2AWGotb>
- Ekainak 26 <https://bit.ly/2VpVpul>
- Uztailak 1 <https://bit.ly/2ZC5Hsl>

Kanpainak eta ekitaldiak:

Egunerokoan EGK-k egindakoaren berri eman denez, zenbait proiektuk oihartzun asko izan dute:

- Zoritarrez, oraindik Indarkeria Matxista gazteen artean ematen den errealitatea denez berdintasun protokoloak maiz aktibatu behar izan dira eta, kasu horietan, hedabideek EGKren eskariak eta aldarrikapenak txertatu dituzte.
- COVID-19a dela eta, ikasle pisuen egoera azaleratu zuen EGK-k **#IkaslePisuakZer** kanpainaren bitartez. Lekukotzak eskatzeko, errealitateari buruz gehiago jakiteko eta proposatutako irtenbideak zein ziren jakiteko hainbat hedabide jarri dira harremanetan Kontseiluarekin.

COVID-19a:

Urte gogorra izan da gizartearentzat eta, bereziki gazteentzat, COVID-19a dela eta. Pandemia zein konfinamendua nola bizi dituzten jakiteko, EGKren iritzia ezagutzeko, garatutako panel informatiboen berri izateko, etab. hainbat hedabide jarri dira harremanetan Kontseiluarekin.

Ebaluazioa

Aurreko urteetan bezala, EGK-k komunikabideetan izan dituen agerpen guztien jarraipena egin da. 2020an zehar komunikabideetan izandako agerpen guztiak ikusi nahi izanez gero, esteka honetan bilduta daude:

[Agerraldien zerrenda](#)

7.11 Beste lan-arloekin harremana

EGK-k jarduera ugari egiten ditu urtean zehar. Komunikazio lan-arloarekin zerikusi zuzena ez badute ere, teknikariaren ardura da hauen zabalpenean laguntzea eta gainerako lan-arloekin —etxebizitza, enplegua, hezkuntza, partaidetza, berdintasuna, bakea eta bizikidetzak, koordinazioa eta administrazioa— elkarlanean aritzea.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-k, bakarrik edo beste administrazio edo elkarterekin batera, antolatzen dituen proiektuak gizarteratzea eta gazte erakundeen artean komunikazioa, harremana eta trukaketa sustatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Aurrera eramandako proiektuek oihartzuna izatea hedabideetan.
- Hedabideek egindako erreportajeetan Kontseiluaren ahotsa kontuan izatea.
- Kanpaina espezifikoek bidez argitalpenarekin zerikusia duen oro zentralizatzea.
- Jorratutako gaiak eta gazteok hauei buruz duten iritzia gizarteratzea.

Garapena

Lan istripuen aurkako protokoloa:

Urteak darama EGK-k gazteek pairatzen duten prekaritatea salatzen, are gehiago krisi ekonomikoak eztanda egin zuenetik. Zoritarrez, egoera ez da hobetu eta hainbat lan istripu izan dira 2020an zehar: [urtarrilaren 9an](#), [otsailaren 25ean](#), [martxoaren 6an](#), [maiatzaren 21ean](#), [ekainaren 22an](#), [irailaren 7an](#). Horien aurrean, EGKtik protokoloa aktibatu da gertakaria salatu eta aldarrikapenak gizarteratzeko. Bakoitzarekin albisteak argitaratu da webgunean, sareetan mezua eta eskariak zabaltzeko eta prentsa-oharra bidali hedabideetara egoeraren larritasuna gizarteratzeko. Sakonago azaldu da **22 atalean**.

Berdintasun protokoloa:

2016an onartu zirenetik egin bezala, ezagutza izan den gertakari ororen aurrean aktibatu dira. Horretaz gain, salaketa bereziak egin dira martxoan izandako [hilketa matxistaren](#) eta [berrogeialdiak azaleratu zituen](#) arazoaren aurrean edo hedabideetan izandako adierazpenen harira. Sakonago azaldu da **6.5 atalean**.

Emantzipa... Zer? lantaldea:

Enplegu eta etxebizitza lan-arloen lantaldearen bitartez gazteei bideratutako politika publikoak, egoera sozioekonomikoa erakusten duten datuak eta bestelako eragile edo elkarteek garatutako proposamenak aztertu dira 2020an zehar. Bertan jorratutakoa, gainera, [gaia gizarteratzeko](#) ere erabili da. Era berean, egindako diagnosia ahalik eta anitzena eta osoena izateko, hainbat deialdi zabal egin dira gazteak gerturatzeko eta, bilera bakoitzerako, webgunean albisteak egin da: [otsailak 12](#), [martxoak 27](#) (bi online bilera martxoak 30 eta apirilak 2 eta hauetan identifikatutako ondorioak azaleratzeko kanpaina) edo urriak 20. Sakonago azaldu da **1.1 eta 2.1 ataletan**.

Etikasi:

Bake eta bizikidetzat lan-arloak diseinatutako bidaia hezitzaile hauen bitartez 1. Batxilerreko ikasgelei Auschwitz eta Unibertsitateko eta Lanbide Heziketako 18 eta 30 urte bitarteko ikasleei Belfast bisitatzeko aukera eskaini zaie. Lehen eskutik gerrak eta indarkeria gordinak markatutako lekuak bisitatzeko potentzial pedagogiko handia eta iraunkorra dauka. Horregatik zabalpenean esfortzu berezia egin da: batetik, izen-ematea ireki zela jakinarazteko deialdi orokorra egin zen urtarrilaren 30ean ([albisteak](#) zein [prentsa-oharra](#)) eta, ostean, talde bakoitzari bideratutako zabalpena: Auschwitzeko informazioarekin [albisteak](#) zein [bideoa](#) (batez ere sareetan zabaltzeko) eta Belfasteko eskaintzarekin [albisteak](#) zein [bideoa](#) (hau ere sareetan zabaltzeko). Era berean, talde bakoitzerako mezu elektronikoa eta WhatsApp mezu espezifikoak egin dira. Unibertsitate eta Lanbide Heziketako ikastetxeetan esfortzu berezia egin da ahalik eta ikasle gehiagorengana heltzeko: eragileekin harremana, irakasleei proiektua azaldu, ikasgeletan azalpenak eman, publizitate kanpaina zehatzak, etab. Sakonago azaldu da **5.1 ataletan**.

Zientziaren arloko Emakume eta Neskatoen Nazioarteko Eguna (Otsailak 11):

2019ko Batzar Orokorrean Euskadiko Emakume Gazteak Lilith elkarteak egindako proposamenaren harira eta zientzian emakumeak izan behar duen papera aldarrikatzeko, adierazpena egin zen [EGKren sare sozialetan](#). Honetan Zientziaren arloko Emakume eta Neskatoen Nazioarteko Egunaekin bat egiten zen eta, aldi berean, egoera iraultzeko administrazioari hainbat eskari luzatu zitzaizkion. Sakonago azaldu da **2.3 eta 6.9 ataletan**.

Kirolean LGTBI+fobiaren Aurkako Nazioarteko egun (Otsailak 19):

Kirola gizarteko hainbat jokabideren isla da eta, horregatik, azken urteetan bezala Kirolean LGBTBI+fobiaren Aurkako Nazioarteko egunean [sareetan](#) hain deitoragarriak diren jarrerren aurrean EGKren jarrera irmoa agertzeko kanpaina egin da. Sakonago azaldu da **5.8 eta 6.9 ataletan**.

Emakume eta Gizonen Soldata Berdintasunaren aldeko Europako eguna (otsailak 22):
Nazioarteko egun honen harira emakume gazteen egoera plazaratzeko manifestu bat egin zen. Soldata arrakala adierazten duten datu eguneratuak aurkeztean gain, zazpi elkarterekin elkarlanean egindako [manifestu](#)aren bitartez errealitatearen irakurketa egin da, arrakala honek dituen eraginak azalduz eta egoera iraultzeko hainbat proposamen mahaigaineratuz. Hemen [albistera esteka](#). Bata zein bestea garatzeko egindako bilerak eragileekin sartzeko aukera paregabea izan da, are gehiago zabalpena elkarlanean egin denean. Honen bitartez, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde lan egiten duen eragile bezala, EGKren marka indartzea eta ezagutaraztea lortu da, gaia gizarteratzeaz gain. Sakonago azaldu **2.3 eta 6.9 ataletan**.

Martxoak 8:

Gazteriaren agendan berdintasuna lehen lerroan izan behar delako, EGKn feministotik lan egiten da, oinarritzko eta zeharkako balore gisa. Hezkuntzan, enpleguan, bakea eta bizikidetzan, etxebizitzan, komunikazioan, partaidetzan, administrazioan eta koordinazioan aldarrikapena zabaltzeko bidea egin da, hau [YouTube](#)n eta EGKren sare sozialetan eskegiz. Sakonago azaldu da **6.9 atalean**.

COVID-19:

Gizarteko eragile gehienei bezala, COVID-19aren krisiak egunerokoa errotik aldatu du. Sortutako zalantzak argitzeko, hartutako neurriek gazteengan izandako eragina aztertzeke eta EGKtik identifikatutakoa hedatzeko komunikazio esfortzu berezia egin da. Lehenik, kutsatzeak saihestu aurretik [etxetik lan egiteko hartutako erabakia](#) zabaldu zen.

Ostean, lan-arloka gazteen bizitzan izandako eragina aztertu da: berrogeialdian Indarkeria Matxista kasuen aurrean [ardura](#), **Emantzipa... Zer?** lantaldearen [deialdi berezia](#), administrazio ezberdinetatik hartutako neurriek gazteen [enplegu](#) zein [etxebizitza](#) egoeran izandako eragina

zabaltzeko aholkularitza-panelak eta, azkenean, EGKtik eskainitako [aholkularitza orokorraren paneltxo-informatiboa](#).

Era berean, garatutakoa gizarteratzeko hedabideetan EGK-k dituen aukerak baliatu dira, esaterako martxoko Gazteberri Aldizkarian [iritzi artikulua](#).

Azkenik, beste eragileen egindako lanak zabaltzeko eta hauen ondorioak gizarteratzeko esfortzua ere egin da, besteak beste UPV/EHUko Ikasle Kontseiluak egindako [galdetegia](#) eta honen zabalpena Instagram zuzeneko bitartez.

Migratzaileei buruzko aurreiritziei Planto! txostena:

Mugikortasun eta aniztasuna ez dira beti modu baikorrean ulertu. Maiz erresistentziak sortu dira eta hauen aurrean gizarte bezala erantzutea oso garrantzitsua denez, *Migratzaileei buruzko aurreiritziei Planto!* [txostena](#) modu berezian zabaltzeko nahi izan da. 2019an jorratutakoak eta hau osatzeko marko teorikoan azaltzen diren jarrerak gizarte hobe bat eraikitzen lagun dezaketelako. Ohiko [albisteaz](#) gain parte-hartzaile zein interesa izan dezaketen eragileei emailaz helarazi zaie eta [sareetan](#) aipatutako jarrerak lantzen dituzten elkarte eta taldeekin elkarlanean zabaltzeko da, besteak beste: Zas Antirrumores.

Islamofobia: feminismoak, erronkak eta ikuspegiak txostena:

Emakume eta gizonen arteko berdintasun erreala ez da erdietsi oraindik eta oztopoak identifikatu eta lantzeko asmoz egin zen topaketa 2019an. Izan ere emakume musulmanek zapalkuntza bikoitza pairatzen dute emakume izate hutsagatik. Egoera salatzeko, ondorioak gizarteratzeko eta konfinamendu garaian aurkezpen edo kontrasteak egitea zaila izan denez, ohiko [albisteaz](#) gain Instagram sarean [zuzeneko](#) egin da proiektuaren nondik norakoak, ibilbidea, ideia nagusiak eta etorkizunean emango diren pausuak azaltzeko. Era berean, parte-hartzaile, gonbidatu zein interesa erakutsi duten eragileei eta identifikatutako talde eta elkarteei bidali zaie [txostena](#).

Formakuntza Duala hobeto ezagutzen txostena:

Formakuntza Dualak gazteen bizitza-proiektuak duen eragina sakontasunez aztertzeko eta 2018an egindako txostena kontrastatzeko, 2019an zehar Gipuzkoako Lanbide Heziketako ikastetxe mordoarekin harremanetan jartzeko esfortzua egin da. Proiektua azaltzeaz gain,

diseinatutako galdetegia zabaltzeko eta hau osatzeko eztabaida-taldeak antolatzeko aukera planteatu zaie. Nola ez, hau guztia sare sozialen eta webgunearen bitartez egindako zabalpenarekin osatuta. Azkenik, ondorioak biltzen zituen [txostenaren](#) zabalpenerako aipatutako kontaktuak erabili dira. Sakonago azaldu da **2.4 atalean**.

Apirilak 28:

COVID-19ak enpleguan izandako ondorioei aurre egiteko neurriak hartu dira, baina ez dira nahikoak izan gazteok prekaritate egoerak ez bizitzeko. Horregatik, Lan Osasunaren Nazioarteko Egunean **Emantzipa... Zer?** lantaldeetik eta atxikitako elkarteetatik [manifestu bat](#) plazaratu da egoera gizarteratzeko, neurri gehiago aldarrikatzeko eta bizitako egoerak salatzeke. Era berean, datu eguneratuen beharra nabarmendu da, sortutako egoerari 2018ko datuekin erantzun baitzaio. Eta ez osatuak gainera, [albistean](#) salatu bezala. Sakonago azaldu da **2.3 atalean**.

#IkaslePisuakZer kanpaina:

COVID-19aren ondorioei aurre egiteko neurrien artean ikasleen pisuen alokairuari buruzkoen falta sumatu eta **Emantzipa... Zer?** lantaldeetik gaia jorratzeko proposamena jaso ostean **#IkaslePisuakZer** kanpaina aurrera eraman da. Ikasleen esperientzia eta bizipenetatik abiatuz, antolatu eta irtenbide elkarbanatuak bilatzea izan da asmoa. Oihartzun ahalik eta handiena lortzeko aipatutako traolan zentralizatu dira mezu guztiak: webgunean egindako [albistea](#), hedabideetara bidalitako [prentsa-oharra](#), honen ondorioz lortutako elkarriketa eta agerraldiak, sareetan banatutako mezua, biralitatea lortzeko [bideoa](#) edo WhatsApp mezua ere.

Ikasturte berriarekin deialdi berria egin zen egoera aztertzeke. **Emantzipa... Zer?** eta **Hezkuntza Foroko** kideek zein beste gazte batzuek esandakoagatik egoerak bere berdinean jarraitzen zuen eta aldaketa bakanak akordio puntualen ondorio ziren. Hori dela-eta, [irailean gaia sakonago landu](#) eta berriro gizarteratzeko kanpaina egin zen. Hedabideetan izandako oihartzuna azpimarratzekoa da.

Langileen Nazioarteko Eguna (maiatzak 1):

Gazteek bizi duten lan egoera exkaxa ikusita, maiatzaren 1ean hainbat egoera eta datu ezagutarazteke kanpaina egin da sare sozialetan eta, aldi berean, gazteei euren iritziagatik

galdetu zaie. Hemen bildutakoa **Emantzipa... Zer?** lantaldeko hurrengo deialdietan landu da. Sakonago azaldu da **2.3 atalean**.

Gune Anitza zigilua:

Aniztasunaren aldeotasuna erakusteko zigilua oso garrantzitsua da EGKrentzat. Azken urteotan espazioak atxikitzen joan dira eta 2020an ebaluazio modura eta espazio gehiago erakartzeko protagonistei ahotsa ematea erabaki da: zein diren euren arrazoiak, zergatik eman duten pausua, espazioak zer irabazi duen zigilua lortuta, zein den euren ikuspuntua, etab. Era honetara, gainera, hainbat eragilek egindako lana azpimarratu da. Zabalpenean laguntzeko [albiste](#) eta [bideo](#) egin dira. Sakonago azaldu da **6.4 atalean**.

Gazteak eta etxebizitza 2019 txostena:

Krisi ekonomikoak eztanda egin zuenetik gazteek are zailago izan dute emantzipatzea. Irtenbideak bilatzeko bestelako ereduak ikertu dira. Bide honetan eragileetara gerturatzeko, haien lana ezagutzeko eta topaketetarako informazioa bilatzeko esfortzua egin da. Eta, noski, azkenean emaitza zabaltzekoa ere, bai [webgunean albiste](#) eginda, sare sozialen atalean azaldu den bezala zuzeneko eginda edo bileren bitartez. Sakonago azaldu da **1.3 atalean**.

Etxebizitza galdetegia:

Gazteen errealitatea eta egoera ezagutzeko, administrazioek eskainitako laguntza eta zerbitzuei buruz duten informazioa jakiteko, identifikatutako arazoak eta zein eskatutako neurriak pilatzeko egindako kanpaina izan da. [Galdetegiaren bitartez](#) etxebizitzaren gaia lehen lerroan jartzea zen asmoa, COVID-19ko testuinguruan izandako aldaketak eta pisu turistiko edo etxe hutsen gaitan EGKren diskurtsoa osatzeko. Sakonago azaldu da **1.5 atalean**.

#ZutabeakArrakalatzen:etxebizitza eta generoa:

Emakume eta gizonen arteko berdintasun erreala lortzeko genero-ikuspegia politika publiko guztietan txertatzea ezinbestekoa da. Hori da metodologia egokiena. Bizitzako esparru guztietan bermatzeko eta erdiesteko, gainerakoan ez da helburua lortuko. Aurten etxebizitzan jarri da fokua eta hori ikusarazteko [zenbait adierazpen](#) egin dira urtean zehar gaia mahai gainean jartzeko, EGK posizionatzeko eta, azkenik, urri amaieran [#ZutabeakArrakalatzen](#) proiektuarekin

biribiltzeko. Honen zabalpenerako hizlariei galderak planteatzea eskatu zaie bideo batean, parte-hartzaileek jorratuko dena argiago ikus zezaten eta biralitatea bilatzeko asmoz. Ildo honetan, gaia landu duten eragileen mapeoa egin da informazioa pilatzeko, ekitaldia haiei kontatzeko eta sinergiak bilatzeko. Azkenik, egunean bertan unean uneko jarraipena egin zen, baita streaming bidez emititu ere COVID-19ari aurre egiteko neurrien ondorioz gazte asko ezin izan zirelako gerturatu. Sakonago azaldu da **1.2 eta 6.8 atalean**.

#IkusGaitezen:

Errealitateak eta gizarte egiturek sarritan ez digute **#IkusGaitezen** errazten, ezta elkar ezagutza ahalbidetzen. Hori oztopo bat da gizarteko talde ezberdinen eta hauek osatzen dituzten gazteen arteko harremanak emateko. Eta COVID-19ak are gehiago nabarmendu du diagnosi hau. Erantzuteko, zubiak eraikitze eta sarea josteko lan handia egin da kanpaina honen bitartez. Eragile mordoak egiten du lan handia gizarteko ertzetan daudenei laguntzeko eta hori ezagutzea eta haiekin harremana egitea izan da lehen pausua, baita egiten dutena EGKren komunikazio kanalen bitartez zabaltzea, gizarteratzea eta aitortza egitea. Era honetara EGKren posizionamendua indartu eta publikoen artean eragile bezala nabarmendu da. Guztia biribiltzeko [iraila amaieran ekitaldia](#) burutu da. Honen zabalpenerako esfortzu handia egin da aipatutako kanalen bitartez. Identifikatutako ondorio eta proposamenak gizarteratze lanean murgilduta dago Lantalde Teknikoa, memoria entregatzeko datarako oraindik ez da amaitu lana. Sakonago azaldu da **5.3 atalean**.

#LanEgokia:

Ez da berria gazteek bizi duten prekaritate egoera, baina COVID-19a dela-eta pairatutako krisi multisektorialak are gehiago areagotu du. Enpresek pasatako zailtasunengatik ERTEak aplikatu dira, lanpostu galera eta kaleratzeak ere egon dira, administrazioak bideratutako neurrietan nahasmen handia egon da, zenbait kolektibok asko sufritu dute eta laguntzak jasotzeko oztopoak egon dira. Horren aurrean, azken urteetan bezala, [urriak 7an kanpaina](#) egin da gazteen iritzia ezagutzeko, sareetan esfortzu berezia eginda. Eta erantzuna [oso ona](#) izan da.

Azaroak 17:

Azken hiletako egoera aintzat hartuta, [Hezkuntza Forotik](#) inoiz baino beharrezkoagoa ikusi da ikasleek egunerokoan bizi dituzten ardurak mahai gainean jartzea eta hauei irtenbidea emateko

lan egitea. Baita unibertsitate eta administrazioetik ere. Ikasteko baldintza duinak bermatu behar dira, are gehiago COVID-19ak azaleratu dituen egoerak ikusita. Horregatik, bildutako kexak, eskariak eta proposamenak [manifestu batean](#) bildu dira. Edukia sareen bidez zabaltzeko ere diseinatzaile gazteen laguntzarekin diseinu berezia egin da. Sakonago azaldu da **3.2.1 atalean**.

Boluntariotza:

Hilabete oso gogorrek izan dira azkenak eta gizartean hainbat arrakala, arazo eta desberdintasun areagotu dira. Horren aurrean administrazioetatik zein gizartetik erantzun bat ematen saiatu dira eta, batzuetan gehiago eta besteetan gutxiago, aitorpena eta aitortza izan dute. Kanpaina honen bitartez gazte boluntarioek egindako lana nabarmendu nahi izan da, fokua jarrita bereziki martxotik hona COVID-19ari aurre egiteko izandako jokabidean. Horretarako hainbat baliabide garatu dira: batetik, gazte boluntarioek identifikatutako erronkak biltzen dituen [manifestua](#); bestetik, boluntarioek bizitako esperientzia gertuagotik ezagutzeko [Instagram zuzenekoak](#); hirugarrenik, esperientzia horietan sakontzeko paneltxoak sare sozialetan zabaltzeko; eta, laugarrenik, [bideo bat](#) Gasteizko boluntarioen bizipenak jasotzeko. Eta hori guztia batzeko [albistea webgunean](#) eta traola komun bat: **#BoluntaldiaCOVID19an**. Sakonago azaldu da **3.15 atalean**.

Ebaluazioa

COVID-19a dela-eta oso urtea berezia izan da 2020an. Hilabete askoz bulegoetan egon beharrean teknikari bakoitzak bere etxetik egin du lan. Ildo horretan, barne komunikazioa indartzeko hartutako neurriak funtsezkoak izan dira elkarlana errazteko. Indarrak neurtuta egin da lana eta horren adibide da hedabideetan izandako oihartzuna edo egin diren aholkularitza kopurua.

8. PRESIDENTZIA

8.1. Batzorde Iraunkorra

Batzorde Iraunkorra EGKren erabaki-organoa da. EGK-ko eskubide osoko kide diren elkartetako 11 ordezkari osatzen dute, hurrengo moduan banatuta: presidentea, 2 presidenteorde, diruzaina, idazkaria eta 6 batzordekide. Batzar Orokorra urtero ospatu arren, Batzorde Iraunkorraren eraketa 2 urtetik behin erabakitzen da. Bere ardura da EGKren gaineko erabakiak hartzea, lan-ildoak ezartzea eta EGKren irudi publikoa landu eta aurrera eramatea.

Batzorde Iraunkorreko kideek EGKren gainean daukaten ezagutzan sakondu dute haien bigarren urtea izan delako.

Bestalde, presidenteak zubi-lana egingo du Batzorde Iraunkorraren eta Batzorde Teknikoaren artean. Batzorde Iraunkorraren bileretara teknikariak azalduko dira txandaka. Hartara, EGKren lana modu zuzenagoan ezagutzera emango da eta erabakiak hartzeko era erraztuko da.

Azkenik, presidentziaz Batzorde Iraunkorra (B.I) gai guztietan jakinaren gainean mantentzeko lana egingo da baita bileretatik at ere, telefonoz eta e-postaz nagusiki.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren gaineko erabaki nagusiak bideratu.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren kide diren taldeekiko komunikazioa landu.
- Batzorde Iraunkorra osatu, gorpuztu, taldetasuna landu.
- Batzorde Iraunkorraren erabakigarritasuna handitu.

- Ardura banaketa errespetatu.
- B.I.eko kideen parte hartzea sustatu.

Garapena

2020ko urtea Batzorde Iraunkorreko kide batzuentzat bigarren urtea izan da eta horrek asko lagundu du lana aurrera eramaten. Hala ere, urte berezia izan denez gehiagotan elkartzeko beharra ikusi da. Egoerak bilerak online bidez egiteak ekarri du, baina aldi berean, konpromiso handiago egon da.

Iraunkorrak, Batzorde Teknikoarekin batera jarraipena egin du elkarten egoerari dagokionez eta jarrera positiboa egon da erabaki garrantzitsuak hartu behar izan direnean. Batzorde Iraunkorraren bilera kopurua handitu da bereziki konfinamendu garaian eta batzuetan astero egin behar izan dira.

Ebaluazioa

- Oso positibotzat baloratzen da iraunkorrak izandako jarrera.
- Bilera produktiboak eta erabakiak positibotzat hartzen dira.

8.2. Lantalde Teknikoaren koordinakzioa

Lantalde Teknikoa EGK-ko teknikariek osatzen dute, bakoitzak bere arloan lan egiten du egunero eta denen artean proiektu guztiak kaleratzen dira; hau da, nahiz eta lan-arlo konkretu bateko proiektua izan, denen eskuetatik pasatzen dira egitasmo guztiak, EGKren diskurtsoarekin bat etor daitezen eta guztien artean koherentzia bermatu dadin.

Presidentetzaren aldetik lantaldearen kohesioa eta koordinazioa bilatzen dira. Hortaz gain, zubi lana egiten da Batzorde Iraunkorraren eta Lan Talde Teknikoaren artean, aurrenekoan

hartutako erabakiak bigarrenengora eraman eta bigarrenaren lana aurrenekoari transmititu ahal izateko. Hala, bi Batzordeen dinamikak uztartuko dira.

Lantalde Teknikoa hilabeteen behin elkartzen da txandaka hiru egoitzetan. Bilera hauen deialdia eta dinamizazioaren ardura presidentearenak dira. Horrez gain, kontuan izanda EGK hiru egoitzetan banatuta dagoela (eta horrek bilera presentzialak egitea zailtzen duela), aurten erabaki da ostiralero Skype bilera teknikoak egitea barne komunikazioa hobetzeko.

Lantaldean aldaketa bat egon da. Abenduan Komunikazio teknikari bat aukeratzeko prozesu bat martxan jarri zen. Prozesua presidentetzatik koordinatu da Batzorde Iraunkorraren laguntzarekin.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Lantaldearen kohesioa eta koordinazioa bermatu.

Zubi-lana egin Lantalde Teknikoaren eta Batzorde Iraunkorraren artean.

HELBURU ZEHATZAK:

- Proiektuak aurrera kudeatu.
- Elkarrekin harremana mantendu.
- Talde lana sustatu.

Garapena

Pandemiak eragin handia izan du EAE-ko pertsona guztiengan eta beraz, teknikarien lanean baita ere. Martxoaren 13tik aurrera telelana jarri zen EGK-ko langileetan eta plangintza osoari buelta ematea ekarri zuen. Hori dela eta, koordinazio bilera guztiak online izan dira abendurarte, izan ere, lurralde ezberdinetan egonda nahiz eta bulegoetara bueltatu bilerak online mantentzea adostu zen.

Aldi berean, egoera ikusita presidentetzatik teknikari guztiekin hainbat koordinazio bilera burutu dira plangintza egoerara egokitzeko eta lan arloaren inguruko elkarteak zaintzeko bermea izateko.

Ebaluazioa

- Urtearen berezitasunak eragina izan arren positibotzat hartu da lortutako elkarlana.
- Aurrerantzean, langileen arteko komunikazioan, kohesioan eta koordinazioan sakontzen jarraituko da EGKren egitekoari kalitatez eusteko.

8.3. Batzorde ekonomikoa

Batzorde Ekonomikoak EGKren aurrekontua, gastuak eta diru-sarrerak kontrolatu eta kudeatzen ditu. Batzorde Ekonomikoa EGK-ko administrariak, diruzainak eta presidenteak osatzen dute. Hitzarmenen bidez lortutako diru-laguntzak, elkarteen kuotak eta bestelako diru-sarrerak kudeatzen dituzte eta unean-uneko gastuak eta egoera ekonomikoa zaintzen dituzte.

Batzorde honetan, 2020ko aurrekontuaren kudeaketa egin da, eta Batzorde Iraunkorreko kideekin adostuta, erakundeekin hitzarmenak negoziatu dira. Horrez gain, beharrezkoak izan diren gastuak baloratu eta onartu dira.

Azkenik, hurrengo urteari begirako hitzarmenak prestatu dira eta aurrekontuaren aurreikuspena egin da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren alor ekonomikoaren jarraipena egin.

HELBURU ZEHATZAK:

- Alor honetan unean-uneko erabakiak hartu.
- 2020ko aurrekontua prestatu.

- Administrazioarekin hitzarmenak negoziatu.
- Diru sarrera eta gastuen gaineko jarraipena egin.
- Balantze ekonomikoa.

Garapena

Batzorde Ekonomikoaren bilerak:

Urtean hiru bilera egin dira. Koordinaziorako gainontzeko baliabideak erabili dira administraria, diruzaina eta presidentearen artean (posta elektronikoa eta telefono deiak batez ere).

Urte honetan lan handia egin behar izan da ikusteko zelan egokitu plangintzaren aldaketak arlo ekonomikoan ere.

Ebaluazioa

- Positibotzat hartzen da egindako kudeaketa.
- Urtez urte esfortzu berdina errepikatu behar izateak zailtasunak ekar ditzake etorkizunean.
- Zentzu horretan, administrazio eta erakundeekin lankidetzaz sendagoak negoziatu beharko lirateke, Kontseiluak egiten duen lanari jarraipena eta egonkortasuna emateko.

8.4. EGK-ko Batzar Orokorra

EGKren Batzar Orokorra urtero ospatzen da. Bertan EGK-ko kide diren elkarteei aurreko urteko memoria aurkezten zaie eta urte horretarako plangintza, onartu edota atzera bota ditzaten. Gainera, kide berrien sarrera bozkatzeko da eta EGKri dagozkion erabaki garrantzitsuenak adosten dira.

Bi urtetik behin Batzorde Iraunkorraren eraketa erabakitzen da Batzar Orokorrean. Batzarraren prestaketa Batzorde Iraunkorrari badagokio ere, presidentea da Batzarreko mahaiko arduraduna eta bera da Batzarra dinamizatzen duena.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

2020ko Batzar Orokorraren koordinazioa eta dinamizazioa.

HELBURU ZEHATZAK:

- Batzarrerako beharrezko dokumentazioa prestatu.
- Aldez aurretik elkarte proposamenak jaso eta aurkeztu.

Garapena

Memoria eta plangintzaren prestaketa.

Honek izugarrizko lana ekartzen dio EGK-ko Lantalde Teknikoari eta koordinazio lanak egiten dituen presidenteari; izan ere, dokumentu guztiak honen eskutik pasa behar izaten dira.

Bi dokumentu hauek, fase ezberdinetan, teknikari bakoitzak, talde tekniko osoak eta Batzorde Iraunkorrak aztertzen dituzte Batzar Orokorrari aurkeztu aurretik. Honekin, koherentzia, zuzentasuna eta egokitasuna bermatu nahi dira.

Batzarreko gai ordena eta antolaketa.

Urtero prestatzen den gai ordena eredu mantentzen da eta urtean urteko beharren arabera gauzak gehitu. Batzarra ospatzen den egunera begira, memoria eta plangintzen aurkezpen lanak banatu egiten dira, pertsona ezberdinen artean egin dadin.

Elkarteen proposamenak jaso eta aurkeztu.

Deialdia egin eta Batzarra burutu bitartean, elkarte ezberdinen proposamenak jasotzen dira. Horietako batzuk Batzorde Iraunkorrak aztertu behar izaten ditu aurretik.

Kidetze eskaerak jaso eta aurkeztu.

Batzorde Iraunkorrak aztertu behar ditu elkarte guztiei zabaldu aurretik.

Ebaluazioa

- Batzarraren eraginkortasuna positibotzat hartu da.
- Aurtengo batzarrean proposamen zein erabaki berriak egoteak ondo baloratu da.
- Batzar Orokor honetan elkarte berriak sartzea positibotzat baloratu da.
-

8.5. Elkarlana eta ordezkaritza

8.5.1. Eusko Jaurlaritza

Bere izaera juridikoa, finantziazio-bidea eta helburuak direla eta, EGK-k kontaktu zuzena mantentzen du bere egunerokotasunean Eusko Jaurlaritzarekin, EAE mailako elkarlanerako guneak konpartitzen dituztelarik. Gainera, EGKren finantziazio-bide nagusia den aurrekontu-partida instituzio honen eskutik jasotzen da.

Urtean zehar, aurreko urtean lortutako harreman berriak, zein zaharrak, sendotu egin dira nabarmen: Gazteria Zuzendaritzarekin, Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetza Idazkaritza Nagusiarekin, Enplegu Zuzendaritzarekin, Kanpo Harremanen Idazkaritzarekin, Lanbiderekin eta Hezkidetza Planaren Batzordearekin, besteak beste. Lortutako emaitza arrakastatsuetan oinarrituz, elkarlan horiekin jarraitzea da asmoa.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Elkarlanerako guneak identifikatu.

Eragin politikoa izan.

HELBURU ZEHATZAK:

- Zuzendaritza ezberdinekin informazio trukaketa bermatu.
- Mahai Interinstituzionalean parte hartu.
- EGKren aurrekontua egonkortzeko-handitzeko lana egin..

Garapena

Pandemiak egoera harremanak areagotu ditu baina harremantzeko erak aldatu ditu. Hau da, orain arte presentzialki egiten ziren bilera online bidez, telefonoz eta emailaz izatea ekarri du. Elkarrizketa astekoa ez bada izan, 15 egunerokoa izan da eta horrek ahalbidetu du elkarteetako egoerari buruz hitz egiteko aukera izatea.

Egindako lanak eta kezkak aurkezteko espazio ezberdinak eman dira, baina batez ere, izandako harremana Gazteria Zuzendaritzarekin izan da.

Ebaluazioa

- Positibotzat baloratzen da izandako harremana.
- Hurrengo urtera begira harremanetan egoteko bide berriak zabaldu ditu.

8.5.2. Aldundiak

Bere izaera juridikoa, finantziario-bidea eta helburuak direla eta, EGK-k kontaktu zuzena mantentzen du bere egunerokotasunean instituzio publikoekin. Aldundiekin ere, gazteen egoera, behar eta interesen gainean lan egiten da. 2019an lurralde historiko bakoitzeko Foru administrazioarekin martxan jarritako hitzarmenak aurrera joan dira. Aurreko urtean bezala, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiekin hitzarmenak mantendu dira.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Elkarlanerako guneak identifikatu (Gaztematika, GazteBizz, gazteen egoera sozioekonomikoa, elkartegintzaren errealitatea...)

HELBURU ZEHATZAK:

- Hitzarmenak adostu.
- Hitzarmenetako aurrekontuak bermatzeko lana egin.

Garapena

Plangintza zehar ikusi eta aipatu den bezala, pandemiak guztiz aldatu du orain arteko funtzionatzeko erak. Horrek ekarri du harreman gehienak online bidez bideratu dela. Aldi berean, harreman jarraikorra egon da elkarten egoera elkar banatzeko eta ahal den neurrian, laguntzeko.

Aldundiekin izandako harremana urte osokoa izan da. Hala ere, konfinamendu garaiko hilabeteetan zein urte amaierako hilabeteetan harremana areagotu da.

Ebaluazioa

- Izandako harreman gehiena elkarten egoera eta gazteen egoera lantzekoa izan da.
- Proiektuak kudeatzeko koordinazio bilera asko burutu dira.

8.5.3. Eusko Legebiltzarra

Bere jardueren eta asmoen berri emateko, EGK-k agerraldiak egiten ditu Legebiltzarrean, Gazteria Batzordean, Sustapen Ekonomikokoan edo dagokionarekin bilduaz. Urtean behin, gutxienez, ohiko agerraldia egiten du ordura arte egindako lana plazaratu eta hortik aurrerako asmoak azaltzeko.

Bestalde, legebiltzarkideek EGKren agerraldiak eskatuz gero, gai zehatzen gaineko erantzuna emateko, bertaratu eta hala egiten da.

Azkenik, Legebiltzarreko alderdi ezberdinekin ere bilerak izaten dira gazteriaren gaineko kezka nagusiei buruz hitz egiteko, EGKren egitekoaren berri emateko edo bestelako kontuetarako.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Legebiltzarkideei EGKren jardueraren berri eman.

HELBURU ZEHATZAK:

- Ohiko agerraldian memoria eta plangintza aurkeztu.
- Legebiltzarkideen agerpen-eskaera eta galderei erantzuna eman.
- Gazteen egoeraren berri eman instituzio eta gizarteari.

Garapena

Aurtengo egoera bereziak hemen egindako lana zaildu du, izan ere, pandemiak gain, hauteskundeak egon dira eta horrek zaildu egin du urtero ematen den agerraldia egitea. Hala ere, harremana mantendu da talde legebiltzarkideekin.

Ebaluazioa

- Aurreko urteekin alderatuta zailtasunak egon dira egoera dela eta.
- Hurrengo urtera begira harremana sendotzea eta areagotzea erronka bezala ezarri da.

8.5.4. Udalak

Bere izaera juridikoa eta helburuak direla eta, EGK-k erakundeekin hartu emana izaten du, baita zenbait Udaletako Gazteria sailarekin ere.

Orokorrean EGKren ekarpena gazteria politikari egiten zaie Gazte Planak edo bestelako proiektuen bitartez. Arduradunekin egiten diren bilerez gain, eratuta dauden estrukturetan parte hartzen da, foroak, eztabaida mahaiak eta abarren bitartez.

Tarteka, kolaborazio hitzarmenak ere sinatzen dira. Harremana edozein dela ere, elkarlana mantentzea, bilerak egitea, hitzarmena adostea, sinatzea eta koordinatzea presidentetzaren bitartez burutzen da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Politika publikoetan eragitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren lana eta ondorioak zabaltzea.
- Gazteriaren egoeraren berri ematea.
- Gazteria politikari ekarpenak egitea.

Garapena

Udalekin izandako harremana oso garrantzitsua izan da plangintzan ezarritako proiektuak aurrera eramateko. Oso harreman estua eman da urte osoan zehar eta proiektuak burutzeko erraztasun asko jarri dira hiru udalen aldetik.

Urte osoko harremana egon da email, telefonoz eta bilera birtualen bidez, hiriko elkarteen egoera ezagutzeko eta proiektuen koordinazio aurrera eramateko.

Ebaluazioa

- Harreman estua egon da hiru udalekin.
- Aurretik egondako harremana sendotu da eta hiru udaletan antzeko lana eta harremana izan da.

8.5.5. Beste erakundeak

Urtean zehar Gazteria politiketan eta gazteekiko lanean diharduten beste zenbait eragile eta erakunderekin ere kontaktu zuzena eta jarraitua edukitzen da Presidentziatik, hala nola: Nafarroako Gazte Kontseilua, Espainiako Gazte Kontseilua, Euskadiko Eskola Kontseilua, Droga-mendekotasunen Batzordea, Boluntariotzaren Euskal Kontseilua.

Horiez gain, EGK-k hainbat entitaterekin (EGK barruko eta kanpokoak) elkarlana sustatzen du: Udako Euskal Unibertsitatea, Bai Euskarari... Bi hauekin esaterako, hitzarmenen jarraipena egiten da.

Horren guztiaren helburua, gazteen ahotsa eta EGKren diskurtsoa ahal bezain beste zabaltzea da eta Kontseilutik egiten den lanak eragina izatea gazteen bizi-baldintzetan eta eskubideetan.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren ordezkaritza egin.

Erakunde eta eragile ezberdinekin elkarlana eta sinergiak bilatu.

EGKren hitza eta iritzia zabaldu.

Garapena

- Espainiako Gazte Kontseiluarekin bilerak.
- Nafarroako Gazte Kontseiluarekin bilerak.
- Euskararen Aholku Batzordeko bileretan parte hartu.
- OGP-Gobernu irekiko foru erregularra.
- UPV/EHU-rekin harremanetarako bilerak.
- Deustuko Unibertsitatearekin harremanetarako bilerak.
- Eusko Ikaskuntza.
- Innobasque.
- Ikasle Kontseilua.

Ebaluazioa

- Espainiako zein Nafarroako Gazteria Kontseiluekin harremanetan egoten da, batez ere, Nafarroako Gazte Kontseiluarekin. Proiektuen informazioaren hartu-eman bat egiten da komunean dauden proiektuetan elkarlana sustatzeko.
- Honetaz gain, beste hainbat bilera egin dira EGKren barne zein kanpoko elkarteekin.

8.5.6 Komunikabideak eta irudi publikoa

Presidentea Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko ordezkaria izanda, hainbat espazio publikoetan aurzketu behar du EGK-k landutako diskurtsoa. Horrek ekartzen du, hainbat medioetan (irratia, telebistan ...) gazteen iritzia lantzea eta proposamenak aurkeztea.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren ordezkartza egitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-ko diskurtsoa espazio publikoan aurkeztea.
- Gazteriaren perspektiba espazio publikora eramatea

Garapena

Urtero hainbat mediotan egoteko ardura hartzen da presidentetzatik, baina aurrean, hain urte berezia izanda mediotako presentzia areagotu da. Aurreko urteetan bezala, Radio Euskadiko Ganbara programan parte hartu du hilabeteetan behin. Pandemia eta gazteak lotutako gaia dela eta beste hainbat mediotan egon da ere (Jaken, Tele 7 ...).

Hortaz gain, aurtengo berezitasuna ETB1eko Eztabaidan programan hiru aste jarraian parte hartzea izan da.

Ebaluazioa

- Mediotan presentzia areagotu da.
- Gazteen gaiak eta proposamenak mediotan agertzen jarraitzeko erronka jarri da hurrengo urtera begira.

8.6. Gazteria legea

EGK-k urteetan parte hartu du Gazteria Legearen sorreraren prozesuan. Hainbat saiakera eman dira, azkena 2019an zehar abiatua. Hori dela eta, 2020an zehar EGK-k jarraipena eman dio prozesuari eragileekin zein administrazioekin harremanetan egonda.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EAEko gazteen eskubideak bermatu.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteen egoera hobetu.
- Legeak jasotzen dituen neurriak landu.
- Gazteria legearen informazioa zabaldu.
- Legearen prozesua jarraitu.

Garapena

2020an oso urte berezia izan da bizitzako pandemia dela eta. Aldi berean, EAEko hauteskundeak eman dira eta horrek luzatu egin du legearen prozesua. Hori horrela, behin EGK-k legearen proposamenak aurkeztu ostean, emandako erantzunak landu ditu ere. Aldi berean, Eusko Jaurlaritzarekin eta elkarteekin harremanetan jarraitu du ezagutzeko eman beharreko pausuak, bereziki 2021era begira.

Ebaluazioa

- Hauteskundeak egotea asko luzatu du Gazteria Legearen prozesua.

- Gehiengo lana jarraipena ematea izan da.
- Elkarteen eta administrazioen pertzepzioak ezagutzeko tarteak izan dira.

8.7. Gazte Agora

#GazteAgora, Eusko Ikaskuntza, Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, Nafarroako Gazteriaren Kontseilua eta UEUK aurrera eramandako proiektua da. Proiektu honen bitartez, aukera eman da zonalde ezberdineko gazteak elkartu eta komuneko gaiak joratzeko. Honetaz gain, lurraldeetako gazte eta eragileen arteko sarea josteko tresna oso baliagarria da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Lurraldeetako gazte sarea sortu.

HELBURU ZEHATZAK:

- Lurraldeen arteko gazteen arteko sarea indartu.
- Lurraldeen arteko gazteen arteko kezak eta proposamenak landu.
- Lurraldeen arteko gazteen ezagutza bultzatu.

Garapena

2019an proiektuaren lehen pausuak eman ziren eta EAEko gazteen txanda izan zen. Ostean, Nafarroako eta Iparraldeko gazteen txanda izan zen. 2020ko urtarrilean Nafarroako gazteak elkartu ziren Iruñean foro presentzial batetan baina martxoan pandemia gogor jo zuenez, Baionako gazteen kasuan online bidez elkartu behar izan ziren.

Hiru lurraldetako topaketak eginda, Eusko Ikaskuntzako talde motorreko gazteak, EGK eta NGK ondorio txostenaren lanketan egon dira. Txostenean, hiru lurraldetan identifikatutako emaitzak komunak eta ezberdintasuna jasotzen dira.

Aldi berean, proiektuaren hurrengo pausuak zehaztea izan da urte honetako erronka nagusia. Izan ere, pandemiak mugaz-gaindiko topaketa bertan behera uztea behartu du eta horren suposatu du proiektuaren prozesua egoerara moldatu beharra.

Ebaluazioa

- Txostenean jasota emaitzak oso aberasgarriak lanean jarraitzeko.
- Egindako topaketak oso positibotzat baloratu dira jarraipena egiteko.

8.8. Gobernu Irekia (OGP)

Eusko Jaurlaritzak, hiru Foru Aldundiak eta hiru hiriburuetako Udalek proiektu berri baten parte izatea erabaki zuten. OGPrako aurkeztu eta hautatuak izan ziren. Proiektu hau aurrera eramateko foro ezberdinak sortu behar zituzten eta horietako bat Foro Erregularra izan da. Foro horretan hiru administrazio mailetako ordezkariak zeuden eta baita gizarte zibilak aukeratutako ordezkariak. Azken hauen papera, gizartearen interesak zein beharrak defendatzea da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Inzidentzia politikoa egin.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteen ikuspegia txertatu.
- Gazteen iritzia erabaki guneetara hurbildu.

Garapena

Aurten, beste proiektuetan bezala, pandemiak eragin handia izan du eta bereziki partaidetza sustatzen duten proiektuak asko sufritu dute. Honen kasuan, bilerak online egiten jarraitu dira baina ez du beste urteetan bezalako jarraipena izan EGKren partetik. Hainbat erronka berri sartu dira urtean zehar eta horrek zaildu egin du jarraipena behar bezala egitea.

Ebaluazioa

- EGKtik, prozesu honetan parte hartzeko aukera izatea positibotzat hartzen da. Era honetara, bermatzen da administrazio maila ezberdinetan gazteen ikuspegia kontuan izatea.
- Hurrengo urtera berrira jarraipena hobetzeko erronka ezarri da.